

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2014-02-10
ASTELEHENA
440. ZENBAKIA
10. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

Jaiak San Blasen eta Gesalibarren



Luntzaz gozaten. | JOSETXO ARANZABAL

Aste bukaera osoan izan ziren hainbat ekintza Arrasateko eta Bergarako auzo horietan | 12

18 eta 40 urte arteko neska-mutilek ospatu zuten Kinttada Eguna | 13



36 urteko gizona hil zen Antzuolan, lan-istripuan | 6



Oraingo eta lehengo kantuek eskaini zituen Bide Ertzeanek Elgetan | 31



Begarako Ariznoa elkarteko jubenilak, uztaiekin ikuskizuna egiten.

Debagoiendarrek, parte-hartze borobila Gipuzkoako txapelketan

Gimnasia erritmikoko eskola arteko txapelketaren 1. fasean, bailarako gimnasta guztiak sailkatu ziren | 27

IMANOL SORIANO

Eskoriatza osoan atez ateko bilketa sistema ipiniko dute apirilean

Proba pilotua egin dute Eskoriatzan, hondakinak batzeko sistema egokiena aukeratzeko: organikoa edukiontzietan batzen zen, eta gainerakoa, zintzilikarioetan. Bada, Udal Gobernuak esan du emaitzak ez direla "esperotakoak" izan eta, ondorioz, atez ateko bilketa ezarriko dutela. | 19

SINADURAK

-  ESTEBAN UMEREZ | 8
-  8 | AMAIA TXINTXURRETA
-  NEREA MAKAZAGA | 14
-  17 | ANDRES OSA 'SAKONA'
-  MAITE IRIZAR | 18
-  19 | JULEN ABASOLO
-  IMANOL GALLEGRO | 37
-  40 | XABIER ZUBIZARRETA

Erreflexuek ez dezatela ezkutatu nolakoa zaren.

mō betaurreko graduatuak islaren aurkako beslayt kristalekin

67€

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRETERIA
IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

Elizatik ezkontzeko ere, moduak eta moduak daude

- ▶ Ezkontza katolikoa oso zeremonia malgua da
- ▶ Debagoieneko bikoteek betiko erritua egiten dute

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Gero eta jende gutxiago ezkontzen da eta, ezkontzen direnen artean, gutxiagok aukeratzen dute ezkontza kanonikoa edo Eliza Katolikoaren arabera egiten dena. Eustaten datuen arabera, 2012an, aurreko urtean baino %5,1 ezkontza gutxiago egin ziren (edozein motakoak); baina 1990an, ezkontzen %23 zibilak izan ziren, eta 2012an, %70,1 ziren; iaz, ezkontzen herena inguru izan ziren erlijiosoak, eta %29,1, zehazki, katolikoak.

Debagoiena ez dago joera horretatik kanpo, Pello Zabala frantziskotarrak Arantzazuko Santutegian egindako ezteien gainean ematen dituen kopuruek agertzen duten moduan: 1945a ezker (urte horretan 46 eztei egin ziren), pixkana-pixkana gora egiten du kopuruak, eta 60ko hamarkadatik hasi eta 80ko hamarkada erdialdera dago bere onean, hiru digituko kopuruekin; urte onena 1974a izan zen, 247 ezkontzarekin. 1984tik aurrera, beherako joera hasten da. 2012an, 10 ezkontza ospatu ziren Arantzazun; iaz, 8. Aurten, 6-8 ezkontzaren bueltan ibiliko direla esaten du Zabalak; tartean, "Donostiako bikote bat eta AEBetan bizi direnak".

Urteetan egon den aldaketa honela azaltzen du Zabalak: "Garai baten, elizan dena latinez egiten zenean, ospakizun familiarak egiten ziren. Komeni zen egunean, bi familiak batuta 12 eta 20 lagun artean batuko ziren. 1945 eta 1955 urte artean 260 eztei-edo izango genituen; egun baten, hiru eztei, sei, zazpi... batzuk kaperatxo baten, beste batzuk ermitan, aldaire nagusian edo ezkinako beste aldaire baten... Eta ez zen zapa-tuetan ere izaten, hantxe bertan bazkari legea egin eta horrela egiten zuten".

Gerora, "batez ere herri-hizkera erabiltzen hasi zenean, koa-

drilan ospatzen hasi ziren, despedidak hasi ziren... eta orduan eztei gutxiago ospatzen ziren Arantzazun, baina hala ere, 80 bat edo, eta gehienak zapatuetan. Horrek beste ospakizun giro bat ekarri zuen". Urte horietan hasi zen aldaketa: "Ezkontza zibilerako joera etorri zen; edo eliza handiek hartzen duten karga hartu beharrean, ermita baten ezkontzeko joera", jarraitzen du Zabalak.

Bedoña, gustukoena

Arantzazura kanpotik etortzen dira zenbait bikote, bereziki Gasteiztik. Baina Debagoienekoak ere joaten dira kanpora ezkontzera. Izan ere, norberak gura duen elizan eska dezake ezkontzea. Arrasateko San Juan Bataiatzaileko parroko Horazio Argaratek honako zifrak ematen dizkigu: "Urtero 10 bikote ezkontzen dira elizatik, erdialdean edo auzoetako elizetan; eta kanpoan ezkondu gura duten Arrasateko bikoteendako, urtean 20 bat espediente prestatzen ditut". Bere esanetan, Arrasaten, betidanik Bedoña izan da gustuko leku bat ezkondu gura zuten bikoteendako; baita Uribarri, San Isidro eta San Juan ere eta, asko urrundu barik, Dorleta eta Arantzazu. Baina, azkenaldian,



Ezkontza ospakizun baten arrastoak Arantzazun. | SERAFÍN APARICIO MARTÍN

bikote askok Donostiara jotzen dute ezkontzera. "Askotan, jate-txearen arabera hartzen dute eliza ere; eta azkenaldian, autobusak hartzea ere boladan jarri da", azaltzen du Argaratek.

Berba egiten duen kandela

Jende askok jakin ez arren, ezkontza katolikoaren erritua oso malgua da eta bikote bakoitzak bere erara antola dezake. Beharbada, ospakizuna gehien markatzen duena meza egitea edo ez egitea da, horixe ere bikotearen esku baitago. Ezkontzideek esaten dituzten hitzak ere norberak presta ditzake, ez dago

zertan formula jakin bat jarraitu. Musika, eliza apaintzeko loreak... ere aukera daitezke, eta errituan zehar musika instrumenturen bat jo, bertso batzuk esan... hori ere aukeran dago. Pello Zabalak dioenez, bera orain 15 urte hasi zen bikoteei galde-tzen mezarekin edo mezarik gabe nahi ote zuten. "Trakurgaiak egiten ditugu eta, gero, bikotearen berbak dira garrantzitsuak, elkarri baietza ematea. Eta beste zentzu elebratiboago bat hartzen du ospakizunak, ez hain elizkoia".

Zabalak proposatzen duen beste detaile bat da ezkontzan kandelatxo bat isiotzea eta bikoteak kandelatxoari barbarazi egitea: "Kandelatxoak berba egiten du: hemen nago, zuek urdu-urduri zeundeten elkarri baietza eman diozuenean... Oso gauza xaloa da, eta era berean, oso goxoa eta oso polita".

Dena dela, Horazio Argaratek dioenez, Arrasaten ezkontzen diren bikote gehienek bide tradizionaletik jotzen dute: "Gehien kentzen den zatia elkarrekin txanponak trukatzeara da; izan ere, mamu antzeko bat geratu da, txanpona horiekin gizonak emakumea erosi egiten duela, eta ez da horrela;

ESANAK

"Musika, loreak, hitzak... bikoteak aukera ditzake, baita ze elizatan ezkondu ere"

HORAZIO ARGARATE
SAN JUAN BATAIATZAILEROKO PARROKOA

ESANAK

"Meza kendu egin daiteke; garrantzitsuena bikotearen berbak dira, elkarri baietza"

PELLO ZABALA
ARANTZAZUKO FRAIDEA

ARRASATEKO BASERRIKO
PRODUKTUEN AZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

2014
otsailak 15

martxoak 15
maiatzak 17
ekainak 21
uztailak 19
irailak 20
urriak 18
azaroak 15

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
Engulu eta Garapen
Ekonomikoaren Saila

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta
merkatariak konfiantza,
herbilasuna eta kalitatea
eskaintzen dizkizute.





San Blaserako, gainezka

Orain gero eta bikote gutxiagok aukeratzeaz ezkontza katolikoa, honakoa dio Horazio Argaratek: "Ezkontza guztien kopurua jaitsi da, zibilena ere bai. Eta badaude, fededunak izan arren, ezkontzeko beharrik sentitzen ez dutenak ere". Bestalde, ezkontzen direnak zenbateraino dira fededunak? "Eurei galdetuz gero, gehienek baietz, fedea dutela esaten dute. Dena dela, elizarekiko atxikimendua oso txikia da. Gaur egun gutxi datoz aiton-amonak ez tristetzearren elizatik ezkontzera; baina, familiakoak elizkoiak badira, kontuan hartzen dute bikoteek ere; adibidez, meza ematea edo ez ematea erabakitzerakoan".

Pello Zabalak onartzen du ez diola "penarik" ematen elizako ezkontzak gero eta gutxiago izateak. Gaineratzen duenez, bestalde, urrezko eta zilarrezko eztei ospakizun dezente hartzen dituzte oraindik Arantzazun. "Familia giroko ospakizunak izaten dira", azaltzen du.

Sakramentuei dagokienez, oraindik gehien ematen dena bataioarena da, Arrasateko parrokoaren esanetan: "Gaur egun, jaiotzen diren umeen erdiak inguru bataiatzen ditugu, eta gehien ematen dugun sakramentua da; sentipen berezi bat izaten dute gurasoek, eurak elizatik ezkontuta ez badaude ere".

Bestalde, elizarekin zerikusia duten edo egutegi katolikoan jatorria duten ohitura askok oraindik jende pilo erakartzen

dute: "San Blas ospatzeko, elizak gainezka egon dira; Eguberriak, Erramu domeka, San Balerio eguna... ohitura horietan oraindik jende askok parte hartzen du", esaten du Argaratek.

Ameriketako erara

Ezkontza bera ospatzeko modua ez da askorik aldatu Debagoiengan; bai, ordea, ezkontza egin dela

ospatzeko moduak, eta bitxikeriarik ere badago. Bergarako Lasa jatetxean dioskutenez, "gero eta boda zibil gehiago dago, eta horiek egiten dituztenek, askotan, lorategian antzeppen edo irudikatze antzekoa egiten dute, Ameriketako modura, aitabitxiekin, ohorezko damekin eta abar. Alfombra gorria eta guzti daukagu horretarako".



Isabel Tenaille aurkezlea Arantzazun ezkontu zen. | JESUS M^o ARZUAGA

Aurkezle famatuaren ezteia

Arantzazuko ezteia bat Espainiako prentsa arrosa guztian agertu zen, 1978ko urrian: garai hartan oso ezaguna zen Isabel Tenaille kazetari eta aurkezlearena. Television Españolako aurpegi ezagunenetariko bat zen Tenaillera. Berak eta Adolfo Butterini enpresaburuak Arantzazuko Santutegia aukeratu zuten ezteiak ospatzeko. Jakin-minak herritar pilo erakarri zuen Arantzazura ere. Bikoteak ezkontuta jarraitu zuen Butterini hil zen arte.

ondasunak elkarrekin trukatzea adierazten du ohitura horrek, ezkontutako bizitzan izan behar lukeen moduan. Baina, uste txar horregatik, jende askok kendu egiten du zati hori".

Gipuzkoako beste herri batzuetan, berritzeko joera handiagoa ikusi du Argaratek, Arra-

saten baino: "Beste leku batzuetan, sormen handiagoa dute. Ni abade izandakoa naiz Lasarten eta Usurbilen eta han urtean bat edo bi ezteia baziren guztiz berritzaileak: eraztunen beharrea lepokoak konpartitzen zituzten; edo eurek sortutako hitzak esan..."

3. fasea hastera goaz! ARETXABALETA

165.000 €-tik
aurrera (BEZ kanpo)

- 2 eta 3 logelako etxebizitzak
- Sukalde hornitua
- Trastelekua barne
- Horma-armairua

Iturrizar plaza



Informa zaitez, konpromisorik gabe:

ORTUZAL PROMOCIONES S.L Ibargarai 36 behea - BERGARA

Tel.: 943 79 40 00 - 943 76 11 18 - 619 71 82 78

www.grupoortuibar.com

Etxetresnetako langileen kaleratze EREa, tramitera

Ez bazkideen kontratuak eten arte, ezin dute langabe gisa izena eman ez eta prestazioa kobratu ere

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Fagor Etxetresnetako 106 langileren, Grumaleko 147 langileren eta Edesako 82 langileren (guztiak ez bazkideak) kontratuak eteteko prozesua has dadin onartu zuen joan den egunean, hilak 6, Donostiako 1. Merkataritza-Epaitegiko Pedro José Malagón epaileak.

Hain zuzen, iraungipen (extintzio) EREa aurkeztea adostu zuten konkurtso-administrazioak eta hiru enpresek, eta horren tramitazioa hastea da epaileak onartu berri duena. Langile ez bazkide horien kontratuak bertan behera geratu arte, 335 langile horiek ezin dira Lanbideko bulegoetan langabe gisa erregistratu, eta gainera, hainbat hilabeteko soldatak ez dituzte kobratu.

Fagor Etxetresnek, Grumalek eta Basaurik iraungipen EREa eskatu zuten, soldatak ordaintzeko gai ez zirelako eta langile horiei lana eman ezin zirelako, "jarduera errentagarriarik ez" zegoelako, Fagor Etxetresnek jarduera eten zutenetik.

Fagor Etxetresnetako iturri ofizialen arabera, "iraila ezkeror hilabete bat kobratu dute" langile horiek, baina beste nominak zorretan dituzte eurekin Fagor Etxetresnek, Grumalek eta Edesak. Fagor Etxetresnek baieztatu dute "kobratuko" dituztela.



Fagor Etxetresnetako langileen hirugarren kale-agerraldia. | GOIENA

Negoiazteko epea

Kontratuak eteteko prozesua bukatu arte, baina, kontratuek indarrean jarraitzen dutenez, langile horiek ezin dute beste lanik bilatu eta ezin dute ere Lanbiden lan-eskatzaile gisa izena eman, ez eta langabezia prestazioa kobratu ere. Dena dela, langileek linbo egoera horretan

zenbat denbora eman beharko duten ez dago batere argi, eta Fagor Etxetresnek ere ezin izan dute zehaztu. Izan ere, orain, epe bat ireki da langile horien ordezkariak eta konkurtso-administratzaileek kaleratzeen baldintzak negoziatu ditzaten, eta zaila da esaten prozesu hori noiz bukatuko den; baliteke egunak hartzea

Mondragonekin batzarra

Ordaindu plataformak jakinarazi du otsailaren 13an, datorren egunean, Mondragon Taldearen Batzarde Iraunkorarekin batzartuko direla, eurekin taldeak "zorretan dituen produktuak" bueltatzeko irtenbide esperoan. Batzar hori Txema Gisasolarekin ziren egitekoak; haren dimisioaren ostean hitzartu dute otsailaren 13ko batzarra. "Protesta giroan" egingo dute egun horretan ere Mondragon Taldearen egoitzarako bidea. 15:00etan elkartuko dira Bolintxon.

edo hilabeteak hartzea. Negoziazio horretan ordezkariak egon behar dira hiru enpresetako langileak eta, beste alde batetik, Fagor Etxetresnen konkurtsoaren administratzaileak.

Hilabete baten buruan ez badira ados ipini, berriz epaileak erabaki beharko du langile horien kaleratzearen gainean.

"Ahul" bada ere, ekonomia hobera doala dio Adegik

GOIATZ ARANA | OÑATI

Gipuzkoako ekonomia hobetzeko zantzu "ahulak" ikusten dituzte enpresaburuek. Hala azaldu zuen Adegik patronalak joan den eguaztenean, Gipuzkoako enpresaburuei egindako urteko galdeketa emaitzak ematerakoan.

Esan zuten, ekonomiaren erorketa oso handia izan da, eta luze joko du urteotan galdutakoa errekuuperatzeak: sei urtean, Gipuzkoan, 2.000 enpresa baino gehiago eta 35.000 lanpostu inguru galdu dira; barne produktu gordina (BPG) 2006ko mailatik behera jaitsi da; eta industria ekoizpena 35 puntu inguru erori da.

2013an "hobekuntza zantzuak" ikusi dituzte Gipuzkoako enpresaburuek eta 2014a urte "positiboa" izatea espero dute. "Aurten dauden arriskuak gauzaten ez badira", lurraldeko BPG %1 haziko dela iragarri du patronalak.

%2,5 gehiago fakturatu

Inkestaren arabera, salmentek gora egin zuten 2013an (fakturazioa %2,5 igo zen), batez ere kanpo sektoreari esker. Eskaerak ere %3,4 igo ziren iaz, eta Gipuzkoako enpresen %81,5ek eskaera mailari eustea lortu zuten.

Enpresaburuen artean konfiantza "nabarmen" hobetu dela baieztatu zuen Gipuzkoako patronalak.

Armosu osasungarria zelakoa den ikasi zuten Elkar Heziko ikasleek

Esnea kakaoarekin, galletak eta zukua hartu zituzten LH 5.eko umee

TXOMIN MADINA/L.K. | OÑATI

Oñatiko Elkar Hezi ikastetxeko Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleek Gosari Osasungarriaren gaineko ikastarotxo egin zuten joan den egubakoitzean. Horretarako, egun horretan armosatu barik joan ziren eskolara, bertan eman zirelako armosua.

Gosari Osasungarriaren gaineko ikastarotxo lotuta dago aurtengo Eskola Agenda 21 programarekin, horren barruan elikadura lantzen dabilazalako aurten neska-mutikoak. Elkar Hezi ikastetxeko ikasleen otorduetaz arduratzen den Gasca enpresarekin batera egin zuten egubakoitzeko saioa, eta Gascako Lide Egizabal dietistak gidatu zuen ikastarotxo. Bi zatitan banatu zuten: lehenengo, osasuntsu armosatzea zer den azaldu zuten neska-mutikoak; eta gero, armosatu egin zuten.

Barau luzea apurtu beharra

Lide Egizabalek azaltzen duenez, "zortzi ordu inguru ematen ditugu ohean jan barik; jaikitzen garenean, baraurik gaude, eta energia behar dugu eguna hasteko, ikasketak ondo hartzeko eta lanean ere kementsu ekiteko". Umeengan ohitura onak indar-tzerako orduan, honakoa gaineratu zuen dietistak: "Helduok izan behar dugu eredu".

Elkar Heziko ikasleek ere onartu zuten bazekizkitela ondo ez armosatzeak ze ondorio dituen: "nekatuta, gogo txikiarekin" egoitea gero ikasgelan, Maddik esaten zigunez. Eta eurek normalean zer armosatzen duten kontatu zioten GOIENARI: esnea kakaoarekin, galletak eta zukua, Maddik; esnea kakaoarekin eta galletak, Xabatek; esnea kakaoarekin bakarrik, Kristik...

Hiru elementu, ezinbesteko

Elkar Heziko jangelan, baso bana esne eta kakao, galletak eta zukua izan zituzten armosatzeko neska-mutikoek. Izan ere, aditu gehienek esanetan, armosu osasungarri batek hiru mota horietako janariak izan behar ditu: esnekiak -esnea, jogurta, gazta...-; karbohidratoak -zerealak, ogia, tostadak, galletak, bizkotxoak... baina betiere, etxean egindakoak badira, askoz hobeto, koipe txar deitutako gutxiago dutelako-; eta fruta pieza bat edo zukua.

Bestalde, opil eta gozo industrialak ahalik eta gutxien hartzea komeni da, koipe trans asko izaten dituztelako. Hala ere, Euskadin egin diren inkestak arabera, oraindik horietako larregi hartzen dituzte umee armosatzeko: umeen %40k onartu dute hala egiten dutela.



Mutiko taldea, Elkar Heziko jangelan armosatzen. | TXOMIN MADINA



LH 5-eko neskatilak, jangelan. | TXOMIN MADINA

Komunikazioko ikasleen etorkizunaz, Komunikaldian

Alorreko lan aukeren gaineko informazioa zabaltzea eta ikasleek abiarazitako ekintzailtasun esperientziak bertatik bertara ezagutzea da helburua

GOIATZ ARANA | ARRASATE

Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasleen etorkizunaz ariko dira aurten Komunikaldian, hilaren 26an, Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean. Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasleak eta ikasle ohiak izango dira protagonistak aurtengo Komunikaldian. Izan ere, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Komunikazio departamentuak antolatzen duen jardunaldiaren bederatzigarren edizioan, Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi dut. *Eta orain zer?* galderaren bueltan egituratu dituzte hitzal-di eta saioak.

Esperientziak abiapuntu

Jardunaldiaren asmoa da, aditu eta Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasle ohien esperientzietatik abiatuta, Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasle eta parte-hartzaileen artean etorkizuneko lan aukeren gaineko informazioa zabaltzea, eta antzeko ikasketak egin dituzten gazteek abian jarri-

EGITARUA

09:00 Aurkezpena eta ongi-etorria Josu Zabala MUko Errektorearekin.

09:15 Mikel Orobengoa, ekintzailtasunaren garrantziaz.

09:30 Amaia Elu, Hirudart estudioa eta Euskal Valley sarea.

10:00 Ruben Mateo, Beniwood ekoiztetxea.

11:00 Oihane Beñaran (Bolivian, NBEem komunikazio teknikaria).

11:30 Ane Irazabal (freelance kazetaria).

12:15 Aiala Fernandez, digitalizazioa eta Europa.

13:00 Mahai-ingura goizeko hizlariekin.

tako ekintzailtasun eta lan-esperientziak bertatik bertara ezagutzea.

Izenematea

Aurreko edizioetan bezala, oraingo jardunaldian ere sarrera doan izango da, baina, alde aurretik izena eman beharko da, telefonoz edo e-posta bidez: 943 71 41 57 edo harrera.huhezi@mondragon.edu. Komunikazioarekin lotutako gaiak jorratzen dira Komunikaldia jardunaldian. Aurreko edizioetan landu diren gaiak izan dira: ideia-laborategiak, bideo jokoak eta hezkuntza, egile eskubideak, telebista Interneten, gure zinema gaur, etorkizuneko komunikatzaileak, tokiko telebista digitala euskaraz eta komunikazio korporatiboa.

Hizlarien artean egingo dira Ane Irazabal freelance kazetaria, Ruben Mateo eta Amaia Elu ekoizle eta ekintzaileak eta etorkizuneko aukera eta erronkei buruzko mahainguruarekin amaituko da jardunaldia.



Imanol Azkue, liburuaren egilea. | GORKA ZABALETA

Imanol Azkue | Idazlea

"Debagoiengan badago elkarlanerako joera bat errotuta"

Gipuzkoako azken urteetako parte-hartze esperientzien bilduma aurkeztuko du gaur

J.B. | ARRASATE

Gipuzkoan 137 parte-hartze esperientzia bultzatu dituzte Gipuzkoako erakunde publikoek, horietatik 20 Debagoiengan, eta liburu batean jaso dituzte guztiak: *Herritarrekin. Parte hartzeko esperientziak Gipuzkoan (202-2013)*. Gaur aurkeztuko dute liburua, Kulturalen, 18:30ean.

Zer jaso duzue liburuan?

2012tik 2013ko ekainera bitartean bukatuta zeuden esperientziak. Orain, eskualdez eskualde gabiltza liburua aurkezten. Gipuzkoako 66 herritan egingako esperientzien bilduma egin da. Ez daude guztiak, baina asko eta asko bai.

Debagoienekoak ere?

Leintz Gatzagan izan ezik, gaitzako herri guztietako esperientziak daude jasota: Antzuolan, parte hartzeko aurrekontuena eta elkarbizitza-plana; Aretxabaletan, udal aurrekontuena eta beste esperientzia batzuk; Arrasaten, adibidez, herri handiena izanik, Gureztatu proiektua jaso da eta jendearen testigantzak ere jaso ditugu, hirigintzako agiri baten azterketa, hondakinen kudeaketa...; Bergaran, kirol sarea eta hondakinen problematika jaso dira, baita euskararen plan estrategikoa ere; Elgetan, hezkuntza zerbitzuaren eta garraio publikoaren azterketa daude... Eskoriatzan, esperientzia mordo bat jaso da, Eskohitza 2013, Atxorrozkoa... Oñatin Herrijoan proiektua eta barne antolaketari dagokion harreman estilo berriari buruzkoa.

Inplikatuak asko dira, hortaz.

Jende askok hartu du parte eta nahiko nuke jende hori guztia ere egile sentitzea: argazkiak utzi dizkidate, beste batzuek testigantzak eman dituzte, zinegotzi eta teknikarien laguntza ere izan dut... Liburua bera

egitea ere parte hartzeko prozesua izan da.

Eskualdez eskualde, alde handiak daude? Debagoienak badu berezitasunik?

Debagoiengan parte-hartzea nahiko errotua dagoela esango nuke. Baliteke horrekin harremana kooperatibismoak izatea, ze badago elkarlanerako joera bat, elkarrekin aritzekoa.

Kultura aldaketa bat sumatu duzue?

Denetik dago baina, batez ere herri txikietan badago lehenagotik datorren zerbait. Auzolana oso errotuta egon da gurean. Beste toki batzuetan agintean egon izan den alderdi politikoa arabera igartzen da gauzak modu batera egin direla ala aldaketa dagoela.

Herritarrek sumatzen dute parte hartzeko bide gehiago jartzen zaizkiela gaur egun eskura?

Badago parte-hartzearen aldeko boom edo loraldi bat, baina parte-hartzeari edukia eman behar zaio, eta ez da hitz huts bat izan behar. Parte hartzea informatzea edo komunikatzea baino askoz ere gehiago da; parte-hartzea da elkarrekin jardutea, elkarrekin eraikitzea, eta momentuan lana badakar ere, epe luzera inbertsioa da, herritarrek boteredun bihurtzeko. Horixe da benetako erronka, hain zuzen.

"Badago parte-hartzearen aldeko 'boom' edo loraldi bat"

Erreportaje osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Komunikaldia 2014



Komunikaldia iragartzeko aurten erabili duten kartela. | HUHEZI

Hauteskunde-webgunea egokitu du Jaurlaritzak, mugikorretarako

J.B. | ARRASATE

Hauteskundeetako informazioa jasotzen duen webgunea gailu eramangarrietarako egokitu dute. Sistema berriarekin, besteak beste, maiatzean egitekoak diren Europako Parlamenturako hauteskundeak zuzenean jarraitu ahal izango dira. Hauteskunde prozesuak, herri-galdeketa eta

araudi zein egutegiak kontsulta daitezke bertsio berrian (ttiki.com/60773).

Responsive delako diseinu egokigarriarekin egin da bertsio eramangarria eta, honela, jatorrizko webgunearen edukia zuzenean moldatzen dira dispositibo ezberdinen pantaila eta diseinu beharretara. Segurtasun

Sailak zabaldutako oharrean azaltzen dutenez, "ekimen aitzindaria da Estatuan eta sarbide erraz eta arina eskaintzen dio edonori hauteskunde-prozesuen eta herri-galdeketen eta -inkestentzako legedia arautzaileak kontsultatzeke, hala nola Euskadiko hauteskunde-prozesu guztien edo datozen Europako hauteskundeen jarraipena online egiteko". Hala, "herritarrek beraiek teknologia berrien esparruan egindako eskakizun berri eta gero eta ugariagoei erantzun" gura diete.



Galartza auzoan gertatu zen lan-istripua. | IMANOL SORIANO

36 urteko gizona hil da arbolak mozten zebilela

Antzuolan gertatu zen istripua; hildakoa 36 urteko errumaniarra da

LEIRE KORTABARRIA | ANTZUOLA

Basoan lanean zebilen gizonezko bat hil zen egubakoitzean Antzuolan, Herrizaingo sailak jakinarazi zuenez. 36 urteko errumaniarra zen, M.I.T. inizialduna.

Istripua Gorlan gertatu zen, Galartza auzoan, Bergarako mugatik oso gertu, 16:00ak aldera.

Herrizaingo sailaren arabera, bi gizonezko zebiltzan arbolak mozten eta, argitzeke dauden arrazoiengatik zuhaitz horietako bat gainera jausi zitzaion langileari eta bertan harrapatuta geratu zen. SOS Deietan abisua jaso eta berehala gerturatu ziren bi ambulanzak, suhiltzaileak eta Ertzain-

tzaren helikoptero bat, baina ezin izan zuten gizona salbatu. Herrizaingo Sailaren arabera, enpresa pribatu bateko langileak ziren.

Batzar Nagusietako PSE-EE-ko bozeramaile Rafaela Romerok "atsekabea" azaldu zuen, eta Lan-Arriskuen Prebentzio Legea "zorrotz" bete dadin eskatu.

Arkaitz Bellonen heriotzagatik, samin eta protesta adierazpenak Debagoiengan ere

Espetxe politika aldatzeko eskatu dute gurean egindako mobilizazioetan ere

JULEN IRIONDO | OÑATI

Arkaitz Bellon preso elorrioarra Cadizeko Puerto I espetxean hilda agertu eta gero, hainbat eta askotarikoak izan dira erreakzio eta mobilizazioak. Arrasaten, adibidez, Bilduren, Aralarren eta EAJren udal taldeek adierazpen bateratua plazaratu zuten, gertuko elkartasuna adieraziz eta espetxe politikaren aldaketa eskatuz, besteak beste.

Arrasaten bertan, eta Debagoieneko beste hainbat herritan -Bergaran, Aretxabaletan eta Antzuolan ere bai, esaterako- izan ziren Bellonen heriotzak eragindako protestak. Oñatin, adibidez, bilkura egin zuten egunean kontzejupean. Dozenaka herritar batu ziren bertan, Elorrioko presoaren heriotzagatik samina adieraziz eta "mendekuan oinarritutako espetxe politika" aldatzea eta sakabanaketarekin bukatzea eskatuz. Herritarren artean Bilduko zinegotziak ere bai, alkattea buru.

Bilkuran azaldu zuten, beste preso batzuen testigantzen arabera, arratsalderako planak aipatuz sartu zela Bellon ziegara eguaztanean eta, beste inor bertan sartu gabe, hilda agertu zela



Oñatiko kale agerraldia. | J.I.

gero. Dena dela, Oñatiko Sortuko kide Jose Mari Zugastiren arabera ezin da esan heriotza naturala izan zenik: "Nola da posible heriotza naturala izatea, azken hamahiru urteetan bizitza naturala izan ez badu: 2007an, bere senideek istripua izan zuten espetxera zihoazela; azken urteetan lau jipoi behintzat jasan ditu; orain ere isolamenduan zegoen; lekualdatzeak jasan zituen... Dispersioaren ondorio denak bizi izan zituen, heriotzara iristera arte".

Bellonen heriotzaren aurrean hainbat alderdi, sindikatu eta eragilek adostutako adierazpenaren berri ere eman zuen Zugastik, non nabarmentzen den etxetik 1.000 kilometrorra hil dela eta bi herenak beteak zituela, besteak beste; elorrioarrak kalean egon behar zuela adierazten du agiriak. Zigor osoa beteta, maiatzean zen espetxetik ateratzekoa. Indarrak batzeko deia ere egin zuten, oraingoan preso baten heriotza eragin duen giza eskubideen urraketa-ekin amaitzeko.

Josu Tornay | Assemblée Nacional Catalana-ko kidea

"Kontsulta eginda ere negoziaketa egon beharko da Espainiarekin"

J.I. | ARRASATE

1714-2014: 300 urte ostean, Katalunia bidegurutzean izenburupean mahai-inguruak izango da eguaztanean, hilak 12, Bergarako Irizar Jauregian (19:00), herriko Gure Esku Dago lantaldeak antolatuta. Debagoieneko hiru kataluniar izango dira hizlari: Jordi Ferrerons, Miquel Beneit eta Josu Tornay.

Pentsa liteke Katalunian egun bizi dena azkenaldiko gertaerengatik edo egoeragatik dela, baina -mahai-inguruaren izenburua aintzat hartuta- bada oinarri historiko bat ere, ala?

1714ko irailaren 11n tropa espainolek Bartzelona azkenean menderatu eta suntsitu zuten, gerra luze eta mingarri baten ostean. Felipe V.ak Aragoiko Koroetako erakunde guztiak baliogabetu zituen, eta ordutik aurrera Kataluniari buruzko erabakiak Espainian hartu ohi dira. Kolpe handia izan zen hori katalanentzat, eta gaur egun irailak 11 gogoratu egiten da oraindik. Gure egun nazionala da. Gaur egun gertatzen dena prozesu baten emaitza da, eta 300 urte hauetan saiakera asko egon dira Kataluniako arazoa konpontzeko, Katalunia barruan ere bai. Bereziki, azken 150 urteetan kataluniarrak saiatu dira Espainian pisua irabazten edo autonomia gehiago lortzen, akordioetara heltzen... Baina arazoa hor mantendu da: espoliazio ekonomikoa, mespretxu ofiziala, agresio kulturala... Eta hori diktadura, errepublika, monarkia edo demokrazia edukita.

Kontsulta egitea eta bertan herritarrek esaten dutena errespetatua izatea ez den beste aukerarik kontenplatu du ANCK?

Bai, noski; oso argi daukagu kontsulta eginda ere negoziaketa egon beharko dela Espainiarekin. Orain Masek martxan



Josu Tornay. | JOSETXO ARANTZABAL

ipini duena ez da kontsulta loteslea. Helburua da jakitea kataluniarrek independentzia nahi duten ala ez. Puntu hori argituta Espainiarekin hitz egin beharko litzateke, pausoak aurrera emateko, iritzi hori kontuan hartuta. Espainiak ez badu hitz egin nahi eta herriak Generalitateari argi uzten badio prozesu honetan aurrera egin nahi duela, alternatiba bezala aldebakarreko independentzia adierazpena egitea geratuko litzateke.

Zeintzuk dira gakoak erabakitze-ko eskubidea praktikara eraman nahia hain hedatua izan dadin Katalunian, eta ez bakarrik historikoki independentistak izan diren sektoreetan? Ze lan egin du ANCK hori horrela izan dadin?

ANCK borondateak bateratu ditu. Gakoak Kataluniako gizardeen zeuden lehenagotik. Katalunian bizi den askotariko jendeak -nazionalista ala ez, katalan hiztuna ala ez, edo Katalunian jaioa ala ez- argi du, gauzak gaur egun dauden moduan, ez daukagula etorkizunik gizarte gisa.

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Cegasa enpresaren lantegiek normal dihardute lanean

Cegasa enpresako iturri ofizialek baieztatu dute lantegiek ohiko jarduerarekin jarraitzen dutela eta ohiko moduan dardela hornituta. Horrenbestez, ezeztatu egin dituzte hornikuntza arazoak zeuden zurrumuruak.

Finantzaketa arazoak direla-eta, Cegasak konkurtso legearen aurrekora joko zuela jakinarazi zuen urtarril bukaeran. Aurre-konkurtsoa "aktibitatea berriz egituratzeko" modua da. Azkenaldian, lankide edo sozio berriak bilatzen ibili da eta, enpresaren esanetan, "negoziazioak" zabalik daude.

Bi atxilotu Arrasateko taberna baten istiluak eragiteagatik

Bi gizon atxilotu zituzten Arrasateko Iluntz tabernan zapatuan, 02:00ak aldera istiluak eragiteagatik.

Herrizaingo Sailak esan duenez, 23 urteko gizonezko bat mozkortuta zegoen eta muleta batekin zerbitzariari oinean kolpea eman zion; ondorioz, Debagoieneko Ospitalera eroan behar izan zuten. Udaltzainek bezeroa atxilotu zuten, udaltzain baten aurka ere egin ondoren hark.

Alemaniko 34 urteko gizonezko bat ere atxilotu egin zuten, "istiluan parte hartu" eta bere burua identifikatzeari uko egin ziolako.

Urtebetean %11 lan-kooperatiba gehiago zeuden Euskadin

- ▶ EAEn eta Espainian, %32 gehiago izan ziren
- ▶ Enpleguaren kalitatea nabarmendu dute arduradunek

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Lan-kooperatibak ugartu egin ziren iaz Euskal Herrian eta kanpoan. Hala, 2013ko uztailetik irailera bitartean, 2012ko epe berean baino %32 lan-kooperatiba gehiago zeuden, Espainiako Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministerioaren datuen arabera. Lan Elkartuko Kooperatiben Espainiako Konfederazioaren (COCETA) arabera, "enpresa-eredu hori hazten dagoela eta egoera ekonomikoari eusten dabilela" erakusten du horrek.

Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban, %11 hazi ziren lan-kooperatibak uztailetik irailera, 2012ko epe beraren aldean. Katalunian eta Valentziako Erkidegoan maila berean ugartu ziren. Andaluzian, %60 lan-kooperatiba gehiago erregistratu ziren, eta Murtzian, %21 gehiago.

Lanpostu gehiago sortu

COCETA eta CEPES (Ekonomia Sozialaren Espainiako Enpresa-Konfederazioa) erakundeetako presidente Juan Antonio Pedreñok,

datu horiek baloratzerakoan, hauxe esan du: "Lan-kooperatibak ez daude zailtasunetatik salbu eta egoera orokorra berdin sufritzen dute, baina lanpostu kopuruari eutsi ez ezik, haiek ugartzea lortu dute". Gaineratu duenez, "2007a ezkerro, enplegu mugagabea 10 puntu baino gehiago hazi da, eta behin-behineko enplegua, zortzi puntu txikitu". Bere iritziz, lan-kooperatibek "ez dute nolanhiko enplegua ematen, kalitatezko enplegua baizik, kooperatibismoaren irizpide nagusi-

siekin: demokrazia, erantzukizun soziala, elkartasuna, konpromisoa eta malgutasuna, eta horren froga da gero eta kooperatiba gehiagok irauten dutela bizirik".

Euskadiko eta kanpoko lan-kooperatibetako langileen %80 baino gehiagok lanpostu finkoa dute, kooperatibako bazkideak direlako. Emakumeak dira langileen erdiak baino gehiago, eta ardurazko karguen %40 baino gehiago, "beste enpresa eredu batzuetan baino askoz gehiago", COCETAk esan duenez.

BBVak, laguntza programa

Ekonomia sozialeko enpresei zuzendutako Momentum Project laguntza programa deitu dute BBVak eta ESADEk. Lagarren urtez deitzen dute laguntza hori. CEPESek eta BBVak duten hitzarmenaren bitartez, ekonomia sozialeko enpresei lan-kooperatibak, tartean ematen zaien aukera da.

BBVak eta ESADEk sortu dute Momentum Project, eta helburua da "gizarte-arazoren bat antzematen duten eta enpresa-iniziatiba baten bidez harendako konponbideren bat bilatu nahi duten pertsonen" laguntzea. Dei-

tzaileen esanetan, sortutako lan-kooperatiba askok bete dezakete baldintza hori.

Programan parte hartzeko eskakizunak hauek dira: giza-inpaktu nabarmena sortu behar du enpresak, diru aldetik bideragarria, eta berritzailea izan behar du; 2 urteko jardura izan behar du, gutxienez, eta bi langile lantaldean, gutxienez; halaber, urtero 100.000 euro edo gorako diru-sarrera izan behar du, eta diru-sarreraren erdia baino gehiago ezin izango du lortu dohaintza edo dirulaguntza bitartez; azkenik, Espainian izan beharko dira enpresa horren jardura eta inpaktua. Deialdia zabalik dago otsailaren 17ra arte.

Antolatzaileek aukeratzeko dituzten enpresek formazio-programa oso bat jaso ahal izango dute, kontu estrategikoetarako aholkularitza eta akonpainamenduarekin, finantzazioarekin eta jarraipenarekin.

Interesa duten enpresek programaren webgunean dute informazio gehiago: www.momentum-project.org; edo BBVaren Gizarte Proiektu Sailarekin kontaktatuta: laura.guindeo@bbva.com.



Atlasa.net webgunean ikus daitezkeen mapa batzuk. | GAINDEGIA

Ekonomia eta gizarte datuak bistaratzeko, 'Atlasa.net'

Datuak interpretatzen laguntzeko lanabesa izan nahi du Gaindegiak sortu duenak

L.K. | ARRASATE

Euskal Herriaren errealitate ekonomiko eta soziala hobeto ezagutarazteko eta, gainera, bistarako modu samur eta erakargarrian, sortu du Gaindegiak Atlasa.net Interneteko tresna.

Euskal Herriko datu sozio-ekonomikoak klik batean bistaratu, kontsultatu eta deskargatzeko ataria da. Lanabes hori 2008ko Gabonetan sortu zuen Gaindegiak, eta aurten berritzeari ekin dio, teknologia gaurkotu eta baliabide errazagoa eta ikusgarriagoa

sortu nahian. Hala, lehenengo unetik, erabiltzaileak datu bat hautatu eta Euskal Herriko mapan ikusiko du, bai eta grafiko eta datu taula batean ere. Nabigatzeko erraza da eta erabiltzaile maila guztiendako egokituta dago. "Bereziki interesgarria da, hori bai, irakasle, ikasle, aditu eta ikerlari eta baita kazetariendako ere", esaten dute Gaindegiako ordezkariek.

Ataria lau modulutan banatuta dago: demografia, ekonomia, gizarte eta ingurua. Horietako

bakoitzean, erabiltzaileak adierazle asko kontsulta ditzake, hala nola biztanleria, langabezia tasak, I+D gastua, industria ekimena, emakumeen jardura tasa edo autobide dentsitatea. Gainera, zein lurralde eremuren gaineko informazioa eskuratu nahi den ere erabaki daiteke: udalerrri mailakoa, eskualdekoa, herrialde mailakoa edo Euskal Herria Europarekin alderatuta edo Europaren testuinguruan ikusi.

Erakunde ofizialeatik

Informazioa grafikoan bitartez ere ematen da eta, urte zehatz bateko datuez gain, urte askotako bilakaera ikusteko aukera dago. Datuen jatorria estatistika institutu ofizialak dira eta, hainbat kasutan, Gaindegiak metodologia bateratu baten bitartez zenbait datu kalkulatu ditu.

Erresuma Batuan bulego komertziala ireki du Natrak

L.K. | OÑATI

Natra enpresak bulego komertziala ireki du Londresen, Hammersmith distrituan, Erresuma Batuan presentzia zuzena izateko. Kontsumo-produktu dibisioaren bulegoa da, eta dibisio horrek irekitzen duen bosgarren ordezkaritza komertzial iraunkorra da. Espainian, Alemanian, Belgikan eta Frantziaren ditu Europako beste bulegoak; gainera, iaz inauguratu zituen Hong Kong-eko eta Kanadako bulego iraunkorrak.

Erresuma Batuan presentzia handiagoa izan nahi du Mikel Beitia oñatiarrak zuzentzen duen Natra enpresa valentziarrak. Izan ere, 2012an, Natraren kontsumo dibisioaren salmenten %5 hantxe egin zituen, eta bere zazpigarren merkatu garrantzitsuena izan zen, Frantziaren (%17), Alemaniaren (%16), Belgikaren (%13), Herbehereen (%10), Ameriketako Estatu Batuen (%8) eta Espainiaren (%8) ondoren.

Kutxabankek, dimititu

Bestalde, urtarrean aurkeztu zuen Kutxabankek Natrako administrazio batzordeko kide gisa dimisioa. Erakundeak "epe luzean aktibo ez estrategiko" jo zuen Natran parte-hartzea, eta bertan "ordenatutako desinbertsioa" egiteko erabakia azaldu zuen.

%10 gehiago saltzea espero du Fagor Automationek

L.K. | ARRASATE

Iazko azken lau hilabeteetan, Fagor Automationek eskaera gehiago jaso zituen. Joera horrek bultzatuta, negozio-plan bat ezarri du kooperatibak, eta %10 gehiago saltzea espero du 2014an.

Fagor Automationen esanetan, 2013ko ekitaldia Txinako dinamismo apalagoak markatu zuen. Brasilen ere murriztu egin zen jardura.

Produktuari dagokionez, Fagor Automationen zuzendaritza "saiatuko da gero eta erantzun sofistikatuagoa ematen makina-erremintaren sektoreari". Katalogoa urtarrean bertan indartzekoan zen kooperatiba, Fagor CNC 8060 kontrolaren industrializazioarekin.

Maileguak lortzeko erraztasunak ETE eta autonomoendako

Enpresa txiki eta ertainek (ETE), banakako enpresaburuek eta autonomoek maileguak lortzen dituzten laguntzeko programa onartu du Jaurlaritzak, 600 milioiko aurrekontuarekin. ETEek 50.000 eta 650.000 euro arteko maileguak eskura ditzakete, eta autonomoek eta banakako enpresaburuek, 10.000 eta 100.000 euro artekoak.

Josu Ibargutxi | Goldatuko kidea

"NBEk argi hitz egiteak laguntzen du konpondu gabeko zerbait gogorra badela gizarteratzen"

- ▶ Garrantzia ematen die De Greiff kontalariak frankismoari eta Estatuari buruz esandakoei
- ▶ Argentinako kereila bide onetik doala dio, nahiz eta aitortu oraindik asko dagoela egiteko

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Nazio Batuen Erakundeko kontalari berezi Pablo de Greiffek berriki aurkeztu ditu Espainiara egindako bisitatik ateratako ondorioak. Besteak beste, harridura agertu du Espainiako erakundeek frankismoaren biktimen eskubideen alde gehiago egin ez izanagatik, eta 1977ko Amnistia Legea bertan behera uzteko eskatu du. Horretaz, eta frankismoaren krimenak ikertu eta zigortzeko Argentinan hasitako bidez ere badihardu Goldatu elkarteko kide eibartarrak –Argentinako Kereilarako Euskal Plataformaren bozeramailea da–, baita erreparazio zain dauden Debagoieneko biktimei buruz ere.

Ze hausnarketa eragiten dizute Pablo de Greiffek Espainiara egindako bisitak eta hark esandakoak?

Pablo de Greiff kontalari berezia Estatuan ibili izanak esan nahi du egia, justizia, erreparazioa, eta berriz ez errepikatzea bilatzen dituen mugimenduari garrantzia ematen diotela. Eta uste dut garrantzia eman diotela, Estatuan asko hazi delako memoria helburu duen mugimendua. Eta hori da gauza onena, mugimendu hori asko hedatu dela Euskal Herrian eta Estatuan. Bi urteotan egiten ari gara azken 35 urteetan egin ez diren gauzak. Hor daude hobiak eta baita ere kereila eta horrek mugitu duen animoa. Nazio Batuek argi dute hemen ze hutsune dauden, batez ere Estatuaren eta Gobernuaren aldetik.

De Greiffek dio distantzia handia dagoela Estatuaren eta biktimen posizioen artean. Zergatik gertatzen da hau?

Distantzia dago, gainera, biktima batzuekin; beste batzuekin ez. Nabaria da estatu honek duen ahuldadea, frankismotik datorrelako, trantsizio erregimena delako, Estatuaren aparatuz guztiak eta egitura guztiak berdinduz jarraitu zuelako frankismoa formalki desagertu zenean. Eta horregatik dauka daukan zigorgabetasuna frankismoak oraindik estatu honetan. Eta, horregatik, Estatuak biktima batzuk errekonozitzearekin batera, beste biktima pila bat distantziatu ditu, bai Gerrakoak eta bai diktadura garaiko ehunka, milaka biktimak. Beraien biktimek sekula ez dute distantzia hori jasango. Hemen arazo larri hori dugu, ikaragarria, Alemanian eta beste leku batzuetan gertatu ez zena. Batzuk *Gerra Zibil*-eko biktimak dira, eta besteak terrorismoarenak. Benetako



Josu Ibargutxi. | JOSETXO ARANTZABAL

terrorismoa kolpe militarra bera izan zen. Ez zen Gerra Zibilik izan, kolpe militar gogor bat izan zen 1936an, eta kolpe horren kontra herri guztia erresistentea izan zen, ez besterik. Gerra beraiek egin zuten; eta erresistentzia egon zelako, hiru urteko gerratea izan zen gero. Beraz, Gerrako eta diktadura guztiko biktimak dira terrorismoaren biktimak. ETaren ekintza militarra, edo ETaren terrorismoa, salagarria izada ere –beraiek ere onartu dute eragindako mina–, hori erantzun bat izan da 1936 osteko terrorismoaren kontrakoa.

Zertarako balio dute NBEren gomendioak?

Ez dute betearazteko ahalmenik. Hala ere, guretzat inportantea da hau dena plazaratzea eta NBEk argi hitz egitea, ze gizarte mugimenduo indarra ematen digu, eta laguntzen digu gizarteratzen hemen badagoela konpondu gabeko zerbait frankismoarekin, zerbait gogorra, frankismoaren zigorgabetasuna ez delako oraindik ile bat ere ukitu. Orain, euskal plataforman argi daukagu: hemen, mobilizazio sozialak balio du asko, biktima guztiak agerian gera daitezten, milaka biktimek euren duintasuna aldarrikatu eta berreskuratu dezaten, eta frankismoaren ondorio guztiak

ondo plazaratzeko.

Zertan da frankismoaren kontrako Argentinako kereila?

Ikusi dugu posible dela judizialki kereila bat erabiltzea frankismoaren zigorgabetasuna salatzeke eta hori plazaratzeko tresna bezala, eta hemengo biktima guztiak animatzeko gauzak egitera. Gure plataforma, zentzu honetan, laguntzen ari zaie euren senideen kasuekin kereila aurkeztu nahi dutenei. Biktima guztiak animatzen ditugu; beraiek dira hemen garbi agertu behar dutenak euren familietan, euren anaiekin, gurasoekin edo aitonekin gertatutakoa: tortura, erbestea, ondasunak atzematea... Frankistak ondasun pila batekin geratu ziren, eta

"Ez da sekula berandu egia ezagutzeko eta justizia egin dadin"

"Estatu hau frankismotik dator, trantsizio erregimena da"

hortik atera zen aberats klase berri bat. Jende pila bat horrela aberastu zen. Eta ondasun horiek galdu zituztenetako askok pentsatzen du zaila dela hori orain erreklamatzeko, baina hori dena ere salatu beharra dago, eta asko ikertu beharra dago. Ez da sekula berandu, gogorik baldin bada go egia ezagutzeko eta justizia egin dadin. Eta egin beharra dago. Ze, azken finean, kontakizuna beraien esku uzten badugu hemendik urte batzuetara geratuko dena izango da diktadurarik ez zela egon hemen. Hori ari da egiten Historiaren Espainiako Akademia: hasi dira esaten Franko autoritario xamarra zela, baina ez diktadorea. Eta kontakizuna beraiek

"Plataforman argi daukagu: hemen, mobilizazio sozialak balio du asko"

"Frankismoaren zigorgabetasunari ez zaio oraindik ile bat ere ukitu"

egiten badute, hurrengo belaunaldiek ez dute jakingo hemen zer gertatu zen.

Trabak ere baditu Argentinako kereilak?

Trabak, ikaragarriak. Bide onetik doala esango nuke, baina lan handia daukagu. Orain arte lau torturatzailereren inputazioak lortu ditugu. Bi hilda daudela esan dute; bat, ziur asko, ez dago hilda, baina bai oso ondo ezkutatu eta nortasuna aldatuta. Baina *Billy el Niño* eta Muñecasaren inputazioak ere lortu ditugu, eta estradizio eskaria egin dago; bada-kigu Espainiako Gobernuak nola jokatu duen. Fiskalak dio ez dagoela estraditaterik, eta agian Espainian epaituak izango direla. Espainian ez dira epaituak izango, Amnistia Lege negargarri hori aplikatuko dietelako. Baina beste inputatu zerrenda bat ere ari gara prestatzen; hiru ministro leudeke tartean: ikusiko dugu zer gertatzen den Martin Villarekin, Utrera Molinarekin eta Fernando Suarezekin; agian aurretin inputatuak izango da horietakoren bat. Horretan ari gara. Baina presio politikoaren eta oztopen gainetik jarraitu egin behar dugu; eta azken bidaian epaileak berak esan zigun, ikusiko dugu betetzen duen, ez diela oztopen kasurik egingo.

Ze ondorio utzi beharko lituzke Argentinako amaierara arte iristeak?

Bilatzen ari gara da Espainiako epaileak animatzea, behingoz, oztopen guztien gainetik, bertan epaitu ditzaten bertako legeekin. Horretarako Amnistiaren Legea ezabatu behar da. Amnistiaren Legearekin gu, preso politikook, ere kartzelatik atera gintuzten; gurea konpentsazio txiki bat izan zen 40 urteko diktadurako triskantza guztiak barkatzearen truke, eta alderdi politikoko batzuek –PSOE, PCE eta baita Arzallusek berak ere– esan zezaten dena ahaztu behar zela. Baina nola ahaztu! Orain, lege hori bertan behera uzteko alderdi politikoak ere tinko mugitu behar dira. Gizarte dena mugitu behar da. **Debagoiengan ere jende asko dago erreparazio zain.**

Bai. Arrasaten baditugu dozena bat kereila eginda, 1936tik 1938ra fusilatutako herritarrenak. Elgetako salaketak ere badaude, Eskoriatzakoak... Debagoiena asko mugitzen ari da; besteak beste, plataformako talde garrantzitsu bat daukagulako, Intxorta 1937 Kultur Elkarte. Haiei esker gauzak nahikoa ari dira mugitzen.

ZABALIK



ESTEBAN UMEREZ
goiena.net/komunitatea/

Femen

Guztion ahotan dabilta azken hilabeteotan Femen talde feministaren ekintzak. Hau idazten dudalarik azkena, Rouco Vareleri egindakoa. Kotxeko irratian entzun dut honi buruzko eztabaida, gizon baten eta emakume baten artekoa, biak aurrerakoiak.

Gizasemea, ekintzon alde, egun ikusgarritasuna eta komunikabideetan oihartzuna lortzeko modu aproposa delako. Andrea, berriz, kontra, emakumeen gorputza erabilia izateko beste modu bat dela uste baitu.

Nik beste modu batean ulertzen dut Femenen soin biluzien eta manera militarren mezua, mende luzez gure indarraz baliatu izan garen gizonoi zuzendua: ikus nire gorputza, ikus hainbestetan irrikatu duzuna; nirea da, ez zurea; ezin duzu ukitu, ezin duzu zureganatu, ez dizut ezta desiratzen utziko ere; nirea da, nik berreskuratu dut, eta zuk, ni baino gehiago zarela uste duzun horrek, ez duzu sekula zuretzat izango. Beraz, Femenen alde nago, emakumeen buru- eta gorputz-jabetasuna aldarrikatzen duelako eta, hein handi batean ere, matxismoa ernatzen duelako.

Baina feminismoa ez da Femen bakarrik, gaitz erdi. Feminismoak beste bide eta manera asko dauzka, eta ezin dugu Femenek beste guztiak estaltzen utzi. Madrilen eta Parisen, otsailaren lehenean, Askatasunaren Trenaren lelopean, Espainiako Abortu Lege berriaren aurka egindako manifestazioek feminismoaren indarra, lekua eta garrantziaren irudia eman digute. Asturiasko tertulia feminista txiki batetik sortutako ekimena milaka pertsona bildu dituen uholde bihurtu da. Finean, ondoriozta dezagun beharrezkoak direla Femen eta bestelako feminismo guztiak, oraingo Abortu Legearen emergentzia honi aurre egiteko, baita betiko gizon-emakumeen arteko berdintasuna erdiesteko ere.

Helburua da funtsa, metodoak baino gehiago. Lastima litzateke metodoen gaineko eztabaidan denbora eta helburua galtzea.

"Emakumeen buru eta gorputz jabetasuna aldarrikatzen du"

USTEAK USTE

AMAIA TXINTXURRETA | atxintxurreta@goiena.com

Gaztetxoak koplatan eskean

Ozen abestu zuten Oñatiko hainbat gaztetxok Santa Ageda bezperan herriko alkate eta zinegotzien aurrean. Oraindik bozkatzeko aukera ez izan arren, euren iritzia badutela esan zieten koplatan eta euren garrantziak diren hainbat proiekturen berri eman zieten kantuan. Adibidez, eskatu zuten frontoian eta Olaiturrin argi pixka bat gehiago jartzeko, kanpoko igerilekuak egiteko eta zinean palomita edota Usakon txiringittoa jartzeko. Ez neukan kontu honen berri, baina dagoeneko egiten duten laugarren urtea da. Ekimen polita oñatiar gazteek egindakoa. Eskatzea libre da eta orain ikusi egin behar da horietakoren bat gauzatzea posible den.

KALE INKESTA

Badago olatuen kontrako neurririk?



MAITE ANDRES
ARRASATE

"Itxasoaren indarra oso handia da eta haren kontra ez dago egiteko gauza handirik. Neurriak kalteak konpontze aldera hartu behar dira".



BIXENTA BENGOA
ARRASATE

"Itxasoaren kontra zein neurri har daiteke? Nik ez dakit, behintzat. Itsasoaren eta suaren kontra ezin daiteke ezer egin; beldurgarriak dira".



JOSE RODRIGUEZ
ARRASATE

"Ikusten denez, ez dira nahiko neurri hartu. Hau ez da ohikoa, baina pixka bat etorri zaigu eta ipurdi bistan harrapatu gaitu denoi".



ARANTXA ARANZABAL
ARRASATE

"Neurriak gerora bakarrik har daitezke. Laguntzak ezinbestekoak dira honelako kasuetan, kalteak ahalik eta azkarren konpontzeko".

HANDIK ETA HEMENDIK

Barne Produktu Gordinarekiko I+G gasturik handiena, Debabarrenan

Luis Aranberri 'Amatiño'
eibar.org/blogak/amatiño/

Euskal Autonomia Erkidego osoan Debabarrena (%4,88) izan zen, tokian tokiko Barne Produktu Gordinaren arabera, I+G arloan gehien inbertitu zuen eskualdea, 2012 urtean.

Ondotik, Debagoiena (%4,60), Goierria (%3,20) eta Donostialdea (%2,67), lauak gipuzkoarrak.

Lurraldekoa, Gipuzkoan egindako ezarpena %2,71 izan zen, Bizkaian %1,90 eta Araban %1,66.

Oro har, EAEan, %2,71.

Europar Batasunean (EU-28), berriz, %2,06 eta, Espainian, %1,30.

Eustaten datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan 1.373 milioi euroren inbertsioa egin zen I+G arloan, 2012an, eta, gastu osoaren %75,40, lau eskualdetan gauzatu zen: hiru hiriburuen inguruko

eskualdeetan (Bilbo Handian, Donostialdean eta Arabako Lautadan) eta Debagoienan.

Erabateko kopuruetan, lehen zazpi eskualdeak honako hauek izan ziren: Bilbo Handia (514 miloi euro), Donostialdea (260), Arabako Lautada (154), Debagoiena (106), Debabarrena (75), Goierria (69) eta Durangaldea (57).

BPGrekiko I+D gastua %2,06 izan zen Europar Batasunean (EB-28).

Eta, gurean, ehuneko horren gainetik inbertitu zuten, urte berean, Debabarrenak (%4,88), Debagoienak (%4,60), Goierriak (%3,20), Gipuzkoak (%2,71), Donostialdeak (%2,67) eta, batzate beste, Euskal Autonomia Erkidego (%2,12) osoak.

Sektoreka, enpresan gehien inbertitu zuen lurraldea Gipuzkoa (%83,6) izan zen.

Bizkaia nagusi, goi mailako irakaskuntzan (%22,8) eta Araba, berriz, aurrena herri-administrazioan (%8,8).

Arabako Mendialdean izan ezik, ingeniariaren eta teknologiaren gaineko zientzia-diziplinak nagusi dira urtero eskualde guztietan.

Gipuzkoan, %78,8; Araban, %69,8 eta, Bizkaian, %65,4. Arabako Mendialdean mediku eta farmaziazientzietan egin ohi da I+G gasturik handiena, %73,6.

ZUZENKETA

2013ko urriaren 15ean, GOIENA papereko asteleheneko edizioan, elkarrizketa bat argitaratu genuen, Aitor Laskuraini egindakoa.

Bertan aipatzen zen Aitor Laskurain fisioterapeuta dela. Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak, ordea, hauxe eman dio aditzera Goienari: "Aitor Laskurain jauna ez da agertzen Fisioterapiaren tituludun bezala, aurreko egunetan hemen argitaratutako elkarrizketan honela ulertu ahal zen moduan". Goienak, hortaz, nahi gabeko akats honek eragotzi dien profesionalei espresuki barkamena eskatu nahi die, baita Aitor Laskuraini berari ere, hark ez baitzuen inoiz esan fisioterapeuta denik, eta Goienak bere jardueraren barnean daukan informazioaren zorrotasun eta zehaztasunaren konpromisoa azpimarratzeko aukera aprobeztatu nahi du zuzenketa hau.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Aranzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Urbane Madera
Sailkatu arduradunak Kabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenina), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Leire Kortabarria
Maketaria Inaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Zoritz Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Argutxane Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa


EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Cordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Eusko Jaurlaritza
diruz lagundutako
aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Zatoz eta probatu!

Herritarren osasuna zaintzera bideratutako punta-puntako kiroldegi berritzailea


- Tarifa murriztua merke merke
- Bailarako ekintzarik merkeenak
- Bizkarreko mina kentzeko David Spine Concept aretoa
- Fitness gela ikusgarria
- Areta bizikleta birtuala
- Kirol taldeak (*nordic walking, running,...*)
- M - Power IbarOsasun *online* esperientzia
- Eta gehiago!




2013ko datuak

- 2.144 abonatu 2013an, biztanlegoaren %31a
- 389 pertsona berri abonatu dira; hau da, %22ko hazkuntza
- Abonatuen %25ek zuzendutako jardueretan hartu dute parte
- 25 kirol jarduera; 37 talde jardueretan parte hartzen
- Abonatuen arteko gogobetetasun inkesten balorazio orokorra 8,8 izan da.
- Hoberen baloratutako gaia, kiroldegiko langileen jarrera: 9

Abonatuak
2.144 pertsona



Eskerrik asko zuen konfidantzagatik!



Ibarra kiroldegia | Markole auzoa z/g | 20550 Aretxabaleta, Gipuzkoa |

Tel.: 943 039 842 | info@ibarrakiroldegia.com

www.ibarrakiroldegia.com

ibarra | ...merezidau!
KIROLDEGIA

HERRIAK



Olabarrieta auzora sartzeko bide nagusia. | O.E.

OÑATI

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Herriko auzoetako bideak zeintzuk diren publikoak eta zeintzuk pribatuak zehaztu gura du Udalak, eta horren inbentarioa egin du. Egindako lan hori jendaurrean egongo da orain, hilabetez, aldatetaren bat egin behar dela uste duen herritarrek aldaketa horixe proposatu dezan.

Arrazoituta

"Oñatiko auzoetako bideak jaso ditugu inbentario honetan, asfaltatuta dauden auzoetako bideak, hain zuzen ere", zehaztu du Aitor Gerenabarrenak, auzoak eta landa garapenerako udal teknikariak. "Udalak jasota ditu, esaterako, publikoak diren eraikinak, eta orain, auzoetako bide asfaltatu publikoak jaso gura ditu. Orain arte ez dago inon zehaztuta udal bideen izaera zein den, eta horixe finkatu gura da inbentario honekin. Auzo bideen jabetza argitu gura da", gaineratu du Gerenabarrenak."


Mendexako, Bizkaia, Sendo enpresak egin du inbentarioa. "Katastroak, kartografiak eta bestelako euskarriak erabili ditugu auzo bideen izaera definitzeko. Horrez gain, baina, Oñatiko auzo guztietan ibili gara eta bertako auzotarrek ere egin dugu berba. Urdin Elortza oñatiarraren laguntza izan dugu lan horretan, berak egin dizkigu gidari lanak",

Auzo bideen jabetza zehaztu guran

- ▶ Asfaltatutako auzo bideen inbentarioa egin du Udalak
- ▶ Aste honetan zabalduko dute lan horren erakusketa, Santa Anan

Erakusketa Santa Anan egongo da

Aste honetan zabalduko dute inbentarioaren erakusketa Santa Ana aretoan. Egongo diren elementuen artean, mapak, 1954ko eta 2013ko aire argazkiak eta fitxak egongo dira. 140 fitxa, zehazki. Fitxak auzo bidearen deskribapena jasoko dute eta publikoa dela esateko aurkitutako arrazoiak: antzinako kartografia eta testuak, jasotako testigantzak eta frogatutako erabilera publikoa. Alegazioak jasotzeko kutxa ere egongo da.



Oñatiko lurren aireko argazkia, 2013koa. | OÑATIKO UDALA

dio Sendo enpresako Guillermo Ruiz de Erentxunek. "Zehaztu ditugun bideak, baina, auzoko bide nagusiak dira. Bigarren mailako bideak ez dira inbentario honetan sartzen, hau da, galzadak, gurdi bideak edo errege bideak, esaterako, kanpoan gelditu dira", argitu du Ruiz de Erentxunek.

Auzo alkateak

Auzo alkateen foroan landu dute bideen inbentario hau eta auzo alkate batzuk, dagoeneko, egin dituzte euren ekarpenak. Orain, jendaurrean jarriko da, edozein herritarrek kontrako arrazoiaren bat baldin badu, arrazoi hori argudiatu dezan.

Erakusketan ikusgai egongo den mapan bi koloretan bereiztuta egongo dira auzo bideak: inbentarioan jaso direnak eta jaso ez direnak. Hilabetez egongo da zabalik erakusketa.

DATUA

70

KILOMETRO

Herriko 16 auzoetako bide nagusien inbentarioa da, 70 kilometro pasa guztira.

Euskalduna

Hileta Zerbitzuak



BEILATOKIA • ETENGABEKO ZERBITZUA • LORE KOROAK
ESKELAK • TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA



Amilaga 39, Bergara • Tel./Faxa: 943 76 12 99 • e-posta: euskalduna@harrespil.net



Eskoriatzako gaztettoak, plazan salgai ipinitako bigarren eskuko mozorroekin jolasten. | IMANOL SORIANO

ESKORIATZA

Inauteriak badatozela-eta, giroa berotzen hasiak dira eskoriatzarrak

Hezkuntza Foroaren ekimenez, hainbat ekintza egin zituzten; tartean, bigarren eskuko mozorroen azoka

MIREN ARREGI | ESKORIATZA

Martxoa hasieran ospatuko ditugu aurten Inauteriak, egutegi liturgikoari jarraiki. Dagoeneko, baina, eskoriatzarrak hasiak dira Aratuste giroan murgiltzen, egu-

bakoitzean, bigarren eskuko mozorroen azoka egin baitzuten. "Hezkuntza Foroaren ekimen bat da; herrian askotariko ekintzak egiten ditugu, eta kultur eta ondare transmisioarekin dago lotuta

azoka", dio Gazteria Teknikari Maider Etxanizek. Izan ere, mozorro azokarekin batera, umeei aurpegia margotzen eman zuten arratsaldea.

koek umeei aurpegia margotzen eman zuten arratsaldea.

Mozorro, jaki eta dantza

Ekimena antolatzen duten bigarren urtea da eta arrakastatsua

izan zen, jende askok hartu zuen -eta parte antolatutakoetan. Herriari Inauteri usaina emateko ahaleginean, baina, Eskoriatzan galduta zegoen ohitura bat berreskuratzen ere ahalegindu ziren. Hain zuzen ere, duela urte batzuk beti dantzatzen zen Aratusteen bueltan Lantzeko Inauteria, baina bada urte batzuk egiten ez dutela. Bada, egubakoitzean, plazan elkartu ziren umeei Lantzeko Inauteria dantzatu zuten.

Azkar hasi dira Eskoriatzan aurten Aratustea. Espiritu horrekin jarraituta, seguru aurtengoak bikainak izango direla han.

OIER GARTZIA

ESKORIATZA



"Lauburua eta ikurrina margotzen ari zaizkit. Giro polita dago plazan eta etorri egin naiz. Dena den, ez naiz mozorrotzea gustatzen zaien horietakoa".

NAHIA MENDEZ

ESKORIATZA



"Salgai ipini dituzten mozorroak ikustera etorri naiz plazara. Begira ibili naiz eta asko gustatu zaizkit. Orain, agian, aurpegia margotuko dut".

AINZANE ORTIZ

ESKORIATZA



"Lagun artean etorri gara eta mozorro asko ikusi ditugu. Ezpatak, pistolak... Trajeekin-eta jolasten ibili gara, baina ez dut ezer erosiko".

NAGORE GARNATEO

ESKORIATZA



"Mozorroak-eta ikusi ditugu, baina nik dagoeneko badut Inauterietarako jantzia; brasildar mozorrotuko naiz, izebak egin diran jantziarekin".

NAHIA CUBERO

ESKORIATZA



"Ni bai animatuko naizela aurpegia margotzera! Hori bai, oraindik ez dut pentsatu zer egin gura dudana. Ilaran jarri eta zerbait pentsatuko dut".



ARRASATE

IMANOL SORIANO

Gesalibarren, Santa Ageda jaiak

Santa Ageda jaiak ospatu dituzte asteburuan Arrasateko Gesalibar auzoan. Egubakoitzean eman zieten hasiera bertso-afariarekin; Lizaso eta Mendiluze izan ziren bertan. Zapatuan, tortilla lehiaketa egin zuten Jentil-Ola elkartearen eta umeendako ere ez zen ekintzarik falta izan; Txatxilipurdiren eskutik, eskulanak eta jolasak egin zituzten.

BERGARA

San Blasetan meza, salda, dantza eta abar

Begarako San Blas auzoan ere jai giroan pasatu dute asteburua. Atzo, esaterako, auzotar mordo bat batu zen elkartearen, mezaren ostean txorizoa eta salda dastatzera, eta dantzak ikustera. Herri kirolak ere ez ziren falta izan.



JOSETXO ARANTZABAL

ESKORIATZA

Aurten ere Kinttada Egunak sekulako arrakasta izan du

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Eskoriatzan festa giroa nagusitu zen zapatuan Kinttaden Eguna-rekin. Aurten, inoiz baino kinttada gehiago batu dira eta, gutxi gorabehera, 18-40 urte bitartekoek hartu dute parte. Adin berekoak elkartzeko eta bazkariak gozatzeko egun aproposa izan zen, beraz, zapatua.

Jaia Eingeinke ekimenak sortu zuen, baina aurten, ahoz aho prestatu da, talde baten antolakuntza gabe. Herriko elkarte, jatetxe eta taberna guztiak bete dira eta batzuek lan dezente izan dute jateko tokia aurkitzeko.

Goizean poteoa, gero bazkaria eta egun osoko parranda izan ziren Eskoriatzan. Festaren amaie-

ran, aldiz, egun bikaina zertxobait zapuztu zen. Istiluak izan ziren eta, Herrizaingo Sailaren arabera, lagun batek botilakada bat jaso zuen, eta beste pertsona batzuk, kontusio batzuekin, Debagoienera Ospitalera eraman zituzten.

Gazteak ere gogotsu

1995ean jaio eta oraindik kinto izan ez direnak ere kalera irten ziren, giroan murgiltzeko. Beraiek ere bazkaria egin zuten, Santa Ageda neska-mutil izan aurretik prestatzen joateko.



Goizeko poteoan, parrandaren hasieran. | IMANOL SORIANO



Aurtengo Santa Ageda neska-mutilak, bazkaltzen. | IMANOL SORIANO



1995eko neska-mutilak, bazkaltzera joan aurreko talde argazkian. | IMANOL SORIANO

ALMACENES ARRASATE

MERCATUKO MARKARIK ONENAK. Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabeteetan interes barik.

<p>1000 b/min 6 Kg</p> <p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>3TS-863 GARBIGAILUA</p> <p>275 € </p>	<p>1200 b/min 6 Kg</p> <p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>3TS-865 GARBIGAILUA</p> <p>299 € </p>	<p>1000 b/min 7 Kg</p> <p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>ZWH-6102PS GARBIGAILUA</p> <p>299 € </p>	<p>1200 b/min 7 Kg</p> <p>A++ Saikapen energetikoa</p> <p>VTO-712D12 GARBIGAILUA</p> <p>330 € </p>	<p>1200 b/min 8 Kg</p> <p>A+++ Saikapen energetikoa</p> <p>DYN-8124 GARBIGAILUA</p> <p>375 € </p>
<p>1400 b/min 8 Kg</p> <p>A+++ Saikapen energetikoa</p> <p>L-73481FL GARBIGAILUA</p> <p>435 € </p>	<p>142 x 55 x 60</p> <p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>CFD-2460 HOZKAILUA</p> <p>299 € </p>	<p>187 x 60 x 60</p> <p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>ZRB-34310 HOZKAILUA</p> <p>425 € </p>	<p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>HOME V-3 ONTZI-GARBIGAILUA</p> <p>299 € </p>	<p>450 €</p> <p>A Saikapen energetikoa</p> <p>EH651FJ17E INDUKZIO PLAKA HB74AR521E LABEA</p> <p>440 €</p> <p></p>

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen batz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.

A+ >>> 70%
A >>> 45%
B >> 25%

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3an.

Eskaintza baliagarria akats tipografikorik ez dagoen neurrian.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13
Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK



Sei mintegi etorriko dira: "Oso eskaintza zabala", dio Udalak. Irudian, Oñatiko iazko Zuhaitz Feria. | GOIENA

Zapatuko azokan, zuhaitz eskaintza zabala aukeran

Udalak ohitura zaharra berreskuratu gura du, lehen sektorea indartzeko

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Udalaren apustuen artean dago lehen sektorea bultzatzea, eta ahalegin horren barruan kokatzen da zapatuko baserriarren azokarekin batera Zuhaitz Feria antolatu izana. Ohitura zaharra berreskuratu gura dute, izan ere, orain dela ez askora arte –"zazpi bat urte", Udalaren arabera– Zaldibarko pilotalekuan aukera egoten zen Euskal Herriko mintegietan hazitako landareak erosteko: "Neguan, martitzen eta eguenetan, mintegiak etortzen ziren eta han elkartzen ziren inguruko baserriarrek, hutsik egin gabe. Bizirik zegoen ohitura galdu da eta berreskuratzea gura dugu", adierazi du Ingurumen teknikari Pello Garaik.

Asmoa da gutxienez urtean behin Zuhaitz Feria antolatzea: "Neguko hilabeteetako baten, zuhaitzak landatzeko sasoi delako". Euskal Herriko sei mintegi etorriko dira, eta Garairen ara-

bera, "kalitatezko eskaintza zabala" egongo da. "Ehunka" landare egongo direla aurreratu du; izan ere, gonbidatu dituzten mintegiak, Gipuzkoa eta Bizkaikoak guztiak, ekoizpen propioa dute eta sektorean izen handikoak dira: "Lurrari lotuta daude, ez dira kanpoko mintegi handien banatzaileak".

Egutegi bat zehaztu guran

Arrasate zuhaitzen salmentarako plaza izatea gustatu litzaioke Udalari: "Egun Markina, Tolosa eta Elgoibar dira erreferente; Arrasate hiru horiei gehitzea gustatuko litzaiguke". Arrasate zuhaitzak erosteko plaza moduan egonkortu dadin, Udalak egutegi bat finkatu gura du: "Arrasateko baserriarrek bakarrik ezin dugu gauza handirik egin. Hala, zuhaitz azoken egutegi bat ezarri nahiko genuke eta urtero errepikatu". Ez dute datarik zehaztu baina asmoa da, esaterako, Arrasaten urtarrilean egitea, Bergaran

MINTEGIAK

Etxebarria mintegiak: Fruta arbolak. Gatika (Bizkaia).

Urkizu mintegiak: Fruta arbolak, koniferoak eta basoko landare autoktonoa. Anoeta (Gipuzkoa).

Lurberri mintegiak: Basoko fruitu txikiak. Zarautz (Gipuzkoa).

Artadi mintegiak: Basoko landare autoktonoa. Igorre (Bizkaia).

Areitio mintegiak: Fruta arbolak, koniferoak, basoko landare autoktonoak eta lorategietakoak. Zaldibar (Bizkaia).

Belar mintegiak: Fruta arbolak, koniferoak, basoko landare autoktonoak eta lorategietakoak.

otsailean egitea eta Oñatin martxoan egiten dena mantentzea.

Zapatuan, hilak 15, egingo da azoka berezia, Seber Altube plaza (09:00-14:00).

Gure Esku Dago taldeak bilera egingo du bihar

Lehen bileran 12 lagun batu ziren eta biharko deialdi berria egin dute: Kulturaten, 19:00etan

J.B. | ARRASATE

Erabakitze eskubidearen aldeko Gure Esku Dago dinamikaren Arrasateko taldearen lehen bileran 12 lagun elkartu ziren. Besteak beste, ekimenak jasotzen dituen printzipioen errepasoa egin zuten eta bertaratutakoek aukera izan zuten iradokizunak egiteko: "Elkar ezagutzeko eta abiapuntu bat markatzeko balio izan zuen lehen bilerak", adierazi dute.

Lehen zirriborroa prestatzen

Arrasaten egingo diren ekintzen gaineko zirriborroa prestatzen hasi ziren, ekainaren 8ko giza katea "mugarri" izango dela jakinda: "Hori da zehaztu dugun data bakarra", diote.

Printzipioz astero elkartuko dira; bigarren bilera bihar izango da Kulturaten (19:00). Herriarrei dei egin diete ekimenera batu daitezela, "ahalik eta ordezkari zabalena" izateko.

San Andresko alkatetzaren deia auzotarrei, festak antolatzeko jende gaztearen eta ideia berrien bila

San Andresko jaiak antolatzeko auzotarrengana jo du alkatetzak. Jon Barrionacal auzo alkateak dioenez, jai batzordean jende gutxi dago eta haize freskoa behar dute: "Jende gaztea erakarri gura dugu, ideia berriak". Barriocanalen arabera, lehen jendea bazegoen jai batzordean baina azken urteetan ez da belaunaldi aldaketarik eman: "Lehen jaiak antolatzen zituzten gazteak guraso dira orain". Hala, auzotarrak deitu dituzte otsailaren 14an auzo alkatetzan –Etxaluzen– egingo den bileran parte hartzera.

Abaroa erretiratu elkarteak Eskoziara joateko bidaia antolatu du ekainaren 3tik 8ra bitartean

Ekainaren 3tik 8ra Eskoziara joango dira Abaroa erretiratu elkarteak. Izen-ematea otsailaren 17tik 28ra egin beharko dute Abaroako bazkideek eta otsailaren 24tik 28ra bazkide ez direnek. Bidaia horretan, 45 edo 50 lagunendako lekua egongo da, baina gutxienez 35 pertsona lortu behar dituzte bidaiari aurrera egin dezan. Izena ematen dutenek Edinburgo, Ness aintzira, Whisky destilatze tipiko bat eta hainbat gaztelu historiko ikusteko aukera izango dute, besteak beste.

NIRE USTEZ

NEREA
MAKAZAGA



tarte zabalago zein laburragoak, beldurren eta beharren artekoak besterik gabe.

Ur ezta dago kostaldeko gure etxeetako paretak kolpatu ditu gertu-gertuan, gure begiek beldurtasunez begiratzen zuten bitartean. Eror zitekeena eta eraman zezakeena ezagutu gabe. Oroitzapenetan argazkiratu diren aspaldiko irudiak modu kateatuan olatu bakoitzak ekarriko balitu bezala, berehalakoan berriz itsasoaren barrenak irensteko. Ur ezta dago bakoitzak argiztatu dizkigunak behin betiko iluntasunera itzultzeko bizipenak bailiran.

Bestalde, itsasoaren osotasun edota izatea ezagutu ezin, ez gaitu hau entzun eta ulertu gura izatera oztopatzen; dena dela gertatzen ari dena hizketan ari zaigun gure egia delako.

Itsasoaren eztanda

Nork daki itsasoak azken egunotan azaldu duen haserrea ez ote den eztanda egin duen min primitiboa, barruko mugimenduen eta haserrearen isla. Eta nork daki haserrea kanpotik datorren edo haserreak barrutik eragin duen eztanda. Besteengan ikusten dugun haserrea ez ote den gure haserrea bera, besteengan hausnartzen ditugun horiek gure proiektioak izan ohi diren heinean.

Kanpokoak eta barrukoak bat badira ez dago mugarik. Eta mugatzat deskribatzen ditugunak akaso etenak besterik ez dira, eraldaketa berri baterako, erresistentzia berrien tirabirari aurre egiten dioten

"Eror zitekeena eta eraman zezakeena ezagutu gabe"



Justizia soziala aldarrikatzeko 'azken' elkarretaratzea

Azken hilabeteetako lehen eguenetan herritar talde bat Portaloian elkartu izan da justizia soziala aldarrikatzeko; otsailekoan dozena bat herritar egon ziren. Ekimena zenbait alderdi politiko, sindikatu eta eragile sozialek sortu zuten, "izaera zabaleko" herritarrek batu guran. Helburua, baina, ez da bete. Horregatik eta justizia sozialaren alde lan egiten duten eragileak badaudenez, aurrerantzean ez elkartzea erabaki dute.

Bertso-afaria eta disko festa, gaztetxokoetako otsaileko egitarauan

Eta apirilaren 22tik 25era bitartean Zumaira irteera egingo dute; izen-ematea zapatutik aurrera zabalik

Z.V.D.M. | ARRASATE

Otsaileko lehenengo asteburuan 90 gazte eskiatzera joan ziren gaztetxokoetatik. Aurreneko ekintza arrakastatsuen ostean, otsaileko ere prestatu dituzte hainbat ekimen.

Otsailaren 15ean bertso-afaria egingo dute Gaztegunean. Arrasateko eta Aretxabaletako bertso-eskolen artean antolatuko dute eta bertsolari ezagun baten bat-batekoekin gozatuko dute afaltzea animatzen direnek; Alaia Martin bertsolari izango da afaria doinuaz alaitzearen arduraduna.

Hilaren 22an, disko festa egingo da erdigunean, Oihan Vegarekin. Bergararrak musika ipiniko dio arratsaldeari, 18:30ean hasita.

Irteera Zumaira

Gaztetxokoetako lagunak, baina Aste Santuari begira -apirilaren 22etik 25era- Zumaiko Askizuko aterpetxera irteera antolatu dute. Aretxabaleta, Eskoriatza eta Arrasatekoak batera joango dira. Otsailaren 15etik martxoaren 30era eman ahal izango da izena; interesatuek 50 euro ordaindu beharko dute.



Eskiatzera joan ziren 90 gazte otsaila hasieran. | GAZTETXOKOA

Audience taldea izango da Koolturreko gonbidatua

Talde bizkaitarrak Arrasateko Gaztetxean joko du egunean, hilak 13, 22:00etatik aurrera

Z.V.D.M. | ARRASATE

Kooltur Ostegunak ekimenaren baitan, bizkarrean ibilbide luzea duen taldea gonbidatu dute eguen honetarako: Audience talde bizkaitarra. Ohi bezala, emanaldia Arrasateko Gaztetxean izango da, 22:00etan hasita.

Lehenengo maketa Arrasateko Shot! estudioan grabatu zutenetik euri asko egin du, eta beste hamar lan kaleratu dituzte. Azkena New Jersey grabatu

zuten eta 2013an kaleratu zuten *Big Affair* diskoa. Eta eguneko emanaldian kantu berriak joko dituzte bizkaitarrek, zaharragoekin batera.

Beste bi emanaldi

Otsaila amaitu arte beste bi eguen geratzen dira; Joseba B. Lenoir duo igoko da hilaren 20an gaztetxeko oholtzara. Otsailaren 27an, ostera, *Satisfaktion* antzez-lana ikusi ahal izango da.

Gaur eta eguztena bitartean eman daiteke izena Besaidek antolatutako mendi eta sagardotegi irteeran

Besaide Mendi Elkarteak Usurbil-Andatza-Belkoain-Adunarako mendi irteera antolatu du hilaren 16rako, domeka. Irteera ez da ibilaldiarekin amaituko, ordea, eguerdian Zabala sagardotegira joango baitira bazkaltzera. Besaidetik aditzera eman dutenez, 07:30ean irtena da autobusa Garibaiko geltokitik eta itzulera ordua 17:00etan edo 17:30ean izango dela aurreikusten dute. Irteeran parte hartu gura dutenek gaur, astelehena eta eguztena bitartean eman beharko dute izena Besaideren bulegoan, 19:30etik 20:30era bitartean.

Bellonen heriotzaren harira, adierazpen bateratua atera dute

Udaleko Bildu, Aralar eta EAJ taldeek adierazpenean, eta besteak beste, espetxe politikaren "salbuespen egoerarekin" amaitzea eskatzen dute

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Otsailaren 5ean Cadizen hil zen Arkaitz Bellon presoaren heriotzaren harira, Arrasateko Udaleko Bilduk, Aralarrek eta EAJk adierazpen bateratua atera zuten argitara egubakoitzean.

"Arkaitz Bellon Blanco elorriarra Cadizko espetxean, bere etxetik 1.100 kilometrotara hilda agertu da otsailaren 5ean. Bere zigorra osorik betetzeko hiru hilabete falta zitzaizkionean. Zigorren bi herenak beteta zituen eta, beraz, aske egoteko baldintzetan".

Espetxe politikaz amaitzea

Adierazpenean diote, heriotza horren aurrean bat egiten dutela Arkaitz Bellon Blancoren familiaren saminarekin eta atsekabearekin, eta diote, "elkartasuna adierazten" diotela familiarari, "une latz hauetan". Era berean, "irmoki eskatzen dugu Arkaitz Bellon Blancoren heriotzaren inguruabarrak berehala argitu daitezela eta familiak informazio guztia ahalik eta arinen izan dezala gardentasun osoz".

Idatzia sinatu duten taldeek honakoa aldarrikatzen dute gainera: "Pertsona guztien giza eskubideak, bake eta bizikidetzako egoera egonkorra defendatzen ditugu, eta beraz, espetxe poli-

tikaren salbuespen egoerarekin amaitzea".

Horrez gain, "salbuespeneko espetxe politikarekin eta sakabanaketarekin amaitzea" eskatzen dute adostutako agirian, "herri honetan gehiengoak aldarrikatzen duenarekin bat eginez". Sakabanaketa eta espetxe politika honekin amaitzeko garaia dela diote.

Eta "inoiz baino beharrezkoagoa" ikusten dute eskubide guztien alde egiten dutenen indarrak batzea, "sufirimenduaren soka luze honekin lehenbaila lehen amaitzeko".

Egun indarrean dagoen espetxe politika eta sakabanaketarekin amaitzeko, "gu guztiok beste urrats bat egitera goaz eta horretarako gonbidapena luzatzen dizuegu".

Udaleko Bilduk, Aralarrek eta EAJk adostutako adierazpena giza eskubideen kontra doazen egoerak desagerrarazteko neurriak hartzeko helbidetara bidaliko dute. Besteak beste, Arartekora, Eusko Jaurjaritzako Herrizaingo Sailera zein Bizkaiko Foru Aldundira.

"Bat egiten dugu familiaren saminarekin"

"Sakabanaketa politika honekin amaitzeko eskatzen dugu"

"Sufirimenduaren soka luze honekin amaitu behar da"

NERE 'ARRASATE PRESS' ZAHARRAK

SERGIO AZKARATE | blogak.goiena.net/nerearrasatepresszaharrak/ | twitter.com/arrasatepress

Enrike Alonso ziklistak Vueltan egon gure euen Zahor-ekin

Makatzena Eskolan hasi zan Enrike Alonso mondrauetarra ziklismuen, 11 urtekin.

Afizionauetan, Bizkaiko Bira eta beste hainbat prueba irebazi zittuen eta 1988an fitxau euen Zahor taldiek. Orduen emun euen profesioletarako saltu.

Ziklista onak euzen taldien, eta gatxa euen Españaiko Vueltako 9kuen sartzie: Van Brabant, Suykerbuyk, Juan Tomas Martinez, Ocaña...

Lasterketa gogorrek gustetan jakon, menditsuek, eta baitte bueltak be. Esprintetarako, barriz, ez euen abilitade haundirik. Hala be, lelengo urtie euen profesioletan eta baekixen oso-oso gatxa zala destaketie.


Negu aldien, mendixen ibilli, atletismue, igeri egin... beste gauza batzuk egitten zittuen. Eta, inportantiena, denporie ataraten euen Enpresa Zientziak ikesteko be! Haren ziklista gustokuenak Marino Lejarreta eta Pedro Delgado zien.

'Aizkora', bentanilla osteko lagune

Jose Mari Balanzategi *Aizkora* persona ezagune zan ordureko Mondrauen. Urtiek eroien udaletxien lanien, eta jentiek zelan tratetan euen preguntate, hauxe erantzun euen: "Denetik dago. Batzuk oso haserre etortzen dira, beste batzuk errespetu handiarekin tratatzen zaituzte, baina guk denak attenditu behar izaten ditugu".

"Saltsa guztietako perejila". Holan definituten euen bere burue. Hori bai, txikitten udaletxien sartziek bildurre emuten eutzen: "Sartu eta berehala irten nahi izaten nuen".

10. zenbakixe 1989-02-10



Uxue Agirre | Amodiozko Gutunen Lehiaketako Bergarako lanik onenaren irabazlea

"Pazientzia txikiko neska naiz eta inspiratuta egon behar dut idazteko"

- ▶ Azken lau urteotan aurkeztu ditu lanak Agirrek lehiaketara
- ▶ Harreman estuegi bat uzten duen pertsona da gutuneko protagonista

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Itzulpengintza ikasten ari da Uxue Agirre 20 urteko bergararra. Amodiozko Gutunen Lehiaketan Bergarako lanik onenaren saria eskuratu berri du.

Lehenik eta behin, zorionak. Espero al zenuen saria?

Egia esan ez. Izan ere lana aurkezterakoan Jardunetik jakinarazten dute jaso dutela, baina aurten ez da horrela izan. Eta azkenean, ezusteko polita eraman dut eta poz-pozik nago!

Beraz, ez da Amodiozko Gutunen Lehiaketara aurkeztu zaren lehen aldia?

Ez, urte askotan aurkeztu izan ditut nire lanak, lau alditan edo. Beste lehiaketa batzuetara ere aurkeztu izan naiz, baina tarteka; Bergarakora urtero parte hartzen saiatzen naiz.

Nola sortu zen lbairen eta Ainhoaren arteko istorioa?

Ez nion buelta handirik eman, egia esan behar badut. Beno, zerbait berezia, originala egin gura nuen, iruditzen zait-eta amodiozko gutunetan ere denetik ikusita dagoela dagoeneko. Ez baldin baduzu zerbait berria egiten, jendea aspertzeko arriskua dagoela esango nuke. Faktore garrantzitsua da irudimenari eragitea. Horregatik hautatu nuen amodio estuegia ona ez denaren erabakia adierazten duen gutuna idaztea.

Mezua du eskutitzak. Epaimahaiak gutun ausarta dela gaineratu du...

Hori esan dute, bai. Baina egia esan, ez nengil horren atzetik,



Uxue Agirre izan da Amodiozko Gutunen Lehiaketako irabazlea. | UXUE AGIRRE

"Originala izan gura nuen amodiozko gutunetan ere denetik egin delako"

noizean behin inora ez doazen istorioak irteten dira, eta bestetan, horrelako erabaki baten aurrean azaltzen da pertsonaia ausart bat, eta oro har, mezu bat igortzeko balio du lanak. **Aspalditik al duzu idazteko zale-tasuna?**

"Inspiratuta egon behar dut idazteko, pazientzia gutxiko neska naiz eta"

Gaztetan hasi nintzen. Egia da lehen ohitura handiagoa neukala, eta orain apur bat lagata dut. Pazientzia gutxiko neska naiz, eta gauzak ez bazaizkit irteten, albo batera uzteko ohitura daukat. Horregatik inspiratuta egon behar dut idazteko, bestela ez dut idaz-

teko berezko jariorik. Nire buruarekin ere askotan haserretzen naiz gura dudana idazteko gai ez naizelako.

Hitanao baliatu duzu gutunean.

Ez da lehiaketara hitanoz aurkeztu dudana lehenengo lana. Zergatik? Uste dudalako oso polita dela hikan berba egitea, eta galtzen ari den zerbait da, tamalez. Nik ez dut erabiltzen, baina etxean gurasoek beraien artean egiten dute. Saiatzen naiz haiek niri ere modu horretan hitz egin diezadaten, ikasi egin gura baitut, baina ohitura kontuengatik ez zaie samurra egiten. Beraz, gutxienez horrelako lanetan baliatzen dut. Eta gainera, mutil baten larruazalean sartuta idatzita dagoenez, aditzak ere desberdin landu dira.

Epaimahaiak beste ezaugarri bat nabarmendu du lanetik, gainera: erabili duzun hizkuntza aberatsa dela.

Asko irakurtzeko ohitura daukat eta horrek eragiten du hizkuntza erabileran, noski. Dena dela, itzulpengintza ikasten dihardut, egunero lantzen eta aztertzen dut hizkuntza, eta horrek ere zerikusirik izango du.

Zure idazle fazeta ezagutu dugu, baina nor da Uxue Agirre?

Oraindik gaztea naiz eta nire bizitza osatzen joateko denbora asko daukat: bidaiatu ikasi eta min hartuko dut, okerrak egingo ditut... Eraikitze prozesuan nago eta Uxue Agirre zein den galderari erantzuteko, urte batzuk geratzen zaizkit!

Erretiratuei zuzenduta informatika ikastaroa

Z.V.D.M. | BERGARA


Bergarako Gizarte Etxean erretiratuentzako informatika ikastaroa eskainiko dute otsailaren 17an hasita. Hasitapen ikastaroa izango da, eta helburu argi bat dauka: alor horretan oinarrizko eza-gutza eta erabilera sustatzea hirugarren adineko pertsonen artean.

"Tresna informatikoak erabiltzen jakitea oso erabilgarria izan daiteke adin tar-te guztientzat. Hala, ordenagailuak, internet zein sarera konektatutako aparatua eguneroko bizitzan oso baliagarriak dira". Hala eman dute aditza antolatzaileek.

Astean hirutan

Astean hiru egunetan elkartuko dira informatikako oinarrizko gauzak ikasteko. Hain zuzen ere, astelehenetan, martitzenetan eta egunetan izango dira eskolak, 11:00etatik 13:00 bitartean.

Dagoeneko eman daiteke izena ikastaroan. Horretarako, interesatuek gizarte etxera jo dezakete edo 943 76 21 40 zenbakira deitu.



Informatika ikastaroa. | RACHEOCITY

Hezkuntzarekin lotutako aplikazioak berbegai

Elkoroberezibar bergararrak eskola kudeaketaz berbalda eskaini zuen Cádizeko gailurrean

Z.V.D.M. | BERGARA

Miguel Angel Elkoroberezibar bergararra Donostiako Easo Politeknikoko kudeaketa arduraduna da eta Sotogranden (Cádiz) eginitako Google Apps Education gailurrean hartu zuten parte otsailaren 1ean eta 2an.

"Bernaldia eskaini genuen politeknikoko Koldo Olaskoaga IKT dinamizatzaileak eta biok, ingelesez. Jardunaldia amaituta, etxerako bidea hartu genuen". Hala eman du aditza Elkoroberezibarrek.

Hezkuntzarako aplikazioak

Decentralized School Management with Google Apps Education edo *Eskola Kudeaketa Dezentralizatua Google Apps for Education*-ekin izeneko berbalda eskaini zuen bergararrak.

Hezkuntzarekin lotutako aplikazioen azken berrikuntzak eta ikastetxeetan ezartzeko aukera ezagutzeko aukera izan zuten, esaterako. Nazioarteko partaidetza zabala egon zen jardunaldian eta mundu mailako ikastetxeen esperientziak ezagutu zituzten.



Elkoroberezibar eta Olaskoaga Sotogranden. | EASO POLITEKNIKOA

Inauteritako bazkaria eta Donostiara irteera San Joxeperekin.

San Joxepe elkarrekin bi irteera antolatu ditu. Batetik, martxoaren 4an, aratuste martitzena, elkartean bertan dagoen Aitonak jatetxean inauteritako bazkaria antolatu dute. Mozorrotuta dantzaldia egingo dute jarraian. Bestalde, bigarren irteera martxoaren 12rako finkatu dute. Kasu horretan Donostiara abiatuko dira, eta ondoren sagardotegian egingo dute bazkaria. 09.30ean irtengo dira Bergaratik eta 11:00etan Gipuzkoako Foru Aldundian bisita gidatua egingo dute, ordubetez, gutxi gorabehera. Bazkaltzera, ostera, Aginaga sagardotegira joango dira, 14:00ak inguruan.



Artzain Eguna izango da aurten Bergaran. Argazkian, iaz Arrasaten egindakoa. | GOIENA

Denetariko ekintzekin disfrutatzeko hilabetea

Otsaileko kultura gida ekintzaz beteta dator: antzerkiak, DJ jaialdiak, Artzain Eguna eta gehiago

ANE ETXEBERRIA | BERGARA

Nahiz eta otsaila hasita egon eta ekintza ugariz disfrutatzeko aukera izan den, oraindik ere badago zer egin herrian. Izan ere, otsaileko kultura gida ekitaldiz beteta dator.

Antzerkia gustuko dutenek asteburuan hainbat saioekin gozatzeko aukera izan dute; izan ere, Glu Glu antzerki taldearen

Vamos a contar mentiras antzerkia izan zen egubakoitzean, eta zapatuan, aldiz, *Sutondoan* antzerkia izan zen ikusgai Zabalotegin. Bada, kontu horiek pasata, hil honetan beste antzerki saio bat izango da; 23an izango da, eta, Teatro Paraiso antzerki taldearen eskutik, 7 eta 14 urte arteko haurrentzako *Erpurutxo* antzezlana izango da ikusgai, hura ere Zaba-

lotegin, arratsaldeko seietan. Sarrera 4 euro da.

Ipuin kontaketak

Ipuin kontaketa saioek ere badute lekutxo bat egitarauan. Hain zuzen, otsailaren 25ean *Zer daraburuarekin Ines Bengoaren* ipuin kontaketa saioa izango da Aroztegi aretoan, helduendako, 19:00e-

tan. Sarrera deialde da. Handik hiru egunera, hau da, 28an, *Karabi karaba* haurrentzako ipuin kontaketa saioa eskainiko du Ines Bengoak berak.

Musika gustuko dutenek otsailaren 16an hitzordua dute Keu Agirretxea eta Fignuh Experience eta Naica taldeekin. Zabalotegin izango da, 19:00etan. Astebetera, hau da, 22an, DJ jaialdia izango da leku berean, eta hileko azken egunean, Udal Musika Bandaren Inauterietako kontzertua izango da Pilotalekuan. Sarrera 8 euro da.

Zinekluba Zabalotegin

Zineklubean, berriz, hiru pelikula izango dira ikusgai: otsailaren 12an, *Amor bajo el espinillo blanco* filma izango da ikusgai; astebetera, hau da, 19an, *Un lugar donde refugiarse* amodiozko filma izango da; eta hilabetea amaitzeko, *Nire sexualitatea sorkuntza bat da* dokumentala ikusteko aukera egongo da. Guztiak 20:00etan izango dira.

Bestelako hitzorduak

Bestelako hitzorduak ere izango dira hilabete honetan. Besteak beste, Jardun Euskara Elkarteak urtero antolatzen duen Amodiozko Gutunen Lehiaketako sari banaketa izango da Kultura etxean. San Valentin egunean izango da, 19:00etan, eta bertan, aurten jaso diren gutunak irakurriko dituzte.

Otsailaren 22an egun bitxia izango da: Artzain Eguna, zehazki. Debagoieneko iazko Artzain Eguna Oñatin izan zen eta aurten Bergaran izango da. Egun hori Debagoieneko Mankomunitateak antolatutako Jardunaldi Gastronomikoen barruan dago. Hala, egun horretan, artzain produktuen azokan zer erosi eta ikusi egongo da egun osoan.

Uberako San Paulo jaietako zozketaren zenbaki sariduna

San Paulo jaietan, urtero moduan, txartelak saldu zituzten auzotarrek bertaratutako guztien artean. Bada, dagoeneko badakite zein den zenbaki sariduna: 578.

Irabazleak Uberako landetxean bi laguntzako asteburua eta Tartufon lau laguntzako afari edo bazkaria irabaziko du. Sari ederra eta partekagarria, beraz.

Hondakin bilketa oinarri duen aplikazioa erabilgarria

Gaika izena du aplikazioak eta hondakinak bereizteko orduan sor daitezkeen zantzak argitzeko balio du. Bilketa ordutegien inguruko informazioa ere eskaintzen da bertan. Interesa dutenek, beraz, beharrezko informazioa mugikorrean izango dute eskuragarri. Instalazioa, hain zuzen ere, *Google play* bidez egin beharko da.

Elkarbizitza planaren gaineko agiria etxera bidaliko dute

Haurrak 2014-2015 ikasturtean matrikulatzeko kanpaina hasita, 2012an jaiotako haurren gurasoek *Elkarbizitza agiria* behar dute seme-alaben matrikula egiteko. Bergarako Udalak etxera bidaliko du agiria; hau da, erroldatutako helbidera. Hala, haurrak matrikulatzeko informazioa izango dute eskura gurasoek.



50 urte pasatu badira ere, gazte segitzen dute



EVARISTO SERRANO

Serrano Ortiz anaiak duela 50 urte Kordobako La Carlota herria utzi eta Euskal Herrira etorri ziren bizi izatera. Oso gazte etorri ziren, ezkerreko argazkian ikusten den moduan, eta aurten, urteurrena ospatzeko, leku berean, Espoioan, argazkia ateratzeko aukera izan dute. Evaristo, Salvador eta Jose anaiak geurean oso integratua daude eta nork bere bizitza egin du Arrasaten, Bergaran eta Antzuolan.

NIRE USTEZ

ANDRES OSA
'SAKONA'



Espetxe politika

Heriotza bat gehiago. Arkaitz Bellon, Elorrioko mutil gaztea, duela 13 bat urte atxilotu zuten Donostiako kaleetan. Geroztik espetxeetan zehar erabili dute egurtuaz, sufrimendua eta samina eraginaz berari eta inguruko guztiei. Ezarri zaion gurutze-bideak zendu du. Espainiako Estatuak ez du errukirik. Mendekua gainezka.

Aspalditxoan giza eskubiak tertulietan bereziki modan jarri dira. Bizitzako egoera larrietan bere urraketak ere bai. Larrienak Estatuak egiten ditu. Norbanakoarekin alderatuz Estatuarenak mila bider larriagoak dira. Herritar guztien izenean egiten baitu. *Kale borro-*

ka baino beste edozein delitu mila aldiz larriagoak, erailketek adibidez, zigor askoz txikiagoa dute.

Eta torturak zer? Kartzelarako atarian, komisaldegian, hain zuzen, Estatuak erabili eta estali ere egiten du, politikari gehienak mutu direlarik. "Tortura kasuak daudela frogatzen direnean salatuko dugu", Lamarck esana. Herri defendaile kargua beronek. Salbu dira giza eskubiak! Bapo.


Gobernuak daraman espetxe politika onartezina, kriminala da. Sakabanaketak, herritik urrun, senitartekoentzat tortura, presoei dagozkien eskubiak hankapean; bitartean, Parla-mentuak eta Legebiltzarrak mutu. Gehienez, epelkeriak. Noiz arte, jaunak?

"Gobernuren espetxe politika kriminala da"

Mendi sailaren eskutik irteera Aratzera, otsailaren 16an

I.G. | OÑATI

Aloña Mendiko Mendi sailak mendi irteera antolatu du Aratz mendira (Arantzazu-Aratz-Otzaurte). Hilaren 16an izango da. Goizeko zortzietan elkartuko dira postetxe parean. Irteerara joan nahi dutenek otsailaren 13ra bitarte izango dute izena emateko aukera Aloña Mendi tabernan. Bazkideak 10 euro, ez bazkideak 13 eta langabetuak bost. Sei orduko ibilaldia izango da, 800 metroko desnibelarekin.



Aratz mendia. | A.M.-KO MENDI SAILA

Inauterietarako entseguak martitzen eta zapatuetan

Iaz estreinatu zituzten herriko inauteri propioak eta izandako erantzuna ikusita, antolatzaileek aurten ere bide beretik jotzea erabaki dute. Dagoeneko hasi dituzte entseguak martitzenetan, 20:00etan, eta zapatuetan, 12:00etan, Errekaldeko Oñatz Dantza Taldearen lokalean. Martxoaren 1ean irtengo dira dantzariak.

Torturaren gaineko erakusketa hilaren 13ra arte, kultur etxean

Oñatiko Euskal Memoria Taldeak torturaren inguruko erakusketa antolatu du. Ikusgai egongo da kultur etxeko beheko aretoan, hilaren 13ra arte, 18:00etatik 20:00etara. Horretaz gain, hilaren 12an ikus-entzuneke bat estreinatuko dute, 19:00etan. Hurrengo egunean, 'Barruko arrastuak' dokumentala ikusteko aukera egongo da.

Helduentzako ipuin kontaketa saioa kultur etxean otsailaren 12an

Udal Liburutegiak helduentzako ipuin kontaketa saioa antolatu du. Beatriz Egizabal narratzailea izango da eguaztenean, hilak 12, kultur etxean. Baubo izeneko istorioa kontatuko du. Euskaraz izango da saioa. Hitzordua arratsaldeko zazpitan da. Egizabal esperientzia askoko narratzaile eta clown-a da.



Hirugarren plazan, irisgarritasun planaren baitan, egiten dabilzan lanak. | I.G.

Hainbat lan, San Lorentzo irisgarri egiteko

Hirugarren plazan lanak egiten dabilta une honetan eta beste hiru fase egitea aurreikusten da aurten

IRATI GOITIA | OÑATI

Udalak irisgarritasun plan bat du egina San Lorentzo auzorako. Plangintza horrek hainbat fase ditu eta poliki-poliki badabilta fase bakoitzeko lanak egiten. Horrela, badira urte batzuk lehen obrak hasi zituztenetik. Une honetan ere badihardute lanean. Zehazki, hirugarren plazaxoa egokitzen dabilta beharginak (iaztik dato-

ren proiektua da). Urte honetan, beste hiru fase egingo dira.

Erdigunea forma hartzen

Hirugarren plazaxoaren azpian dauden garajeetan ura sartzen zela-eta, lanak egin dituzte bizi-lagunek lehenik. Eta orain, Udalak, behin obra horiek amaituta, irisgarritasuna hobetuko du. Hala, bi hobekuntza dira egiten dabil-

tzanak: igogailua jarri eta zorua lauzatu. Itsuendako gida izango diren baldosak jarriko dira zoruan. Horrela, aurreko fase batean jarritako arrapatatik igogailu berrira joan ahal izango dira itsuak inongo arazorik gabe. Hain zuzen, igogailu horrekin auzoko erdiguneko irisgarritasun arazoak konponduko dira, hiru igogailu eta arrapala batekin.

DATUA

130.000

EURO

Hirugarren plaza irisgarri egiteko lanen aurrekontua (BEZ kanpo). Bestalde, igogailua egiteak 90.000 euroko kostua izango du.

Beraz, behin erdiguneari dagozkion obrak eginda, zeharkako kaleak egokitzea geldituko da. Orain arte, irisgarri egin den zeharkako kale bakarra San Lorentzoko ermita dagoena da (13. fasea). Gainerako kale horizontal guztiak egin beharko lirarteke orain.

Beste hiru fase

Hain zuzen, horietako batzuekin hasiko dira aurten. Zehazki, beste hiru fase egingo dira: bosgarrena, hamargarrena eta hamabigarrena.

Batetik, auzoaren goi-goian, ezkerrean dagoen kalea egokituko da. Izan ere, erdiguneko irisgarritasun plana eginda ere, kale honetan dauden behebarrutara joateko oztopoak daude.

Bestetik, egun konpontzen dabilzan plazako jarraipena diren bi kaleak egokituko dira. Arrazoiak: egoera txarrean daudela eta behin plazako obrak amaitzerakoan kale horiekin egin beharreko elkarketa apropos egitea. Horrenbestez, behin obra horiek eginda, hirugarren plazako inguru guztia izango litzateke irisgarri.

Udaletik adierazi dutenez, baina, oraindik proiektua egiteko dago eta lizitazio berri bat ere egin beharko da.

NIRE USTEZ

MAITE IRIZAR



Handitasunean txiki

Itsasoak momentu paregabeak bizitzeko aukera eskaintzen digu. Oroitzapenen kutxatxoan maiz izaten da itsasoa-ekin lotura duen pasarterik. Nire kasuan, umea nintzenetik, beti esan izan dut itsasoak sosegua transmititzen didala. Hala ere, hemendik aurrera esamoldea aldatu beharrean nago, "itsaso bareak sosegatzen nau".

Azken egunetan denboraleak gogor jo du euskal kostaldean. Hamar metrotik gorako olatuak ikusi ahal izan ditugu eta kalte ugari eragin ditu urak. Egunotan, begiokin ikusitakoak, ikusgarriak eta era berean ikaragarriak izan direla iruditu zait.

Gertatu diren kalteak justifikatu eta zergatiak bilatzerakoan

badakigu eguraldiak zerikusi zuzena duela baina nire buruari egunotan galdetu diot ea zenbateraino garen kontziente, itsasoari lekua jan izanaren erantzuna direla olatu erraldoi hauen harrotasun eta indarra.

Kuriositatea tarteko, argazki kamerako objektiboa lanean; neu ere itsasoari begira, lehen planoan egon nintzen, irudi batean gaitatuko zuen istant horren parte izateko asmotan. Lortu ere lortu nituen gordezkeoak, baina zinez gordeko dudana, itsasoari errespetua da. Beraz, garrantzitsua da presente izatea itsasoak zein olatu biziak, zelako ñimiñoak garen gogorarazten digutela eta segundo gutxiren buruan, itsasoak gozatzetik beronen jolaserako panpina izatera igaro gaitezkeela.

"Itsasoaz gozatzetik, bere panpina izatera"



JON ANDER OSINAGA

Gipuzkoako txapelkun dira

Aloña Mendiko eskubaloi saileko gazte mailako neskak lurraldeko txapelketan nagusitu dira. Eguenean jokatu zuten azken partidua Legazpiko Aluminios Aleman taldearen aurka eta 18-22 nagusitu ziren. Oñatiarrak gehiago izan ziren norgehiagoka osoan, azken unean zertxobait motelago ibili ziren arren. Ezin hobe dabilta neskak, Euskal Ligara igotzea ere lortu zuten-eta, joan zen asteburuan.

ESKORIATZA

Atez atekoa jarriko dute apirilean Eskoriatzan

- Proba pilotuaren emaitzak ez dira esperotakoak, eta aldatzea erabaki dute
- Datozen bi asteotan batzar informatiboak egingo dituzte herritarrekin

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Hiru hilabeteen Eskoriatzako San Pedro, Intxaurtxueta eta Gaztañaduin hondakinen bueltan egindako proba pilotuak emandako datuak aztertu ostean, herri osoan atez ateko sistema jartzea erabaki du Udal Gobernuak. Egubakoitzean egindako agerraldian, Beñat Herce alkateak jakinarazi zuen martxo bukaeran edo apiril hasieran jarriko dela martxan sistema berria.

Gogorarazi zuen hiru hilabete probaldian atez atekoaren eta bosgarren edukiontzaren erdibideko sistema probatu zela: organikoa edukiontzi marroiarekin eta gainerako frakzioa zintzilikarioen bidez jasota. Bada, emaitzak aztertuta, alkateak azaldu zuen erabiltzaile kopurua "adierazgarria" eta paperaren, ontzi-arinen eta beiraren sailkapena egokia izan bada ere, kalitatea ez dela ona izan. Honakoa gaineratu zuen: "Bereziki materia organikoa beste hondakinekin nahastu da. Edukiontzia komunitarioa da, eta astez



Egubakoitzean egindako agerraldia. | MIRIAN BITERI

ate horietan agertu izan dira poltsak eta beste hondakin batzuk, beste herritar batzuek egiten duten lana zapuztuz. Hortaz, sistema mistoa ez da balioztatzen, eta banan-banako sistemara joango gara".

Atarietako arduradunak

Hori horrela, beira edukiontzi berdeetan jasoko da, eta gainerako hondakinak zintzilikarioetan,

egutegi eta ordutegi baten arabera. Hori guztia martxan jarri aurretik, batzar informatiboak egingo dituzte. Santa Ana, Eduardo Gorosarri, Olazar, Gaztañadui, Hidalgo, San Juan, Elorreta eta Jose Aranakoek honako egunetan izango dituzte: otsailaren 11n 18:30ean egingo dutena euskaraz izango da; otsailaren 12an, 10:00etako, ele bitan; eta egun berean,

Elizateetako guneak

Elizateetan hondakinak biltzeko ekarpen guneak eta miniguneak eraikiko dira. Alkateak azaldu zuen elizate bakoitzean, gutxienez, bat egongo dela, eskoriatzarrek aukera izan dezaten hondakin guztiak edukiontzi horietara eramateko. Giltzaz itxita egongo dira horiek, eta auzotar bakoitzari bana banatuko zaio. Horrez gain, herriari larraldi-gunea ere jarriko da; tren geltoki zaharrean egongo da hori.

Hori guztiori eraikitzeko, Udalak eta Debagoieneko Mankomunitateak hitzarmena sinatuko dute. Joan den martitzenean egin zuten osoko bilkuran horren alde bozkatu zuen udalbatzak.

baina 18:30ean egingo dena, gaztelaraz. Aranburuzabala, Dorleta, Olaeta eta Aingeru Guardan bizi direnek ere hiru hitzordu izango dituzte: otsailaren 18an, 18:30ean, euskaraz; otsailaren 19an, 10:00etan, ele bitan; eta egun berean, 18:30ean, gaztelaraz. Ibarraundin dira guztiak. Eskapeetako arduraduneri ordu erdi lehenago joan daitezela eskatu zaie.

NIRE USTEZ



JULEN ABASOLO

Zaborren espektakulue

Eskerriena gutxi ez, eta hemen daukou zaborrena be. Eta harekin antzera, danak barrezka eta ni ilun urtengo ote nazen billurrez nau.

Nire herria garbia, zero zabor, atez atekoa, hondakinen mahaia... zenbat izenburu, danak edarrak izen leikezenak, bat egin ezinik. Bertako hondakinen kudeaketa eruangarri baten alde adostasuna topau ezinik gabitzela, sinistu ezinik nau.

Neure buruei askotan galdetu izan dutzelan leiken geure zaborren inguruen elkarrekin hain hasarre eta egoskor ibilttie.

Baitte erantzune topau be: hemen pipa azalak ahotik zuzenien, tufa-tufa lurrera botaten dielako, hemen klinexak erabili eta lurrera doietzelako, hemen edozein gauza eskuraketan dogula be, barrukue geurie eta kanpokue bestiena dalako. Hemen txakur kakak uzteie zigortu egitten dalako, baina gizakumionak ez. Hemen zaborrak zakarrontzi inguruen pilaketan dielako. Guzti hau ohikue dalako, eta onartu egitten dogulako.

Ez gara konturaketan bali-xodun edozein gauza geure esku artien zabor bihurtetan dogula, eta geuk sortu badogu, geurie dala.

Atxabaltan be, gauzak aldaketarren, pauso bat emutera goietz, baina oinarrikue, berriro be egin barik geldituko dala uste dot, eta horrek, euskeriek antzera, geure buruekin daukoun jarreriaz, ehunetik ehun dauko".

Twitter bidezko saioa eskainiko dute Amets Arzallusek eta Miren Amurizak

M.B. | ESKORIATZA

Huheziko Euskara batzordeak eta Eskoriatzako Udalak elkarlanean antolatuta, bertso saio berezia izango da asteen Eskoriatzako fakultateko klaustro aretoan: *Bertxio* izenekoa, hain justu ere. Emanaldia 18:00etan hasiko da.

Maila handiko bertsolariak aukeratu dituzte ekitaldi horretan parte hartzeko: Amets Arzallus, 2013ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako irabazlea; eta Miren Amuriza, bertsolaria eta Huheziko ikasle ohia. Asier Irizar antolatzaileak azaldu digu emanaldiak hainbat atal izango

dituela, eta horien ezaugarri nagusia dela gaiak ikusleen artean eta aurretik Twitterren irekiko den kontu batetik aterako direla. Ikus-entzuleek bidalitako txioak eta proposatutako gaiak bilduko dira aretoan jarriko den pantaila handi batean; geroago, bertsolariak gai horien gainean kantatuko beharko dute. Horrez gain, gainera, Humanitate eta Hezkuntza Zientzietako bi ikasle ere egingo dituzte gai-jartzaile lanak.

Lekeitiotik ekarria

Horrelako saio bitxi bat egiteko ideia nondik datorren ere azaldu digu Irizarrek: "Unibertsitateko Euskara batzordean dagoen ikasle batek ekarri zuen ideia, bere herrian, Lekeition, halako bat egin zutelako Alaia Martinekin eta Beñat Gaztelumendirekin. Gurera ekartzea erabaki dugu".

Bada, antolatzaileak azaldu dute saioa doakoa dela eta irekita dagoela joan gura duen edonorendako.

ARETXABALETA

'Bularretik mintzora'-k beste pauso bat eman du

'Motxila txikiak' eta 'Maleten mailegua' izeneko egitasmoak jarri dituzte martxan liburutegian

M.B. | ARETXABALETA

Haur aretxabaletarren artean literatura sustatze eta ezagutzarazte aldera, Udaleko Euskara eta Kultura departamentuek eta Galtzagorri elkarrekin elkarlanean gertatutako *Bularretik mintzora* izeneko egitasmoak aurrera dihardu. Irailean prestakuntza saioak hasi zituzten Pausoka, Basabeazpi eta Kurtzebarriko irakasleek, eta egunotan beste bi ekimen jarri dituzte martxan liburutegian.

Batetik, *Motxila txikiak* izeneko proiektua dago. Pausokan,

2 urteko umetxoan gelan; eta Basabeazpin eta Kurtzebarri, Haur Hezkuntzako ikasgela bakoitzean motxila txikia dute. Astean, egunean edo egubakoitzean, ikaskide batek hartzen du horren ardura, eta gurasoekin batera liburutegira doa eta gustuko duen liburua aukeratzen du. Asteburuan etxean lasai irakurtzeko astia du, eta jarraian, ikasgelara eroaten du eta gainerako ikaskideei azaltzen die.

Bestetik, 0-3 eta 3-6 urte bitarteko gurasoei zuzendutako *Male-*



Gurasoentzako maletak Aretxabaleako liburutegian. | MIRIAN BITERI

ten mailegua dago. Galtzagorriko umetxoendako gomendatutako liburuak eta *Bularretik mintzora* edo *Sasi guztien gainetik* izeneko liburu-diskoak hornituta daude Aretxabaleako liburutegian esku-


ragai jarritako hamar maleta. Gurasoek hilabeterako etxera maileguan eramateko aukera dute. Bada, horiek eramateko baldintza bakarra liburutegiko bazkide izatea da.

"Gauzak aldaketarren, pauso bat emutera goietz"

ESKORIATZA

Ume eta gazteekin lan egiteko ikastaroetan izena eman daiteke

Hilaren 14an amaituko da kulturartekotasunari, erreferentzialtasunari eta hezkidetzari eta berdintasunari buruzko ikastaroetarako izen-ematea. Interesatuak Gazteria edo Euskara zerbitzura jo behar dute, telefonoz deitu (943 08 10 01) edo posta elektronikoki bidez egin eskaera: *gazteria@aretxabaleta.net*.



Bertakoa eta sasoiakoa

Telebistako programazio berria

Hainbat berritasun otsailean eta martxoan

- ▶ Programazio berria prestatu dugu familia guztiarendako.
- ▶ Protagonistak eta gertaerak bertatik bertara aurkeztuko ditugu.
- ▶ Edukiak, gauzak kontatzeko modua eta itxura, berrituta.



DEBAGOIENDARROK DI OGUNA

“goiena”



San Martin eskola margotzen, iaz egindako jaietan. Ikasturte honetan 144 ikasle daude. | GOIENA

ARAMAIO

Eskolako jantokirako laguntza dela-eta, Hezkuntza Ordezkaritzaren zain

Barajuen eta Azkoaga auzoetako 19 ikaslerendako eskolan bazkaldu ahal izateko diru-laguntza zalantzan dago, datorren ikasturtera begira

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

San Martin eskolako arduradunak Jaurlearitzako Hezkuntza Ordezkaritzaren erantzunaren zain daude. Eskola jantokiko zerbitzuarendako diru-laguntza dela-eta sortu da kezka. Eskolatik bi kilometro baino gehiagora bizi diren ikasleek laguntza garrantzitsua jasotzen dute, autobusean garraiatuak izateaz gain, eskolan bertan bazkaltzeko. Bada, Barajuen eta Azkoaga auzoetan bizi diren 19 ikaslerendako diru-laguntza hori zalantzan dago datorren ikasturte begira. Izan ere, Jaurlearitzak egindako neurketa baten arabera, 19 ikasle horiek ez dira eskolatik bi kilometro baino gehiagora bizi. Arazoa da, baina, bi kilometrorra heltzen ez den distantzia hori egiteko bidea ez dagoela erabiltzeko moduan.

Errepidea ez dago erabilgarri

Hori horrela dela frogatzeko Ertzaintzari txosten bat eskatu zitzaion, proposatzen den errepideak "Landa-pista", Ertzaintzak jasotzen duenez gutxieneko segurtasun betekizunak eta baldintzak betetzen dituen ikusteko. Txosten horren ondorioa garbia da oso: ez dago ikasleek erabiltzeko moduan.

Garraiatuak eta baimenduak

Bi kilometro baina urrunago bizi direnak garraiatuak moduan dira ezagunak. Bestalde, baimenduak daude, bi kilometro baino gutuago bizi arren ere autobusean doazenak, betiere lekua egon ezkerro. Eskolako arduradunen kezka da datorren urtean 19 ikas-

le horiek, baimenduen artean kokatu ezkerro, lekuri izango al duten autobusean: "Arabako hezkuntza delegatuarekin egon gara eta aldeko jarrera dauka, ulertzen du arazoa. Espero dugu konponduko dela eta esan zigun laster erantzungo zigula; oraingoz, baina ez dakigu ezer", diote.

Errepideak, segurtasun baldintzarik ez

Bergarako Ertzaintzaren etxeko bi agentek egindako txosten batek ondorioztatu du Hezkuntza Ordezkaritzak proposatutako bideak ez dituela gutxieneko segurtasun baldintzak betetzen. Errepidearen honako ezaugarriak jasotzen ditu txostenak ondorio horretara heltzeko: nekazaritza lanetarako egin zela, oso estua dela, aldapa handia duela (%18ko koska), neguan izotza eta elurra egotea ohikoa dela, ez duela argiztapen artifizialik —beraz, "oso arriskutsua" da oinezkoek erabiltzeko— eta A-2620 errepidean amaitzen denez, ezinbestekoa dela errepide hori zeharkatzea eskolara joateko. Azken horrek arriskua areagotzen duela dio txostenak, ibilgailu gehienek zirkulatzeko erabiltzen duten errepide nagusia delako.



Landa-pistaren egoera. | UDALA

ANTZUOLA

Nahiz eta elikagai gutxiago jaso den, kopuru polita Saharara

Urtarrilaren 8tik 18ra batu ziren elikagaiak X. Piztu Itxaropena kanpainaren barruan

ANE ETXEBERRIA | ANTZUOLA

Aurten elikagai gutxiago jaso da, %10 gutxiago, baina, hala ere, kopuru polita bidaliko da Saharara. Izan ere, aurten ere itxaropena pizteko lana egin da herrian. Anelkarrek eskerrak eman nahi izan dizkie herritarrei egindako esfortzuagatik. Izan ere, urtarri-la hilabete zaila izaten dela jakin

badakite eta gaur egun bizi dugun krisiak "ez du laguntzen, baina nahiz eta ez izan albiste positiboa, bai da ulertzekoa", adierazi du Jabi Etxanizek, Anelkarko kideak.

"Halaber, eskerrak eman nahi dizkiegu Antzuolako Udalarri, Antzuolako Herri Eskolari eta denda hauei euren laguntzagatik:

Aixari, Antzuolako Eroski City-ri eta Kalebarren dendari". Herritarrei ere eskerrak eman dizkie euren solidaritateagatik.

Aurtengo datuei dagokienez, elikagai asko batu da herrian; guztira, 486 kilo. Iaz baino 77 kilo gutxiago dira, baina, hala ere, kopuru polita da. Arroza eta dilistak (lentejak) batu dira gehien. Aurten iaz baino gehiago batu diren elikagaien artean, atuna, pasta eta garbantzuak daude; baba bilketa, aldiz, aurten ez da horren positiboa izan. Hala eta guztiz ere, 37 kutxa bete dira, guztira, iaz baino lau gutxiago. Elikagai guztiak Saharara bidean daude dagoeneko.

ELGETA

Kantsatzeke mendi taldeak aurkeztu du 2014ko irteeren egutegia

Gauzak ondo bidean otsailaren 23an egingo dute lehenengo irteera Oiz aldera

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Zortzi irteera aurreikusten dituzte Elgetako Kantsatzeke mendi taldean 2014rako. Bestela esanda, hilean bat abuztua, azaroa eta abendua kanpoan utzita. Guztiak zapatuarekin edo domekarekin egingo dituzte eta parte hartzea irekia da.

Gipuzkoan lau irteera egitea aurreikusten dute: apirilaren 26an Bidegoian-Ernio-Bidegoian; ekainaren 22an Arantzazu-Arbelaitz-Arantzazu; uztailearen 19an Zarautz-Pagoeta-Orio; eta urriaren 25ean Legazpi-Gorosti-Arrola-Legazpi.

Bi txango aurreikusten dituzte Kantsatzeke Nafarroara: Goizueta-Arriurdigain-Goizuetamartxoaren 23an, eta Azka-

rate-Balardi-Azkarate irailaren 21ean.

Errioxara ere egingo dute txangoa aurten. Maiatzaren 24an Lagran-Palomares-Lagran irteera egingo dute.

Baina urteko lehenengo hitzordua Bizkaiarekin izango da. Otsailaren 23an Oiz aldera egiteko proposamena luzatu dute mendi taldetik. Ibilbideak Garain izango ditu irteera eta helmuga.

Irteera irekiak

Interesa dutenek kantsatzeke@gmail.com helbide elektronikoan jasoko dituzte argibide gehiago. Kontuan izan urtean zehar egon daitezkeela azken orduko aldatetako egutegian.



Elgetar taldea iaz egindako irteera batean. | KANTSATZEKE

LEINTZ GATZAGA

Aurrekontuak eta beste azalduko dituzte laster

Beste inori baino lehen herritarrei azaldu gura dizkie Udalak nondik norako guztiak

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Buru-belarri lanean dihardu Leintz Gatzagako udalbatzak urtea hasi denetik. Buru-belarri, besteak beste, aurtengo aurrekontuei azken ukituak ematen. Izan ere, bukatzeaz dute proiektua, eta bukatu bezain laster egingo duten lehenengo gauza herritarrei azaltzea izango da, udalbatzaren nahia baita herritarrei zuzeneko informazioa ematea gai garrantzitsuen gainean, alegia.

Hori horrela, eta ildo bereetik, Eugenio Otsa gatz museoaren gainean ere berba egin gura du Udala Gobernuak herritarrekin. Gatzagako gatz museo-rako proiektu edo asmo berria dihardute lantzen, besteak beste, eta orain artekoa baino erabilera handiagoa emateko helburuarekin.

Eta bestelakoan artean, udalerrian Gipuzkoako Diputazioa eraikitzen dabilen ur-araztegiaren gaineko nondik norakoak ere azaldu gura dituzte.

Hori guztia egiteko, herritarrekin batzar publikoa deitzeko asmoa du Udala Gobernuak. Edozelan ere, data oraindik ez dute zehaztu.

Beteranoen txapelketa

Bestalde, domeketan jokatzen den beteranoen pilota txapelketa izena emateko epea zabalik dago. Mauri Zubillagari deitu behar zaio hori egiteko: 605 72 40 96. Eta, hain zuzen ere, 10 euro ordaindu beharko da txapelketa parte hartzeko. Aurtengoa martxoaren 2an hasiko da. Eta, ohi bezala, 09:30ean hasiko dira partiduak, Udala Pilotalekuan.

Goiena Klubeko gaztetxoek hilabetea!

Goiena Klubeko etxeko gaztetxoek otsailean irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!



Patinetea

Arrasateko Loramendi Kirolak-ek emandako kaleko patinetea.

INTERSPORT
LORAMENDI



PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [Patinetea eta jokoak] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira

Telefonoz: 943 25 05 05

E-postaz: kluba@goiena.com

WhatsApp: KLUBA [Patinetea eta jokoak] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Denbora luzean lortu gabeko garaipena eskuratu zuen Bergarak etxean

- ▶ Jokin Balzategik sartu zuen gola bigarren zatian
- ▶ Bergarak penalti bat ere gelditu zuen partiduan

EMAITZA

BERGARA

1-0

REAL UNION

FITXA TEKNIKOAK

Bergara: Soto, Crespo, Arruti, Iñurrieta, Urrutia, Beitia, Ilzarbe (Hernandez, 71. min.), Aranburu (Alonso, 44. min.), Macho (Ibarluzea, 58. min.), Balzategi, Oregi.

Real Union: Capilla, Petriarte (Santxez, 76. min.), Urbietak (Zeberio, 82. min.), Gomez, Granada, Etxeberria, Martinez, Naranjo (Martin, 64. min.), Azpiroz (Goriz, 53. min.), Merlou (Turrillas, 71. min.), Alonso.

AMAIA TXINTXURRETA | BERGARA

Zapatuko partidua zenbatu gabe, Bergarak azken 20 partiduetan 10 berdinketa lortu ditu, eta azkenean, horrenbeste itxarotako garaipena eskuratzea lortu zuten mahoneroek zapatuan etxean.

Lehenengo zatian Bergara Real Union baino gehiago izan zen, nahiz eta atsedenaldira golik gabe iritsi. Bergara hasi zen partidua dominatzen eta beraiek izan ziren atakan hasi

zirenak eta aukera gehien izan zituztenak. Hala ere, baloia atean sartu ezinik ibili ziren. Lehenengo ordu laurdenean, Real Unioneke Iñigo Urbietak ia bere atean sartu zuen gola, baloia urruntzeko asmoz zebilela, eta azkenean kornerra eragin zuen, baina ez zen golik izan. 34. minutuan Bergarako Eloy Crespok zelai erditik kontrako ateraino eramane zuen baloia baina ez zuen lortu gola sartzea. 39. minutuan, berriz, aurkari sekulako aukera izan zuten gola sartzeko baina Bergarako atezain Jon Sotok ez zion utzi baloiari atean sartzen. Aukera gehiago ere izan ziren, baina arrisku handi gabekoak.

Bigarren zatian etorri zen gola
Bigarren zatia hasi eta pare bat minututara Jokin Balzategiren gola etorri zen; Markel Ilzarbek ezkerretik erdiraketa on bat jarri zion taldekideari, eta erremate polit batekin buruz sartu zuen gola Balzategik. Horren ostean, estu eta larri ibili ziren mahoneroak, eta esfortzua emaitza hori defendatzen jarri zuten. Horregatik, ahalegin txikiagoa egin zuten bigarren golaren bila joateko.

Lehenengo gol horren ostean, aurkari falta batetik baloia loratu eta bergararren atean sartu zuten, baina jokoz kanpo zeudelako balio gabetu egin zuen

gol hura epaileak. Geroago, Bergarak bigarren gola sartzeko aukera bikoitza ere izan zuen jokaldi bakarrean baina ez zuten atean sartzea lortu. 75. minutuan Bergarako Soto atezainak, gainera, penalti bat gelditzea ere lortu zuen.

Partidu ona jokatu zuten bergarrek, momentu batzuetan sufritzea ere tokatu zitzairen arren. Kostata, baina lortu zuten hiru puntuak eskuratzea.



Eloy Crespo Bergarako kapitainak jokaldi oso onak egin zituen zapatuko partiduan; argazki...



Jokaldi baten ostean, Crespo lurrean, baina baloia bergararren gidaritzapean mantentzea lortu zuten. | I.S.

OHOREZKO ERREGIONALA

Bi hilabete eta gero, etxean irabazi Aloñak

Sei gol egin zizkion Touring taldeari, eta hiru puntu garrantzitsu lortu zituen

L.K. | OÑATI

Hiru puntu garrantzitsu lortu zituen domekan Aloña Mendik; are gehiago, abenduaren 1az geroztik Azkoagainen irabazi barik zeudela kontuan hartuta. Sei gol oparitu zizkien Aloñak jarraitzaileei. Honakoak izan ziren golegileak: Unai Bikuña, Asier Ugarte (2), Unai Uribetxerria eta Ibai Moreno (2).

Joko eraginkorra

Partidua hasi aurretik, joan den domekan hil zen Tolosa taldeko jokalaririk Urtzi Gurrutxagaren izenean minutu bateko isilunea egin zuten. Segidan, partidua hasi zen.

Lehen zatian, joko ikusgarri egin gabe, oñatiarrek eragin-kortasun handia agertu zuten, eta arriskuz iritsi ziren bi jokal-

dietan gola sartu zuten; Unai Bikuña 12. minutuan egin zuen gola, eta Asier Ugartek bigarrena, 23. minutuan.

Touring taldekoek baloiaren kontrola izan, izan zuten, baina ez ziren gol aukerak sartzeko gai izan. Aloñakoek beste gol aukeraren bat izan bazuten ere, atsedenaldira 2-0 emaitzarekin joan ziren bi taldeak.

Gol festa

Bigarren zatiko lehen hamar minutuetan ere efektibitate bikaina erakutsi zuten oñatiarrek beste hiru gol sartuz, eta hortxe amaitu zen partidua. Erreñerriarrek nahi eta ezin aritu ziren. Bigarren zatiko lau golak honela etorri ziren: Unai Uribetxerriak egin zuen hirugarrena, 53. minutuan; Ibai Morenok, hurrengo biak, 55. eta 58. minutuetan; eta azkena, Asier Ugartek, 64. minutua zela.

Partidua poltsikoan zutenean, Aloñako bost ordezkok minutu batzuk jokatzeko aukera izan

EMAITZA

ALOÑA

6-0

TOURING

zuten: Josu Juaristik Aritz Garmendia ordezkatu zuen; Julen Astigarraga sartu zen Asier Ugarteren ordezkari; Jon Igarzabalek Endika Ruiz ordezkatu zuen; Gaizka Irizar Unai Uribetxerriaren partez irten zen; eta Mikel Urkia, Joseba Irizarren partez.

Partidu

28 | ESKOLA KIROLA | Beisbolean eta errugbian ibili ziren hainbat ume



ian, Real Unioneoak, bergararrari baloia kendu nahian. | IMANOL SORIANO

AITOR ARRATE | ENTRENATZAILEA

"Moralki eta sailkapenera begira asko lagunduko digu garaipenak"

Aitor Arrate entrenatzailea pozik zegoen bere mutilen lanarekin.

Zer moduz ikusi duzu taldea?

Ondo. Partidu polita izan da eta, zorionez, lortu dugu irabaztea; merezi genuen. Aspaldian berdinketa asko izan ditugu eta kosta egiten zitzaigun partiduak aurrera ateratzea. Oraingoan atezainak penaltia gelditu digu eta eraginkortasuna izan digu.



Gustura zaude egindako lanaz?

Bai. Aurten oraindik ez dugu partidurik galdu, baina irabaztean lortzen den konfiantza ez da berdinketekin lortzen den modukoa. Garaipenari esker, sailkapenean 2-3 postu igoko ditugu, eta moralki, batez ere, ea laguntzen digun hemendik eta urte amaierara arte ondo lehiatzeko. Garaipena guretzat oso garrantzitsua izan da.



ko une bat. | JA.

OHOREZKO ERREGIONALA

Kanpotik Aretxabaletak hiru puntuak lortu ditu eta Antzuolak bakarra eskuratu du

Aretxabaleta eta Hondarribiak 0-3 egin zuten, Antzuola eta Ostadarrek 1-1

A.T. | ARETXABALETA

Hondarribiaren aurkako partidua oso ondo hasi zuten aretxabaletarrek, izan ere, lehenengo minutuan egin zuten lehenengo gola; Julen Zaitegi izan zen golegilea. 15. minutuan bigarren gola sartu zuen Urtzi Lopezek eta lehenengo zatia nahiko ondo jokatzeko jarraitu zuten, nahiz eta, zati horretako azkeneko 10 minutuetan, intentsitatea jaitsi.

Bigarren zatian ere fin ibili ziren. Penalti bat huts egin zuen Aitor Perezek, baina gero berak sartu zuen partiduko hirugarren

gola, ia kanpo erditik. Eta azken hamar minutuetan, jokalaria bat gutxiagorekin egon ziren, Julen Arriaran kaleratu zuten-eta, baina ez zuten sufritu. Datorren astean derbia izango dute, Bergararen aurka.

Antzuola, berdinketarekin

Lehenengo zatian Ostadarrekoak antzuolarrak baino hobeto moldatu ziren eta markagailua 0-0 iritsi zen atsedenaldira. Ostadarrekoek hainbat aukera izan zituzten, baina ez zuten lortu baloia atean sartzea. Bigarren

zatian, Antzuola hobeto jokatzeko hasi zen eta 90. minutuan sartu zuen gola taldeko Josu Zubikaraik, buruarekin errematatuta. Aurkariaren gola partiduaren azken minutuan etorri zen, eta berdinketarekin konformatu behar izan zuten antzuolarrek.

Azkenaldian baja askorekin dabilta eta datorren asteburuan Aurreraren aurka jokatu duten partiduan hiru baja izango dituzte, izan ere, Josu Zubikaraik, Jon Iturbek eta Iñaki Agirrek bosgarren txartel horia jaso zuten zapatuko partiduan.

EMAKU. BIGARREN MAILA

Mondrak 0-8 galdu zuen zapatuan

Osasunaren aurka jokatu zuten Mondrako neskek eta atsedenaldira kontrako lau golekin joan behar izan ziren. Bigarren zatian beste lau gol jaso zituzten. Aurtengo partiduak gogorak izaten ari dira euredako.



IMANOL SORIANO

EMAKUMEZKOAK IGOERA

Arizmendik 3-1 irabazi zuen Urolaren kontra

Nahiko parekatuta joan zen partidua baina kontraerasoan aukera gehienak Arizmendikoek izan zituzten. 2-0 aurreratu ziren, gero etorri zen Urolakoen gola, baina azkenean 3-0 irabazi zuten. Ondorioz, lider daude.



IMANOL SORIANO

FUTBOLA

Jokoan nagusitu arren, ezin hiru puntuak etxera ekarri

M.A. | ARRASATE

3 eta 1 galdu zuen atzo Mondrak Legazpin, Ilintxaren kontra. Partiduko 90 minutuetan jokoan nagusitu bazen ere, ez zuen baloia arerioen atea sartzen asmatu eta izan zitekeena ezerezean gelditu zen.

Eroso hasi zuten arrasatearrek partidua. Zelaian nagusi, aise egin zituzten partiduko lehenengo 20 minutuak. Orduan etorri zen arerioaren lehena. Kontraeraso baten,

Ilintxak ez zuen barkatu eta bat eta hutsekoa ipini zuen markagailuan. Lehen zatia bukatzeaz zegoela, arbitroak penalti bat adierazi zuen Mondraren alde, eta arrasatearrek ez zuten hutsik egin. Hala, banakoarekin joan ziren atsedenera.

Bukaerara arte, eutsiz

Lasai atera ziren bigarrenean Mondrakoak. Partiduaren bila atera ziren, pentsatuz irabazteko

aukerak bazituztela. Eta izan zituzten aukerak, baina ezin asmatu: batean baloia zutoinean jo, bestean atezainak ozta-ozta gelditu... Azken bost minutuetan etorri zen Ilintxaren oldarraldia. Mondrako defentsaren huts baten ondoren, legazpiarrek 2 eta 1ekoa lortu zuten, eta 2 minutu falta zirela etorri zen arerioen hirugarrena. Datorren astean etxean jokatu du Mondrak, Urolaren kontra. Ea bada, orduan!

ESKUBALOIA

Gogor saiatu zen Soraluze BKE, baina kanpora joan ziren puntuak

Lesioek eta aurkarien defentsa gogorak eragina izan zuten markagailuan

A.A. ARANBURUZABALA | BERGARA

Partidu gogorra eta lehiatua izan zen atzo Soraluze BKE eta Laubide legazpiarren artekoa; horren erakusle, azken emaitza: 23-24.

Bergarakoen bajak, ezagun

Azken orduko bajak direla-eta, hasierako minutuetan Bergarakoak tratatu samar ibili ziren arren, itxura ona eman zuten lehenengo zatia eraman, eta markagailuan aurretik jarrita (13-14) joan ziren aldageletara. "Normalean hegalean jokatzen duten Mikel Plazaola eta Iñigo



Ruben Fuente atezainak fin defendatu zuen Bergarakoen atea. | J.A.

ESKUBALOIA

Ford Mugarrikoek ezin Leioatik punturik ekarri

A.A. | ARRASATE

Arrasatearren aurreikusten zuten moduan, Askartzakoek etxean irabaztea zaila izan zen eta, beraz, ezin izan zituzten punturik etxera ekarri. 26-24 emaitzarekin gailendu ziren bizkaitarrak.

Hasieratik izan zen partidu oso gogorra, Pablo Gartzia Ford Mugarri taldeko entrenatzailearen esanetan: "Eurek oso partidu polita egin zuten. Lehenengo zatian, uste dut gu izan ginela jaun eta jabe, 9-12ko emaitzarekin bukatu genuen; baina bigarren zatia, berriz, euren izan zen. Bigarrenaren hasieran egin genituen zortzi bat jaurtiketa gelditu egin zituen atezainak eta harrezkero beti atzetik joan ginen eta, azkenen, bi golengatik galdu genuen".

Datorren domekan etxean jokatuko dute Ford Mugarrikoek, Loiu Urduñeta taldearen aurka.

SASKIBALOIA

Eskoriatzako neskek 42-45 galdu zuten Atletico San Sebastianen aurkako partiduan

A.A. / A.T. | ESKORIATZA

Defentsan lan izugarria egin zuten Eskoriatzako neskek eta partiduaren lehen hiru laurdenak nahiko kontrolpean izan zituzten. Atsedendira 18-11 irabazten joan ziren baina horren ostean bi taldeen artean markagailuan zegoen tarte txikitzen joan zen. Partiduaren azken laurdena oso parekatua izan zen eta luzapenean bi taldeetako edozeinek irabaz zezakeen.

Irabazteko aukerak izan zituzten, defentsan oso fin ibili zirelako, baina hainbat hutsegite ere egin zituzten eta aurkarietako egoera erraztu zieten. Eskoriatzakoek 18 jaurtiketa libre huts egin zituzten; aurkarietako, ostera, bost bakarrik. Luzapenean ere beste sei jaurtiketa libre huts egin zituzten eta azkenean 42-45 galdu zuten. Zapora gazi-goza gelditu ziren eskoriatzarrak egubakoitzeko partiduaren ostean.



Eskoriatzako jokalaria, saskiratzeko ahaleginean. | IMANOL SORIANO

ESKUBALOIA

Galdu arren, taldearen jarrerarekin gustura

Ereintzaren aurkako norgehiagoka 20-22ko emaitzarekin amaituta ere, defentsan zein erasoan etxeok egindako lana goraiatu zuen Idurre Elorza entrenatzaileak. Zapatuko helburua taldearen ezkortasunari buelta ematea zuenez, helburua betetzat jo zuen.



IMANOL SORIANO

Iparragirre falta zirela-eta, aurretik min hartuta zeudelako, azkenaldian asko jokatu barik zeuden beste bik bete behar izan dituzte horien lekuak. Dani Sevillanok egindako paseekin lortu dugu emaitza parekatzea", azaldu zuen Josetxo Muniategi entrenatzaileak partiduaren amaieran.

Bestelakoa izan zen, baina, bigarren zatia, Muniategiren esanetan, etxeok joko tratatu izan zuena ezaugarri: "Defentsa aldatu egin dute legazpiarrek eta ez dugu jakin jokatzen. Azkeneko minutuetan bi golegatik galtzen genbiltzala kontraeraso baten bitartez partidu berdintzeko aukera bat izan dugu baina ez dugu gola egitea lortu".

Partiduko gakoak, atezainak

Emaitzan, atezainen lanek eragin handia izan zutela zioen Muniategi: "Biek jardun dute ondo,

eurena hobeto ibili bada ere, akats gutxien egin duen taldeak irabazi du".

Emaitzari dagokionez helburua bete ez zuten arren, partiduan egotea lortu zutelako konforme zen Muniategi.

Bosgarren porrota jarraian

Gabonak aurretik, bigarren postuan zeuden sailkapenean, lehenengo taldeetik 4 puntutara, hain zuten ere. Urte berriarekin, baina, ez dute partidurik irabazteko aukerarik izan; hori horrela, helburuak aldatu behar izan ditu Bergarako taldeak: "Lehen igogera fasera pasatzeko lehenengo hiru postuetan egoteko aukerak genituen; orain, berriz, konfiantza eta joko ona berreskuratzea dira ditugun lehentasunak. Zaila bada ere, datorren astean Urdulizen irabazteak asko lagunduko ligu".



Soraluce BKE eta MU taldeen arteko derbiaren une bat. | JOSETXO ARANTZABAL

SASKIBALOIA

Soraluce BKE taldeak erraz irabazi zion MUri derbia, bigarren laurdeneko abantailarekin

AMAI TXINTXURRETA | BERGARA

Oso partidu ona egin zuten Bergarakoek eta nahiko erraz irabazi zuten Arrasatekoen kontra jokatutako derbian. Bigarren laurdenean 15eko aldea hartu zuten eta ondorengo minutuak ere nahiko erraz egin zituzten bergararrek, izan ere, tarte hori mantendu ahal izan zuten markagailuan, arrisku handiegi barik.

Soraluce BKEkoek altuera handiagoko jokalariek dituzte eta oso ondo jokatu zuten piboteek, gainera. Arrasateko jokalariek, berriz, oso gazteak dira eta ez ziren atzokoan, bada, hain ondo moldatu. Azkenean 12 puntuko aldeaz bergararrak gailendu ziren eta markagailuan 62-50 zegoela amaitu zen Bergarako Labegariaietan jokatutako norgehiagoka.



ESKUBALOIA

JOSE FELIX DIAZ DE TUESTA

Arrasateko eskubaloiak, 35 urte

Arrasateko Eskubaloia Elkarteko jokari ohiak Leintz Gatzagan elkartu ziren, elkartean 35. urteurrena ospatzeko. 60 lagun batu ziren eta Soran jantzetan bazkaldu zuten elkarrekin. Tartean zegoen Joxean Aranburuzabala, aipatutako elkartean sortzaileetarikoa bat.



Ainhoa Delgado arrasatearra bigarren sailkatu zen. | IMANOL SORIANO

Urteko lehen proban, bikain

- ▶ Gimnasia erritmikoko Gipuzkoako txapelketa jokatu zen Bergaran; lehen fasea zen
- ▶ Arrasateko eta Bergarako gimnasta guztiek egingo dute 2. fasea; bietako puntuazioak batuko dizkiete

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Labegaraieta kiroldegian jokatu zuten zapatuan gimnasia erritmikoko Gipuzkoako txapelketa lehen fasea; urteko lehen hitzordu garrantzitsua gimnastendako. Bergarako eta Arrasateko taldeetako neskak primeran ibili ziren; azpimarratzekoa da Ainhoa Delgado arrasatearra 2. postua lortu zuela Senior B kategorian. Dena dela, zapatuko faseko sailkapena ez da behin betikoa; martxo bukaeran bigarren fasea jokatu dute eta bi saioretako puntuak batu ondoren jakingo da ze gimnasta sailkatzen diren Gipuzkoako finalerako.

Puntuatzeko sistema berria

Begarako Ariznoa elkarteak antolatuta jokatu zen zapatuan Gipuzkoako txapelketako lehen

fasea. Debagoienetik, Bergarako gimnastak eta Arrasateko Dragoi taldekoak ibili ziren.

Puntuatzeko sistema berria lehenengo aldiz erabiltzen zen zapatuan. Horrez gain, aurtengo lehenengo txapelketa izanda, gimnastendako, egutegia hasteko eta norbera nola dabilen ikusteko modua izan zen.

Bada, bailarako gimnasta guztiak sailkatu dira eta bi klubak "oso pozik" daude. "Hasteko modurik onena izan da", esaten du Dragoi taldeak.

Urduritasuna gainditu

Goizean, infantil, alebin eta kadeteek egin zituzten euren erakustaldiak, eta batez ere hor egon zen ikusle gehien. Arratsaldean, jubentilen eta seniorren txanda izan zen; lehenengo, taldekako

saiok egin zituzten, eta gero, banakakoak.

Begaratik, infantil, alebin eta jubentil B kategorietako taldeek jardun zuten, eta bakarka, Irati Gardokik (Infantila), Irene Azkargortak (Infantila), Arianna Burgosek (Kadete B) eta Marianna Nunesez (Kadete A).

Arrasateetik, Ane Fernandezek (Kadete B) eta Maialen Gallardok (Kadete B) jardun zuten goizean, eta arratsaldean, Eider Altubek (Jubentil B), Olatz Fernandezek (Senior B) eta Ainhoa Delgado (Senior B).

Momentu batzuetan urduritasuna nagusitu zen arren eta akats txiki batzuk egon ziren arren, bailarako gimnastek une horiek gainditzea eta epaileen aldetik puntuazio onak eskuratzea lortu zuten.



Desfilea egiten, Ariznoa taldeko alebin eta infantilak. | I.S.



Ikusle asko izan ziren, batez ere goizean. | I.S.



Begarako Arianna Burgos, zapatu goizean bere ariketa egiten. | I.S.



Eider Altube, mazekin; zapatu arratsaldean izan zen bere txanda. | I.S.

LIERNI ERRASTI ARIZNOA



"Pilotekin, bost lagunaren artean egin dugu emanaldia eta ondo irten zaigu. Asteazken hiru aldiz entrenatu gara. Gustatzen zait txapelketetan parte hartzea.

AIORA ETXEZARRETA ARIZNOA



"Hasieran, bi orduz entrenatu egin gara. Gero osoko bat egin dugu, eta dantza egitera irten gara. Ondo joan da. Bergarako taldea oso ondo ikusi dut".

NORA HEIS ARIZNOA



"Akats txikiren bat egin dugu, baina tira, ondo joan da, eta nahiko pozik nago gaurko txapelketarekin. Taldekoak urduri baina ondo ibili dira".

OLATZ FERNANDEZ ARRASATE DRAGOI



"Goizean taldekideak animatu ditugu, eta arratsaldean, mazoekin bakarkako ariketa egin dut. Urduri nengoen, baina gustura bukatu dut".

EIDER ALTUBE ARRASATE DRAGOI



"Orain 10 urte hasi nintzen gimnasia. Gaurkoan maila ona ikusi dut. Mazak eta uztaiak gustatzen zaizkit gehien; eta gaur, mazekin egin dut ariketa".

ESKOLA KIROLA

Errugbia eta beisbola, gaurko umeendako kirol aski ezagunak

Kirol horiek praktikatu dituzte asteburuan Bergaran, ehundik gora umek



Umeak, errugbian. | IMANOL SORIANO



Zapatu goizean, Agorrosinen, beisbolean. | IMANOL SORIANO

MIREN ARREGI | BERGARA

Denondako ezagunak diren kirolez aparte, gaurko gaztetxoek bestelakoak ere praktikatzen dituzte Eskola Kirolean. Asteburuan, esaterako, errugbian eta beisbolean aritu dira Bergarako, Antzuolako eta Elgetako LHko 3. eta 4. mailako ikasleak.

Egubakoitz arratsaldean, errugbian jokatu zuten San Martin Agirre, Mariaren Lagundia eta Aranzadi Ikastolako eta Elgeta eta Antzuolako eskoletako umek. Antzuolako umek beisbolean ere jokatu zuten, bi taldean banatuta. Zapatu goizean, beisboleko beste bi partidu egin zituzten Agorrosinen: lehenengoan, Aranzadi Ikastolakoak San Martinen aurka aritu ziren, eta bigarrenean, Mariaren Lagundi-ko ikasleak, Elgetaren aurka.

Eskola Kirola, jendetsua

Guztira, astean zehar, 1. mailatik 6. mailara, 400 umetik gora dabil-tza Eskola Kirolean Bergaran. Aste bukaeretan, aldiz, ez horrenbeste; Bergarakoak, Antzuolakoak eta Elgetakoak batuta, 150 gazte-txo inguru aritzen dira.



JOSETXO ARANTZABAL



FUTBOL ESKOLA

JOSETXO ARANTZABAL

Igande goiza Ibarra, futboleant

Eskola Kirola ekimenaren barruan, atzo, domeka, Aretxabaletako Ibarra futbol zelaia futbolari gaztetxoak bete zen. 2003an, 2004an eta 2005ean jaiotako umek osatutako Aretxabaletako eta Arrasateko taldeek elkarren kontrako partiduak jokatu zituzten. Guztira 19 talde aritu ziren norgehiagokan, goiz guztian zehar.

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK

Ostadar-Antzuola	1-1
Bergara-Real Union	1-0
Hondarribia-Aretxabaleta	0-3
Aloña Mendi-Touring	6-0

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Anaitasuna	41	21
2 Berio	40	20
3 Tolosa	38	20
4 Antzuola	31	21
5 Aurrera	31	19
6 Aretxabaleta	30	21
7 Ostadar	30	21
8 Real Union	28	20
9 Aloña Mendi	28	20
10 Bergara	28	21
11 Hondarribia	25	20
12 Beti Gazte	25	21
13 Hernani	24	20

14 Vasconia	22	20
15 Touring	21	20
16 Getariako	20	20
17 Zarautz	15	21
18 Lagun Onak	10	20

HURRENGO JARDUNALDIA

Aurrera-Antzuola
Vasconia-Getariakoa
Berio-Lagun Onak
Beti Gazte-Anaitasuna
Real Union-Tolosa
Aretxabaleta-Bergara
Zarautz-Hondarribia
Touring-Hernani
Aloña Mendi-Ostadar

EUSKAL LIGA, GAZTE GIZONEZKOAK

Aretxabaleta-Real Union	0-1
-------------------------	-----

ERREGIONAL PREFERENTEA

Ilintxa-Mondra	3-1
----------------	-----

EMAKUMEZKOAK, IGOERA

Arizmendi-Urola	3-1
-----------------	-----

EMAKUMEAK, 2. MAILA

Mondra-Osasuna	0-8
----------------	-----

GAZTEEN OHOREZKO MAILA

Mondra-Urola	3-0
Amaikak Bat-Bergara	2-1
Aloña Mendi-Lengokoak	2-2

KADETEEN OHOREZKO MAILA

Aretxabaleta-Bergara	1-4
Anaitasuna-Arrasate	2-1

EMAKUMEAK, GAZTEAK

Bergara-Lazkao	0-3
Aloña Mendi-Orioko	1-6

EMAKUMEAK, 1. KADETEAK

Arizmendi-Ilintxa	1-1
Soraluze-Aloña Mendi	0-3
Bergara-Anaitasuna	0-1

ESKUBALOIA

LEHEN NAZIONAL MAILA

Quiron Askartza-Ford Mugarri	26-24
------------------------------	-------

EUSKADIKOAK, GIZONAK

Soraluze BKE-Lau Bide	23-23
-----------------------	-------

EUSKADIKOAK, EMAKUMEAK

Aloña Mendi-Ereintza	20-22
----------------------	-------

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Eskoriatza-Laskorain	2-1
----------------------	-----

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Aretxabaleta-Euskalduna	4-4
-------------------------	-----

SASKIBALOIA

LEHEN NAZIONAL MAILA

CB Valle de Eques-MU	63-59
----------------------	-------

AUTONOMIKOA

Leioa-Natra Oñati	56-66
-------------------	-------

PROBINTZIA MAILA

Autob.Alustiza-Aloña Mendi	91-50
----------------------------	-------

Soraluze BKE-MU A	62-50
-------------------	-------

SENIOR EMAKUMEAK

Eskoriatza-Aletiko SnSn	42-45
-------------------------	-------

GURE KIROLA

GOIENA TELEBISTA | HARMAILATIK | ASTELEHENERO, 20:03, 23:56



Argider Isasti eta Iker Agirrebaltzategi | Aloñako Igoerako antolatzaileak

"Kresteriako zatia oso teknikoa da eta horrek xarma berezia emango dio Aloñako Igoerari"

- ▶ 22,6 kilometro izango ditu lasterketak, orain artekoak baino zazpi kilometro gehiago
- ▶ Hamargarren urteurrena ospatzeko, kilometro bertikala egingo dute maiatzaren 2an

MIREIA BIKUÑAX | OÑATI

Maiatzaren 4an jokatu da Aloñako Igoeraren hamargarren edizioa. Eta urtemuga borobila ospatzeko probako ibilbidea aldatzea erabaki dute antolatzaileek. Luzatu eta gogortu egin dute. Gainera, maiatzaren 2an kilometro bertikala egingo dute. Antolatzaile taldekoek buru-belarri dihardute ibilbidea neurtzen eta seinaleak ipintzen. Euretako birekin egin dugu berba.

Hamargarren urteurrenean, aldaketa garrantzitsuak ditu Aloñako Igoerak. Ibilbidearekin hasiko gara. Zergatik aldaketa bortitz hori?

Argider Isasti: Duela hamar urte Aloñako Igoera antolatzen hasi ginenean, oraingo honetan erabiliko dugun ibilbidearen antzekoa genuen buruan. Aloñako gurutzeraino igo eta handik Buetraitz aldera egitea, alegia.

Baina, hainbat kontu tarteko, Aloñara igo eta jaisteko ibilbidea zehaztu genuen. Urtez urtez ibilbidea aldatzeko aukerak aztertu izan ditugu, Oñati inguruetan badaude beste gune batzuk askoz ederragoak direla. Baina, ibilbide bera erabili dugu.

Seigarren alditik bageneukan buruan ibilbidea aldatzeko asmoa, baina hamargarrenerako uztea erabaki genuen. Urteurren borobila izateko, zerbait berezia egin gura genuen.

Azaldu egiguzue nolakoa izango den ibilbidea?

Iker Agirrebaltzategi: Aloñako gurutzerainoko zortzi kilometroak orain arteko berberak dira: plazatik hasita eta Urtiagaineraino igota. Aldaketa bigarren zatian dator. Gurutzeraino igo ostean Kresterian barrena sartuko dira korrikalariak: Buetraitz, Akaitz eta Harriurdin pasa, Eskistara jaitsi, Artzanburura igo eta handik Biozkornara jaitsi. Handik, Aloñaren magalaren beheko aldeetik, lehengo meatzarien bide zaharretik pasa, eta Urzulo eta Gorordo baserriaren arteko puntu batera helduko dira. Handik, Lezesarrira jaitsi eta plazako helmugara helduko dira. Guztira, 22,6 kilometro dira.

Zazpi kilometro gehiago dira. Horrek asko gogortzen du proba?

A.I.: Gogorragoa da. Zazpi kilometro gehiago dira eta gainera, sartu dugun zatia, oso teknikoa da. Orain arteko jaitsiera bortitza kendu eta beste ezaugarri batzuk dituen zatia sartu dugu.

Orain arteko ibilbidea oso aerobikoa zen. Aloñaraino pultsazio handiekin heltzen ziren eta jaitsiera oso bortitza bazuen



Argider Isasti eta Iker Agirrebaltzategi, Aloña tabernan, aurreko martitzenean. | MIREIA BIKUÑAX

ere, errekuaratzeko tartea zuten parte-hartzaileek. Aurtengoa oso bestelakoa da: Kresteriako zatia oso teknikoa da. Hiru kilometro horietan muskuluek astindu handia hartuko dute. Ostean, Eskistatik Artzanburura igo behar da, eta hor hankek sufritu egingo dute. Aurten, errazena, azken jaitsiera da.

Teknikoki Zegama-Aizkorri lasterketaren antza dauka, kilometraje erdiarekin.

Ibilbide aldaketa honek parte-hartzaileen profila aldatuko du?

I.A.: Guk korrikalari guztiak animatu gura ditugu. Baina, jakin badakigu, ibilbide aldaketarekin bat baino gehiagok ez duela izena emango. Orain arte, mendiko lasterketetako korrikalariak parte hartu izan dute. Baina, bazeuden batzuk, entrenamendu gutxiarekin, parte hartzen zutenak.

"Gehitu ditugun hiru kilometroetan muskuluek astindu itzela hartzen dute"

"Aurtengo ibilbidea selektiboagoa da. Ondo entrenatu beharrekoa"



Korrikalariak Aloñara heltzen, iazko igoeran. | JOSETXO ARANTZABAL

Aurtengo ibilbidea selektiboagoa da. Ondo entrenatu beharrekoa. Baina, mendian korrika egiten dutenendako ibilbide askoz politagoa dela badakigu, eta ziur disfrutatu egingo dutela. Askok gainera Zegama-Aizkorriako prestakuntza modura erabiliko dute. **Ikusleendako ere paraje ederrak.**

A.I.: Bai, horixe. Ibilbidea luzeagoa denez, ikusleak ere banatuago egingo dira. Orain arte, gehienak Aloña inguruan piltzen ziren. Aurten, Kresterian, Eskista eta Biozkorna inguruetan egingo dira ikusleak. **Noiz zabalduko duzue izena emateko epea?**

I.A.: Otsailaren 16an hasiko gara eta 300 lagunendako lekua

egongo da. Zehaztuko dugu non eman daitekeen izena. Kluben arteko Euskal Herriko kopa izango da Aloñako Igoera.

"Kilometro bertikalak 700 metroko desnibel positiboa izango du"

"Bi proben arteko zapatuan, askotariko ekintzak egingo ditugu"

Aloñako Igoera maiatzaren 4an izango da. Baina maiatzeko zubia aprobetxatu duzue, Euskal Herriko kilometro bertikalaren txapelketa antolatzeko. Maiatzaren 2an izango da.

A.I.: Bai, hori hamarkada ospatzeko buruan genuen beste proba da. Izenak dioen moduan 1.000 metroko desnibela izan behar du bospasei kilometrotan. Guk 700 metroko desnibel positiboa eta 2,7 kilometroko ibilbidea zehaztu dugu. Arantzazuko aparkalekuaren beheko aldean dagoen sakanean hasi, Bellotza baserrira doan bidean dagoen zubian, eta handik Buetraitzera igoko dira.

Erlojuaren kontrako proba izango da, eta korrikalariak 30 segundoko tartearekin irtengo dira. Hautagai nagusiei minutu bateko tartea emango diegu. Bellotzako zubitik Arantzazuko aparkalekurainoko igoera estua da lekua askotan eta aurreratzea oso zaila izango da.

150 lagunendako lekua egongo da. Irabazlea Euskal Herriko txapeliduna izango da. Era berean, Aloñako Igoera Euskal Herriko koparako puntuagarria izango da.

Eta beste ezaugarri bat izango du Oñatiko kilometro bertikalak: gauean izango da. Iluntzen den unean hasiko gara probarekin.

Maiatzeko zubia muturreko kirolaz beteko duzue orduan. Kilometro bertikalaren eta Aloñako Igoeraren artean dagoen zapatuak ze aurreikusten duzue?

I.A.: Desafio bat daukagu buruan. Korrikalari asko izango dira bi probak egingo dituztenak, eta aste bukaera pasa etorriko direnak. Hori horrela, zapatu goizean askotariko ekintzak egingo ditugu umeendako eta euren gurasoendako. Arratsalderako lotuko dugu *Txapelidunen Desafioa*. Aloñako Igoera egin beharko dute bikoteka: bizikletan, korrika... Hainbat aurpegi ezagunengana jo dugu desafiara gonbita egiteko, baina zehaztu barik dugu nortzuk etorriko diren.

Aurtengo berrikuntzek jarraipena izango dute?

A.I.: Kilometro bertikala hamargarren urteurrenaren harira egingo dugu. Aurrera begira baloratu beharko dugu ibilbide luzea edo motza egin. Aurten ostean elkartu eta egiten dugun balorazioaren arabera zehaztuko dugu 2015eko ibilbide zein izango den.



Hezitzailea umekin psikomotrizitate gela batean. | DINOSKOLA

Beristain: "Ume guztiek dute lekua psikomotrizitate gelan"

Manex Beristain adituak dio pertsona bere osotasunean ikusi behar dela

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Psikomotrizitate gela batean ume guztiek dute lekua. Halaxe jakinarazi gura izan du psikomotrizitate kontuetan aditua den Manex Beristain azpeitiarrak, eta zera gaineratu: "Hori baino garrantzitsuagoa, haur guztien adierazpen orok du lekua".

Psikomotrizitate gelan umeek jarrera ezberdinak har ditzakete eta guztiek dute lekua: "Asko egiten duen haurrak bezalaxe

gutxi egiten duenak, edo eraikitzen duen haurrak bezala apurtzen duenak. Jarrera horrek haurren izaera naturala onartzen lagunduko digu, eta une horretan, leku horretan, haurrak existitzeko duen modua ulertzeak gerturatu egingo gaitu berarengana". Eta haurrak bestearekin, aurrez aurre duenarekin, sortuko duen harremanak aurrera egiten lagunduko diola ere badio, "erru zamarik gabe".

Pertsona osotasunean onartu

Pertsona bere osotasunean ikusi behar dela dio Beristainek, "bere gaitasunekin, eta ez zailtasun bat, egiten ez duena". Hala, ume batek gogoa erakusten badu horri heldu behar zaiola dio, "ingurua egokituz eta bihotzak irekiz". Eta umearengan konfiantza izateko aldarrikatzen du azpeitiarrak.

Kasu praktiko baten bitartez eman ditu azalpenok Beristainek *Guraso.com* atarian.

Barau egiteak ez dakar inongo onurarik

M.A. | ARRASATE

Sarri esan izan da barau egiteak -pisua galtzeko eta toxinak kanporatzeko- onurak dakartzala, baina ez da hala inondik inora. Alderantziz, gaixotasunak areagotzen ditu eta elikadura ohitura txarrak harrarazi; eta gaztetxoek kasuan, elikadura arazo larriak sor ditzake, tartean bulimia eta anorexia. Halakorik ez gertatzeko helduek berebiziko garrantzia dute.

Helduak eredu

Elikadura eta dietetika elkarrekin Espainiako federazioak (FESNAD) dio barau egiteak ondorio larriak dakartzala: bihotzeko arazoak; diabetesa; minbizi mota ezberdinak; gibelko eta giltzurrunetako arazoak... Eta ohitura txarrak hartzea. Ume eta gazteen kasuan, gainera, larriagoa da kontua, elikadura eta energia behar handiak dituztelako.

Nerabezaroan garapen intelektual eta emozionalarekin batera gorputzaren garapena landu behar da, elikadurarekin bat eginik. Izan ere, gazteak ez dira konturatzen kontua ez dela barau egitea, ondo elikatzea baizik. Barau egiteak eta gaizki elikatzeak ondorio larriak dakartzkie: gehiegizko nekea, ahultasuna, kontzentrazio falta, hilerokoa galtzea emakumeetan... Eta hazte prozesua eta organoen garapen egokia atzeratzen ditu.

Hori horrela, umetan jasotako elikadura ohiturek -etxean nahiz ikastetxeko jangelan- izugarritzko garrantzia dute. Eta umeendako helduak direnez eredu, ekintzen bitartez erakutsi behar diete horiek ondo elikatzen. Izan ere, heldu horiek zelan elikatzen diren ikusita umeek zein ohitura izango dituzten etorkizunean antzeman daiteke.



Gaztetxoa patata poltsen aurrean. | LHSIMAGE

Hortzetako pasta erosterakoan fluor kontzentrazioa hartu behar da kontuan

L.Z./M.A. | ARRASATE

Orain dela 30 urte agertu ziren fluordun hortzetako pastak. Ordu-tik hona nabarmen jaitsi dira ahoko gaixotasunak eta txantxarrak, besteak beste. Gaixotasun horietarako prebentzio onena hortzak egunero garbitzea da, eta odontologoek esanetan fluorra duten pastak dira egokienak. Hortzen garbiketa heldu baten laguntzarekin egitea gomendatzen dute, gutxienez sei urte bete arte. Eta hortzak ondo garbitzearekin batera erabakigarria da dieta osasuntsua egitea.

Fluor kontzentrazioa

Fluor kontzentrazioak badu zeresana hortzen osasunean, eta odontopediatrek diote 500 ppm (milioiko parte) kontzentrazio-

tik gora izan behar duela eraginkorra izateko. Kontzentrazio horren maila egokia zein den erabakitzeke umearen adina hartzen da kontuan: 6 hilabete eta 2 urte artekoek, 500 ppm fluor kontzentrazioa erabiliko dute; 2 eta 6 urte artekoek, 1.000 eta 1.450 ppm kontzentrazioa artekoa; eta 6 urtetik gorakoek, 1.450 ppm kontzentrazioetik gorakoa. Gainera, egunean bi aldiz garbitzea gomendatzen dute.

Merkatuan marka aukera zabala dago, eta fluor kontzentrazioari begiratu behar zaio erosterakoan, batzuek eraginkorrak ez diren osagaiak dituztelako. Zaporeari dagokionez, osterak, hobe dela gozoki zaporerik ez izatea diote, garbitu baino gehiago irentsi egiten dutelako pasta umeek.

Garrantzitsua da guraso ez diren lagunak edukitzea eta horiekin tarteka elkartzea

Umeekin zerikusirik ez duten kontuen gainean jarduteko denbora hartu

L.Z./M.A. | ARRASATE

Eguneroko jarduna zeharo aldatzen da umeak izaterakoan, baita bikotekidearekin harreman ere. Horregatik, zenbait adituk diote garrantzitsua dela guraso ez diren lagunekin harreman mantentzea eta lantzea. Hala jakinarazi du *Entre padres* webguneko Lucia Vazquezek.

Aisialdirako denbora hartu

Betiko lagunekin izandako harreman bikotekidearekin hasteko aldatu egiten da, baina guraso izandakoan aldaketa hori erabatekoa da. Ardura berriak, zeregin gehiago... lehenengo alboratzen direnak, gehienetan,

lagunarteko hitzorduak dira. Garrantzitsua da erantzukizunez jardutea, baina era berean oso garrantzitsua da aisialdirako denbora hartzea: bikotekidearekin bakarrik egon, lagunekin irten, norberarendako denbora hartu... Izan ere, osasun emozionalerako ona da guraso izan aurretik gogoz egiten ziren jarduerak mantentzea, ahal den neurrian. Ezinezkoa dirudi, baina ez da hala.

Lagunekin gaztetu

Gurasoek erantzukizun handia daukate, eta horri era zuzenean aurre egin ezean frustrazio sortzailea izan daiteke. Horregatik

gomendagarria da guraso ez diren betiko lagun horiekin tarteka elkartzea: "Gaztetu egiten gaitu eta indarra ematen digu eguneroko zeregin eta betebeharrekin aurre egiteko", diote adituek.

Lagunarteko hitzordu horiek, gainera, aukera ematen dute umeekin edo familiarekin zerikusirik ez duten kontuen gainean jarduteko. Eta etxea eta lantokia ez den beste lekuren batean elkartzeak soilik, eragin benetan onuragarria izan dezake. Gainera, umea noizbehinka aitaita-amamekin edo zaintzaile batekin uzteak ez du inor guraso txar bihurtzen.



KULTURA



Tolosako Bide Ertzean hirukotea Elgetako Espaloian kontzertua emanten, egubakoitzean. | JOSETXO ARANTZABAL

KRONIKA

Bide ertzetik, musikaren aterpera

FITXA

MUSIKA

BIDE ERTZEAN

Estiloa: Pop-rocka.

Non: Elgetako Espaloian.

Eguna: Egubakoitza, hilak 7.

Iraupena: Orubete pasatxo.

AMAI TXINTXURRETA | ELGETA

Egubakoitza, 22:30. Espaloia nahiko ilun eta bertaratutakoak prest kontzertuarekin gozatzeko. Bide Ertzean taldekoak agertokira igo eta 77 izeneko azken diskoko lehen kantua jotzen hasi ziren:

Harriak hegan. Antzokiko argiak gehitu eta lehen kantua amaitzearekin bat hasi ziren bertaratutako txaloak.

Tolosako taldeak kantuen bitartez dituzten kezkek transmititu zituen. 77an Franco hil ondoren Euskal Herrian piztutako itxaropenari baina baita transizio hartan izan ziren biktimen oroimenari ere abestu zieten. Esaterako, euren azken laneko *Araneke iturrian* kantuan Ubeda anaien osaba Sebastian Goikoe-txea hil zuteneko ueña ekarri zuten gogora; oholtzaren atzeko aldean osabaren argazki bat proiektatu zuten orduan. Beraien

adinekoek garai hartan erregistroan izena gaztelaniaz izan behar zutela ere salatu zuten *Izena* kantuararekin eta atzean euren txikitako argazki bat ikusi ahal izan zen kantu horretan.

Egunen batean izeneko kantua, *Sustraiak zainen ordez*, *Zenbat aldiz...* horiek guztiak ere entzun ahal izan ziren, eta kantu bakoitzarekin erlazioz atutako irudiak proiektatzen zituzten, bitartean.

Atzera begira ere jarri ziren eta 2000. urteko *Grisa* diskoko kanturen batzuk ere jo zituen hirukoteak, besteak beste.

Bertaratu zen jendea pixkanaka-pixkanaka animatzen joan

zen eta taldeak ere abesti lasaigoetatik doinu gogorragoetara egin zuen kontzertuak aurrera egiten zuen heinean.

Espaloiak egin dituen 10 urteak ere eskertu zituzten eta "ea luza-roan musikariari aterpe izaten jarraitzen duen", azaldu zuen Imanol Ubeda taldekideak.

Amaitzeko, *Jaun-andreok*, *bihar arte* kantua eskaini zuten eta publikoak "beste bat" eskatu ostean, Bukaera taldeak bere garaian egindako Mikel Laboaren kantu baten moldaketa jo zuten. Orubete pasatxoko kontzertuaren ostean, Balerdi Balerdi taldeak hartu zuen agertokiko lekukoa.

Ordorikaren bertsio bat

Balerdi Balerdiok euren emanaldia egin ostean, Bide Ertzean taldeko Imanol Ubeda igo zen taula gainera eta guztiak batera, Iruñeko kontzertu batean egin zuten bezala, *Zeruan* izeneko kantua jo zuten. Bide Ertzeanekoak lagunak dituzte Balerdi Balerdiok eta garai batean euren *Zeruan* kantu horren bertsioa egin zuten tolosarrek eta horixe eskaini zuten guztiak batera Espaloian. Horren ostean, Ruper Ordorika oñatiarraren *Ene begiek* kantuararen bertsio bat ere jo zuten batera. Kontzertuak gaueko 01:30 inguruan amaitu ziren.



Petti eta Balerdi Balerdiok emanaldia batera egiten. | J.A.

Balerdi Balerdi, Pettirekin batera

Azkenekoz duela urte eta erdi izan ziren Balerdi Balerdi taldekoak Espaloian, eta egubakoitzean, Bide Ertzean ondoren, beraiek igo ziren oholtzara, baina hori bai, azkenekoz Espaloian egon zirenetik taldea hazi egin da; Pettik beraiekin batera jo zuen. Taldearen abesti zaharrak entzun ahal izan ziren, esaterako, *Bertan Goxo*, *Zauria*, *Beti Gazte* eta *Philosophia* kantua ere berreskuratu zuten Elgetako kontzertuan. Talde iruindarraren lehen abestia izan zen *Hautsaren dantza* ere jo zuten eta baita Pettiren pare bat abesti ere. Nabaria izan zen Balerdi Balerdi taldekoren eta Pettiren arteko *feeling-a* emanaldian.

Epaiketen kontrako aldarria, Bergarakoa

Puntako zortzi bertsolariren lanak zutik ipini zuen atzo Bergarako pilotalekua. Saio borobila osatu zuten, han batutako herritar mordoaren grina aseztu. Libre plataformak antolatuta, haien jarduna abian dauden Segiren eta Herriko Tabernen auzien kontrako aldarri bilakatu zen. Noski, bestelakorik ere izan zen.



KRONIKA

Aktore izan ala ez izan?

A.A. / I.G. | BERGARA

Ogibidez aktore diren eta aspaldi elkarren berririk ez duten bi lagunaren istorioa ekarri zuen Glu Glu antzerki taldeak egubakoitzean Zabalotegi aretoa: *Vamos a contar mentiras toda la vida*.

Lander Otaola eta Galder Perez dira oholtzara igo ziren aktoreak, eta horiek dira, era berean, antzez-tutako lanean zituzten izenak ere; izan ere, gidoian jasotako gertakari guztiak egiazkoak ez diren arren, kontakizun biografikotzat definienezake, neurri baten, Glu Gluren honako lana, bataren zein bestearen bizipenak islatzen ditu-eta.

Gezurrekin hasi...

Telebistan eta zineman lan egin ondoren, Landerrek antzerkia probatzea pentsatu du eta antzoki batera joan da. Sartu orduko, oholtzaren atzealdean egingo du Galderrekin topo. Galderrek laguna ikusi orduko, antzerkian lan egiteak dituen abantailak eta gauza onak gorai patuko dizkio. Batere umiltasunik gabe baina, lagunaren aurrean, aktore izarraren paperean guztiz sartuta, besteak beste, Miguel Delibesekin batera, *Cinco horas con Mario* lana idatzi zuela esango dio eta antzoki guztietan txalo zaparradak jasotzen dituela ere bai.

Antzokiko lagunak kontatutakoak entzunda, Lander ez da, bada, atzean geratuko, eta pantaila handian zein txikian izan

FITXA

ANTZERKIA

LANDER OTAOLA ETA GALDER PEREZ (GLU GLU ANTZERKI TALDEA)

Generoa: Komedia garratza.

Non: Zabalotegi aretoa (Bergara).

Eguna: Egubakoitza, otsailak 7.

Iraupena: Ordubete.

zuen puztutako arrakastaz jardungo dio: Ridley Scott zuzendari ezagunak egindako lan eskaintzari ezezkoa eman ziola kontatuko dio, besteak beste.

...eta egiekin bukatu

Baina elkarri gezurrak esaten hasitako bi lagunaren elkarriketak egiazko aitortzekin jarraitu zuen, hasierako azalferiak eta harropuzkeriak alboratuz, aktore izateak dakartzen zailtasunak azaltzeko topikoak oso muturrera eramanda. Aitorpenen artean, Galderrek aktore lanak uztekoan egon zela esan zion; eta Landerrek, berriz, aktore izatearen aldeko hainbat argumenturekin erantzun zion segituan, besteak beste, ea ze beste ogibiderek zeukan, heldua izan arren, haurra izateko aukera esanaz.

Biek ala biek maskara kendu zuten eta elkarri aitortu zioten

ez zeudela profesionalki unerik gozoenean: Landerrek *Gran Hermano* saioan sartzeko casting-egin berri zuen eta Galder, berriz, supermerkatu bateko *Saltxitxa-gizona* zen-eta.

Berbekin eta dantzekin

Aktoreek esanak dira lanaren oinarri, baina badira une musikalak ere, esandakoak indartzeko. Camelaren *Cuando zarpa el amor* kantua dantzatzeko dutenean da antzezlaneko puntetako bat, publikoaren barre handienak eragin zituen. Horrez gainera, tango bat ere dantzatu zuten.

Apenas zuten apainketarik taularen gainean. *Backstage*-a irudikatuz hainbat objektu: kaxa beltz bat, bi aulki, maleta bat eta pertxero bat arropekin. Erabili egiten dute azkeneko hori, soinean daukatena erantsi eta pertxeroko bata bana janzteko.



Lander Otaola eta Galder Perez, *Vamos a contar mentiras toda la vida* Bergaran antzeztzen. | IMANOL SORIANO

Ipintza Institutuko artistek 'Litus' lana erakutsi zuten

A. ARANBURUZABALA | BERGARA

Suizidioaren gaia ardatz nagusi duen Marta Buchaca idazle katalanaren *Litus* antzezlana ederto taularatu zuen Ipintza Institutuko antzerki taldeak egubakoitzean. Ordu eta 10 minututako emanaldian, taularen gainean zeuden

17-18 urteko zazpi aktoreek barreak eta negarrak eragin zituzten, aretoa bete zuten 100 ikusleak hunkituz.

Litusen eskutitza abiapuntu

Bere buruaz beste egin duen Litus musikariaren anaia Tonik (Jokin

Abio) jasotzen duen anaiaren eskutitza da gidoiaren abiapuntu. Eskutitz horretan, Litusek buruaz beste egiteko arrazoiak eta haren bizitzaren gaineko hausnarketa egiten dio anaiari. Tonik, baina, anaiak idatzitakoak balira bezala, beste hainbat eskutitz idatzi eta haren gertukoaren artean banatzen ditu. Beste hainbat pertsonaia sartuko dira orduan traman: Pepe (Unai Irizar), Marko (Mikel Mengual), Pablo (Xabi Gaztañaga), Laia (Karmele Uri-

besalgo), Su (Nere Zurro) eta Noa (Esther Cabo).

Horien guztien lanak zuzendu zituen ezkutuan zegoen Pello Lezertua Ipintzako literatura irakasleak: "Suizidioa munduan heriotza kopuru handienaren kausa dela-eta, egokia iruditu zitzaidan gazteekin lantzeko. Eskolako jardunean antzerki lanak egiteak gazteei beste esperientzia batzuk bizitzeko aukera ematen die eta oso ondo erantzuten dute", azaldu du irakasleak.

Bartzelonara hainbat bidai

Iban Moralesen *Sé de un lugar* lana antzeztu zuten orain bi urte eta, harrezkero, harremana dute eta birritan izan dira Bergarako irakaslea eta ikasleak Bartzelonan Moralesen lanen estreinaldietan. Moralesen bitartez ezagutu zuten gero Buchaca.

Ikusteko dago Bartzelonan lana erakusteko aukera izango duten; asmoa dute, baina, iaz egin zuten moduan, Arrasate eta Oñatiko institutuera eramateko.



Ipintza Institutuko artistek egindako *Litus* antzezlaren une bat. | IMANOL SORIANO



Litus laneko protagonistak bete-betean traman sartuta. | IMANOL SORIANO

Amaia Artola | Idazlea, psikologoa eta gerontologoa

"Dementia duten gaixoen zaintzaileei galdutako indarra emateko tresna da"

- ▶ 22. Amodiozko Gutun Lehiaketa irabazi du Artolak
- ▶ Ama gaixoak alaba-zaintzaileari idatzitakoa da

A. ARANBURUZABALA | BERGARA

Egubakoitzean banatuko dituzte Bergarako Amodiozko gutunen aurtengo sariak. Tolosan bizi den Amaia Artolak (Belauntza, 1984) eskuratuko ditu lehenengo sariari dagozkion 500 euroak.

Pozik? Espero zenuen irabaztea? Oso pozik, bai. Ez nuen espero irabaztea, amodiozko gutunen lehiaketa baita eta nirea, maitasunaz berba egiten duen arren, ez da bete-betean amodiozko gutun tipiko bat eta horregatik sorpresa handiagoa izan da.

Eta zer diote gertukoek?

Gertukoendako ere sorpresa izan da, ez nion inori esan-eta lehiaketara aurkezteko asmorik nuenik; eta gaia ere ezustekoa izan da eurentzat.

Zeintzuk dira protagonistak eta zer da, finean, kontatu duzuna?

Ama bat eta haren alaba dira protagonistak. Alzheimerre edo demencia bat diagnostikatu diote amari eta neurologoaren kontsultatik irtendakoan haren zaintzaile izango den alabari idazten dio eskutitza. Eskutitz horretan kontatzen dio, batetik, familia

horretan lehenago ere zaintzaileak izan direla, amonaren zaintzaileak, hain zuzen ere; eta orduan kontatzen dio neurri baten badakielako zaintza prozesu horren barruan zer gertatuko den eta gertatzen den hori guztia gaixotasunaren ondorio izango dela; baina hala ere, bere ama izaten jarraituko duela, sarritan amak alaba ezagutuko ez duen arren. Txikitako oroitzapen positiboak kontatzen dizkio eta horiek gogoan izateko eskatu. Nire ustez, garrantzitsuen indarra emateko eskutitza dela da; eta horregatik esaten dio amak alabari, behar duen guztietan eskura izango duela eskutitza, sarritan galtzen den indar hori berreskuratzeko. Pilak kargatzeko tresna lagungarri bat da nolabait eman nahi diona.

"Nire ofizioa eta afizioa lotzea lortu dut idatzi dudan eskutitzarekin"

Protagonista horiek badaukate izenik?

Ez, ez daukate izenik. Egia dena da guztiak emakumeak direla; gaur egun ere, zaintzailearen papera, gehienetan, emakumeei dagokien erakusle.

Zure ogibidearekin lotura zuzena dauka aukeratutako gaiak.

Psikologoa eta gerontologoa naiz eta zaintzaileekin egin dut azkenaldian lana; horiek bizi dituzten egoeren gainean idatzi gura nuen aspaldi, nire ofizioa eta idazteko afizioa lotuz horrela. Ipuin bat idazteko asmoa nuen eta hori eskutitz bat sartu gura nuen. Ez dakit ipuinarekin jarraituko dudan, baina hortxe dago jada eskutitza. Lehiaketara bidaltzea pentsatu nuen gero, eta begiratu, irabazi! Beraz, idatziaren zati horrekin, oso-oso pozik.

Beraz, eskutitza idatzi ondoren izan zenuen lehiaketaren berri?

Lehiaketa aurrez ezagutzen nuen, gutun batzuk irakurrita nituen. Iaz Bergarako Idazle Eskolan hasi nintzen eta han eskutitz bat idazteko ariketa proposatu zigitenean, nik lotu nuen ariketa



Amaia Artola, Belauntzako etxean, liburu bat eskuan duela. | MIRARI ARTOLA

hori eta aurrez buruan nituen ideia batzuk eta aurten gutuna bidaltzea animatu nintzen.

Gutun omenaldia dela diozu.

Zaintzaileei eskainitakoa da bate-tik, baina baita gaiarekin identifikatzen direnentzako ere.

"Komunikabideetara zaintzaileen gaia ekartzea da saririk handiena niretzat"

Garapen ona eta ondo idatzitako gutun "borobila, intimoa eta perfektua" dela dio epaimahaiak.

Perfektuarena gehiegitxo deritzot; baina, egia esan, poztasun handia eta idazten jarraitzeko indarra ematen didate kritika horiek.

Gutunik idazteko ohiturarik?

Gaur egun, apenas, beste bide batzuk daudelako; pena da, baina, jasotzea oso gustuko dut-eta.

Sariarekin zer egingo duzu?

Ospakizunen bat egingo dut; hala ere, bada dirua baino sari handiagoa: zaintzaileen gaia gizarteratzeko aitzakia eman duela.

Mbaye Ndiaye gogoan, kulturartekotasunari gorazarre egin zioten Soraluzeko antzokian

Senegaleko musika eta janariak uztartu zituen jaialdia egin zuten Ndank Ndank eta Soraluzeko elkartasun batzordeak egubakoitz iluntzean

A.A. | SORALUZE

Orain urtebete hil zen Mbaye Ndiaye senegaldarra, eta hura gogoratu zuten Soraluzeko elkar-

tasun batzordeak eta Ndank Ndank elkarteak egubakoitzean. Eibarren bizi zen kale-saltzailea oso eza-guna zen gure ibarrean.

Kontzertua eta afaria

Astean Ceutan hil ziren 13 pertsonak gogoratuz hasi zuten jaialdia. "Azken urtebetean Mbayeren

familiari laguntzeko hilero egiten dugun diru-bidalketaren berri eman genuen gero eta, jarraian, senegaldarren musika tradizionalaz gozatzeko aukera izan genuen bertaratu ginen hirurogeiren bat lagunek", azaldu du Egoitz Unamunok, Soraluzeko elkartasun batzordeko kideak.

Eneko Larrañaga zestoarrak zuzentzen duen Enekora taldeak *Kora Izpiak* izeneko diskoan jasotako hamarren bat kantu jo zituen,

Afrika eta Hego Ameriketako irudien proiektioekin ilustratuta. Ordubetik inguruko kontzertu hunkigarria izan zen, besteak beste, harparen estilokoa den kora instrumentu afrikar tradizionalaren doinuekin.

Emanaldiaren ondoren, antzokian bertan, arroza eta oilaskoa osagai dituen yassa izeneko jaki senegaldarra janez eman zioten amaiera afrikarrak eta euskaldunak elkartu zituen jaialdiari.



Mbaye Ndiaye senegaldarraren irudia, Soraluzeko antzokiko ekitaldiko pantailan. | AITZIBER MAYO



Yassa jaki senegaldarra dastatu zuten ekitaldira hurbildutakoek. | AITZIBER MAYO

GURE MUSIKA TALDEAK

HARDFLIP



Hardflip, Bergarako Laino skate parkean. | ALEX MOLANO

"Aurten taldeak sei urte betetzen ditu eta disko berezi bat egiteko gogoz gaude"

- 'Kopixau ta Rulau' diskoa kaleratu zuten 2013ko azaroan
- Goikorock lokaletan grabatu dituzte lau kantuak

JAGOBA DOMINGO | BERGARA

Kopixau ta Rulau. Hain zuzen, *Do it yourself* edo *Zuk zeuk egin* filosofiaren kaleratutako diskoa da. Hardflip bergararrek duela urtebete erabili zuten formula bera erabili dute. Euren kargu hartu dute disko bat ekoizteko lan guztia eta emaitza zuzenean grabatutako lau kantu izan dira. Mugu, Raul eta Kuinbo taldekin egon gara oraingoan. **Zuk zeuk egin** filosofiaren aldeko apustua egiten duzue; zergatik? Horrela lan eginda azkarrago egiten dugu dena. Ez dugu inoren

zain egon behar, ez kopien fabrikari... Bestela, askotan diskoa atzeratu egiten da eta kantuak zahartu egiten dira. Denbora epe motzean lan bat kaleratzeko aukera ona dela uste dugu. **Oraingoa, gainera, zuek grabatu duzue.**

[Mugu] Bai, nik egin dut. Uda inguruan lau pistako grabagailu bat erosi nuen eta horrekin grabatu dugu, hilabete batzuek probak egin genituen, eta azaro erdialdean grabatu genuen *Kopixau ta Rulau*. Bi egunean egin genuen grabazioa, lehenengo

egunean base musika grabatu genuen eta hurrengoan, ahotsak. Basea Bergarako Goikorock lokaletan grabatu genuen, zuzenean, eta ahotsa Antzuolako txabolan. Zuzenean grabatu dugula antzematen da; emaitza ez da disko *produzitu* bat bezala, ez dugu perfekzio hori bilatu. Gure kontzertuetatik gertuago dago eta xarma berezia du.

Lau kantu diskoan, baina batzuk esperoan geratu dira, ezta?

Bai, grabazioa egin genuenean, nibelak ondo hartu ondoren, kantuen zerrenda hartu eta guztiak

jo genituen. Bakoitzetik bi-hiru hartualdi egin genituen, eta, hain zuzen, ondo geratu zirenak dira diskoan daudenak.

Beraz, hurrengo noizko?

Gure asmoa da hilabete batzuk barru beste zerbait kaleratzea. Aurten sei urte betetzen ditu Hardflippek eta polita izango litza-teke disko bat egitea. Agian, azken bi disko laburretako kantuak, lehenengo diskoko batzuk berriz grabatu eta berriekin bilduma bat kaleratzea. Oraindik, baina, ideia besterik ez da. Horrez gain, Algortako Kasete tabernaren bilduma baten parte hartu behar dugu. Taberna itxita dago, baina Bird Trouble zigilukoek bilduma kaleratzeko lanean dabilta.

Zergatik disko motzekiko apustua?

Zerbait kaleratzeko era azkarra da; horretaz gainera, taldea dagoen momentua islatzen du. Urtebetean bi disko labur atera ditugu, hiru kantu lehenengoan eta lau hurrengoan, hain zuzen.

Nola banatu duzue *Kopixau ta Rulau*?

Hasieran, azaroan egin genituen kamisetak erosterakoan oparitzen genuen. Askotan, etxean kopiak egin eta kalean edo kontzertuetan banatzen ditugu. Adibidez, duela aste pare bat Gernikan diskoak jartzera joan nintzen eta hogeitau bat banatu nituen. Kontua da diskoa ahalik eta gehien zabaltzea, gaur egun jende gutxi erosten ditu diskoak; horregatik *kopixau ta rulau* filosofia hori; disko bat nahi izanez gero, badakizu...

ZERTZELADA



KOPIXAU TA RULAU

Estiloa: Hardcorea.

Egilea: Hardflip (Bergara, 2013).

Argitaletxea: Autoekoizpena.

Iraupena: 10:33 minutu.

'Zuk zeuk egizu' praktikaren lekukoa indarrean

Harrizkoa da Bergaran hardcorea landu izan duten Fly Shit eta Supercools taldeen eraginez eta bertako Gaztetxean sortutako dinamiken ondorioz DIY edo 'zuk zeuk egizu' praktika hain errotuta egotea. Hard Flip talde gazteak ere gauza bera egin du, lau kantuz osatutako azken lana lokalean grabatu, kopiak egin eta 'kopixau eta rulau' lelopean zabalduz. Euskarazko bi kantutan eta ingelesezko bakarrean punka lantzen dute, iluna, azkarra eta tarteka Oi!etik eta hardcoretik ere baduena. Eta gaztelaniazkoan, Puñetazo, Código Neurótico eta Vómitoren eraginak dituen kantua aurkitu dugu. Amorratua, erakitzeke gogoa duena eta estilotan irekia da taldea.

IKER BARANDIARAN

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. Aramaio etxebizitza salgai. Toki argitsua. 105 metro koadrokoa: hiru logela, egongela, sukaldia eta bi komun. Sukaldia eta komunak guztiz ekipatuta ditu. 18 metro koadroko garajea etxe azpian. Erabilgarriak diren 15 metro koadroko ganbara. Interesa izanez gero deitu zerbaki hauetara: 65272 83 60 edo 945 44 53 52

Arrasate. 60 metro koadroko etxebizitza salgai Musakolako Sailuente plazan. Hiru logela, bainugela, sukalde hornitua, egongela, despentsa eta trasteleku. Antolamendu ezin hobea, dena kanpoaldera begira eta oso argitsua. Egoera oso onean. 630 70 81 23 edo 646 26 34 04

Bergara. Erdigunean 104 metro koadroko etxebizitza salgai. Lau logela, bi bainugela, egongela-jangela handia eta sukaldia. Bizitzera sartzeko moduan. Dena kanpoaldera begira. Igoailua eta berokuntza-erkin. Ikusi eta gero, prezioa zeuk ipini. 626 65 99 94

Boi-Taüll (Lleida). Apartamentua salgai. Aukera oso ona. Etxe berria da eta estreinatzeke dago. Jantzi. Eskiatzeko pistatatik oso gertu eta Aiguatorres parke naturala bertan. 625 70 84 20

Oñati. Pisu berria salgai Kurtebidet kalean. 90 m². Trasteleku eta bi garajerako aukerarekin. 651 70 92 57

Oñati. Roke Azkunen 72 metroko etxebizitza salgai. Lau logela, sukaldia, egongela, bainugela. Dena kanpoaldera begira, balkoi batekin. Igoailua. Garajea aukeran. Interesa izanez gero deitu zerbaki hauetara 656 00 84 92

102. EROSI

Bi pisuren bila Arrasaten. Eraikin berean dauden bi pisu erosiak nituzke erdialdean. Prezio ekonomikoan. Interesa izanez gero deitu zerbaki hauetara 675 70 24 17

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Etxebizitza ematen da errentan Araba libildean. Hiru logela, egongela eta komuna. Jantzi. 650 06 00 57 edo 650 00 86 58

Baserrietxea Eskoriatzako Mazmela auzoan. 165 metro koadro. Guztiz berritua. Sarrera, hiru logela, sukalde hornitua, egongela, despentsa, bi bainugela guztiz jantzi, trasteleku, kotxearentzat aterpea, baratza eta lursail gehiago erabiltzeko aukera. Idatzi mezu bat idiaz@ikerlan.es helbidera edo deitu 680 33 40 76 edo 638 86 82 50 telefono zerbakieta.

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan Bolun. Hiru logela eta bi komuneko. Guztiz jantzia. Berritua eta bizitzera sartzeko moduan. Berokuntzarekin. Ana. Interesa izanez gero deitu zerbaki hauetara: 629 03 71 35

Bergara. Gela bakarreko etxebizitza jantzia errentan ematen da Madura kalean. Berehala bizitzera sartzeko moduan. Berokuntzarekin. Ana. Interesa izanez gero deitu zerbaki hauetara 943 76 48 54 edo 680 33 36 36

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Behoko solairuan edota igogailua duen etxebizitza hartuko gure errentan. Prezio ekonomikoan. 617 98 88 76

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan Arrasate erdialdean. Interesa izanez gero deitu zerbaki honetara: 661 97 14 76

Arrasate. Logela bateko edo bi logelako etxebizitza hartuko nuke errentan hilabete baterako, denbora gehiago luzatzeko aukerarekin. Interesa izanez gero idatzi mezu bat laguntzen@gmail.com helbidera.

Baserría. Debagoienan baserri edo lursaila duen etxe bat hartuko gure errentan. Bertakoak gara eta etxea eta lurak zainduko genituzke alokairu merke batean. Bikote arduratsua gara eta lanean gaude. 400 euroko alokairua ordainduko gure. 675 61 09 77 edo 606 74 42 37

Bergara. Gutxienez bi gelako etxebizitza hartuko nuke errentan. Mila esker. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 602 03 33 56

Bergara. 2-3 logelako etxebizitza errentan hartu nahi dut. 631 36 17 62

Bergara. Bergaran etxebizitza bat errentan hartuko nuke pertsona batendako. Berdin zait gela bat edo biko bada. Sukaldia eta egongela batera baditu, hobe. Interesa izanez gero deitu telefono zerbaki honetara: 661 07 10 99

Bergara. Hiru pertsonaz osatutako familia batek etxe bat hartuko luke errentan Bergaran. Interesa izanez gero deitu telefono zerbaki honetara: 630 99 11 85

Bergara. Neska euskalduna etxebizitza bila, errentan. Niretzako bakarrik da. Etxe txikia eta prezio egokian. Eskerrik asko. 680 35 26 00

Debagoiena. 2-3 logelako etxea alokatuko nuke. 500 euro inguru ordaintzeko prest nago. 669 30 16 89

Pisu bila Oñatin. Etxebizitza hartuko nuke errentan, 3 logeladuna. Eskerrik asko. Telefonoa: 652 70 35 29

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Pertsona bat behar dut etxebizitza osatzeko San Josepen. Garbia eta txukuna izatea beharrezkoa da. 628 85 42 06

Arrasate. Uribe auzoan. Bi pertsona gaude eta hirugarren baten bila gabilta. Pisu handia, berokuntza, bi komunekin eta etxetresna guztiak. Interesa izanez gero deitu zerbaki honetara: 657 72 51 65

Arrasaten. 200 euroren truke logela ematen da errentan Arrasaten. 632 29 77 31

Debagoiena. Logelabehar dut errentan, kontratuarekin eta bertan errolda emateko aukerarekin. 671 70 30 79

Logela ematen da errentan. Pertsona bat behar dut etxebizitza osatzeko. Garbia eta txukuna izatea beharrezkoa da. Espazio komun erabiltzeko aukerarekin. 634 81 94 79

Oñati. Bi logela ematen dira errentan duplex berri bat osatzeko. Plazatik gertu. Wifi konezioarekin. 656 74 29 49

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00 arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizun.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu. Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK 101. Saldu 102. Erosi 103. Errentan eman 104. Errentan hartu 105. Etxeak osatu 106. Bestelakoak	2. GARAJEAK 201. Saldu 202. Erosi 203. Errentan eman 204. Errentan hartu 205. Bestelakoak	4. LANA 401. Eskaintzak 402. Eskaerak 403. Bestelakoak	6. MOTORRA 601. Saldu 602. Erosi 603. Alokatu 603. Kopondu 604. Bestelakoak	8. DENETARIK 801. Saldu 802. Erosi 803. Eman 804. Hartu 805. Trukatu 806. Galdu 807. Aurkitu 808. Bestelakoak	9. HARREMANAK 901. Agurrak 902. Harremanak 903. Deiak 904. Bestelakoak
3. LOKALAK 301. Saldu 302. Erosi 303. Errentan eman 304. Errentan hartu 305. Bestelakoak	5. IRAKASKUNTZA 501. Jaso 502. Eman 503. Bestelakoak	7. ANIMALIAK 701. Saldu 702. Erosi 703. Eman 704. Bestelakoak	10. RELAX		

Bergara. Bi plazako garaje Bolun eta plaza bakarreko garajea Ibargarain. Itxiak. 665 73 98 32

3. LOKALAK

304. ERRENTAN HARTU

Eskoriatza edo Aretxabaleta. 70 metro koadroko lokal bat bilatzen ari gara, tximiniaduna, tailer bat montatzeko. Idatzi mezu bat lajaborneriadelaalmen-dra@gmail.com helbidera edo deitu: 690 12 48 51 edo 945 10 09 54.

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Emakume bat behar da bost hilabeteko umea orduka zaintzeko. Deitu 606 01 18 32 telefono zerbaki honetara.

402. ESKAERAK

Arrasate edo Bergara. Neska arduratsua egunka zein orduka lan egiteko gertu etxeko lanak egiten zein taberna, elkar-tea, atari eta abarren garbitasunean. 625 86 99 51

Arrasate. Emakume euskalduna goizetan plantxa eta etxeko lanak egiteko gertu. 699 54 17 27

Arrasate. Emakumea gertu umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, nagusiak zaintzeko zein ospitalean gauak egiteko. 943 25 05 72 edo 658 70 56 94

Arrasate. Emakumea nagusiak zaintzeko gertu. 672 98 20 91

Arrasate. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten edo orduka. Garbitasun lanak ere egingo nituzke eta baita umeak zaindu ere. Astelehenean ostiralera. 682 31 97 37 edo 603 22 53 66

Arrasate. Neska euskalduna gertu goizetan umeak zein nagusiak zaintzeko. 686 80 15 38

Bergara. Adin ertaineko emakumea, informea dituen, goizetan umeak eta nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko gertu. 610 34 97 88

Bergara. Haur Hezkuntzako graduko ikasketak dituen neska euskalduna umeak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. 615 76 29 25

Bergara. Neska nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko gertu. Formazioa daukat. 943 08 14 33

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientziaduna, etxeko lan edo zainketarako. Nahiz heldu edo haur. Gidabaimena daukat. Telefonoa: 680 87 38 66

Debagoiena eta Debabarrena. Emakumea gertu arratsaldetan ume eta nagusiak zaintzeko. 943 75 20 98 edo 620 77 30 09

Debagoiena. Emakume arduratsua, oinarriko sukaldaritzara eta geriatzia ikasketaduna, nagusiak zaindu zein edozelako garbitasun lanak egiteko gertu. 615 06 28 04

Debagoiena. Esperientziadun emakumea nagusiak eta umeak zaintzen eta garbitasunean lan egiteko gertu, egunez. Erreferentziak ditut, baita etxeko lanak egiten ere. Deitu telefono zerbaki honetara: 631 06 51 28

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaintzeko orduka, baita umeak ere; garbitasun lanak ere egingo nituzke: atarteak eta abar. 639 02 00 81

Debagoiena. Emakumea lan bila. Esperientzia daukat umeak zaintzen, denetarik garbitasunak egiten, tailerlean, jate txetan eta abar. 943 79 96 25 edo 647 10 58 72

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu. Eskarmentua daukat nagusiak eta umeak zaintzen. 673 78 08 99 edo 698 39 83 62

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu: nagusiak zaintzen zein edozelako garbitasun lanetan. Esperientzia daukat eta ordutegia adosteko gertu nago. Autoa daukat. 618 10 37 50

Debagoiena. Esperientziadun mutil arduratsua nagusiak zaintzeko gertu, egunez. Ospital zein egurtzan ere lan egingo nuke orduka eta asteburuetan. 685 42 72 80

Debagoiena. Gizona gertu etxean lan egiteko, nagusiak zaintzeko edo sukaldian laguntzeko. 658 74 94 63

Debagoiena. Neska lanerako gertu: sukalde laguntzaile, pertsonen zaintza, garbitasunean eta abar. Autoa daukat. Eskoriatza bizi naiz baina Debagoiena guztian lan egingo nuke. 636 11 23 40

Debagoiena. Klinika laguntzaile gertu nagusiak zaintzeko, egunez edo orduka. 602 82 14 83

Debagoiena. Lan bila nabil. Umeak edo nagusiak zainduko nituzke, orduka edo etxean bertan bizi izanda. Garbitasun lanerako ere gertu nago, tabernak garbitzeko eta abar. 636 41 98 14

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko, baita baserrietan ere. Esperientzia handia dut pertsonen zaintza. Sukaldaritzan ere badakit. 603 14 59 17

Debagoiena. Emakume euskalduna lan egiteko gertu. 606 50 25 67

Debagoiena. Mutila prest edozein lan mota egiteko. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 610 12 49 64

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko, orduka garbiketarako egiteko, zein nagusiak lagundu edo pasean ateratzeko gertu. 695 73 87 95

Debagoiena. Neska euskalduna nagusi edo umeak zaintzen zein etxe eta bulegoak garbitzen lan egiteko gertu. Baita ospitalean gauek egiteko ere. Esperientzia eta informea daukat. Autoa ere bai. Erabateko prestutasuna. 671 35 22 60

Debagoiena. Neska gertu lanerako: tabernan, sukaldian, umeak zaintzen, baserriak garbitzen eta abar. Etxean bertan bizizaten zein bestela. Gidabaimena eta autoa daukat. 697 20 00 86

Debagoiena. Neska lanerako gertu: furgoneta gidari, denetarik garbiketarako, zerbitzari eta abar. Auto eta kamioiak gidatzeko baimena daukat eta baita autoa ere. 696 32 13 69

Debagoiena. Orduka lan egingo nuke etxeko lanak egiten edota nagusiak zaintzen. Esperientziaduna naiz eta erreferentziak zein legezko paperak daukat. 638 93 11 48

Klinika laguntzailea. 20 urteko esperientzia duen klinika laguntzaileak bere burua eskaintzen du pertsonak zaintzeko, bai etxean bai ospitalean, egunez edo gauzez. 609 98 02 52 edo 943 79 77 44

Lan ezberdinak. Lan ezberdinetan lagun zaitzak: iturgin lanak, margo lanak, garbiketa lanak, mudantza eta abar. Aurretik ibilia naiz mota horietako lanak egiten. 631 29 77 31

Neska euskalduna umeak zaintzeko gertu. 24 urteko neska euskalduna haurrak zaintzeko edota hezkuntza errefortzua emateko prest. Pedagogian lizentziatua eta haurrekin esperientzia handia. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 669 88 49 55

Oñatiko. gaztea, 25 urtekoa, gertu baserriko lanerako eta mantenimenduko lanak egiteko. 662 50 73 22

Zaintza lanak. Debagoienan pertsona helduak zainduko nituzke, etxean edota ospitalean. Garbiketalaran ere egin ditzaket. 615 75 98 66

Zaintza lanak. Emakumea gertu gauzez zaintza lanak egiteko, ospitalean edo bestela, baita orduka ere. Geriatria titulua daukat eta baita autoa ere. Debagoienetik kanpo joateko arazo barik. 600 00 51 60

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. First titulua ateratzen laguntzeko irakaslea behar da. 617 80 87 85

Klase partikularretako irakasle bila. Bigarren batxilergoko biologia eta kimika irakasleak klaseak jasotzeko irakasle bila. Deitu 685 77 68 84 telefonora.

6. MOTORRA

602. EROSI

Enduro motorra. Bigarren eskuko Enduroko motorra erosi nuke. Deitu telefono zerbaki honetara: 618 76 34 40

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Txakurra oparitu. Baserri batean 5 urteko txakurra oparitu gura dute. Etxeko zaindaria da. 20:00etatik aurrera deitu. 677 78 37 72

Txakurra oparitu. Setter Vitoron arrazako txakurra oparitu gura dut, ezin dudalako behar bezala zaindu. Hiru koloretakoa. Arra. Urtebete du. Kontakua, Javier. 695 75 52 70

704. BESTELAKOAK

Perikitoa galdu Aretxabaletan. Aretxabaleta Iturrizar plaza inguruan perikito urdin bat galdu zen urtarillaren 7an. Norbaitek ikusi edo hartu badu, dei dezala mesedez zerbaki honetara: 680 68 22 93 edo aine-reca@gmail.com

8. DENETARIK

801. SALDU

Römer etxeko Safefix plus TT kotzeko umeen aulkia. Salgai daude 9-18 kilo birtarke Isofix sistemako (1 taldea) bi aulkia. Aukera paregabea bizikiak dituen bikoteentzat. Egoera ezin hobean daude. Banaka ere saltzen ditugu. 609 97 74 33

802. EROSI

Bogaboo Beerako patinetea. Bogaboo Beerako bigarren eskuko patinetea erosi nuke. 627 72 35 82

Tableta erosi nuke. 656 75 76 98

803. EMAN

Super Nannyren liburuak. ematen dira opari. CDarekin. Seilburu dira eta berri-berriadaude. Bergaran. 637 52 89 83

804. HARTU

Bizikletak. Erabiltzen ez dituzun edo botatzeko daukazun bizikletak jasoko nituzke. Berdin da zein egoeratan dauden. Bila joango nintzateke. Iñaki. 699 06 23 95

805. TRUKATU

Korrika egiteko zinta. gimnasia egiteko beste aparatua bategatik aldatuko nuke. 615 79 51 89

806. GALDU

Ahoko zerula. Ahoko zerula galdu nuen urtarillaren 23an, egunez, ilunkaran. Arrasateko Maialako biribilgune inguruan galdu nuen. Aurkitu baduzu, eskertuko nuke zerbaki honetara deitza: 943 71 46 50

808. BESTELAKOAK

Oñatitik sagardotegirako autobusa. Otsailaren 22an sagardotegira goaz eta autobusa elkarbanatzeko beste koadrila baten bila gabilta. 666 21 73 48

9. HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Hizkuntza trukea. Euskara eta espainiera ikasiko nituzke eta nik ingelesa edota urdua irakats nezake. 632 65 54 84

Informatika-ingelesa. Informatika eta sare-sozilen erabilera lagunduko didan norbaitek behar dut. Trukean ingeleseko eskolak emango nizkieke. 637 52 89 83

Txantxaz josi da sarea Facebook-en filma dela-eta

- Urteurren opari gisa film pertsonalizatuak egin ditu Facebook-ek
- Ausazko irudi aukeraketak erabiltzaileen kexuak eragin ditu sarean

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Bete berri dituzten hamar urteak ospatzeko Facebook-en erabiltzaileei film berezi bat egiteko aukera eman zaie. Azken 10 urteetako argazkiak hartuta, erabiltzaileak aukera izan du bere film pertsonalizatua osatu eta bere


horman partekatzeko. Aurreko martitzenean martxan jarri eta poliki-poliki milaka izan dira egin diren bideoak. Asko, ordea, kexatu egin dira Facebook-ek ausaz aukeratu dituelako film berezi horretan agertzen diren irudiak eta bai Facebook bera

zein Twitter, kexu, txantxa eta isekaz josi da film horren egokitasun ezarengatik. Izan ere, sarri pasatako harremanak ala irudi ez oso mesedegarriak erakusten ziren.

Erantzun azkarra

Honen aurrean, Facebook-etik iragarri berri dute arazo hori konpontzeko edizio tresna bat ipiniko dutela aurki eskuragarri. Sistemak argazkiak ausaz aukeratzeko jarraituko badu ere, erabiltzaileak multzotik nahi ez dituenak kendu ahal izango ditu.

Erabiltzaile askok ez dute, baina, Facebook-en ekimen bitxi honi umorez erantzuteko aukera galtzen utzi. Batetik, argazkien aukeraketak berak eragin dituen egoera deserosoengatik eta, bestetik, baita ere, hormak erabiltzaileen filmez bete direlako. *Meme* ezagunak berehala zabaldu dira sarean. Horien bilduma hemen jaso dute: ttiki.com/60786.



Satya Nadella. | HDIMAGES

Satya Nadella indiarra izango da Microsoft-en buru berria

J.B. | ARRASATE

Bill Gatesek kargua lagako eta Satya Nadella izango da konpainiaren zuzendari nagusi ala CEO berria. Steve Ballmerrek alde egin eta gero, erabatekoa da belaunaldi aldaketa Microsoft-en. Gates, berriz, aholkulari teknikoa izango da.


Luzaroan enpresan

Etxe barruko gizona da Nadella, lainoarekin loturako berrikuntzen arduradun nagusia izan dena eta enpresan gorako bidea, hain zuzen, Ballmerren eskutik egin duena. Indiarra jaiotzez, 22 urte daramatza Microsoft-entzat lanean. 2011 urtean har-

tu zuen enpresa barruko lehen zuzendaritza karguetako bat, enpresendako zerbitzu eta teknologia unitatearen arduradun bezala.

Profil teknikoa

Adituek Nadellaren profil teknikoa nabarmendu dute, berrikuntzan eta produktu eta zerbitzuen hobekuntzan espezializatua. Zentzu horretan, baliteke Nadellen gidaritza berriak Microsoft-en norabide aldaketa bat ekartzea. Ballmerrena fokatzeko komertziala izan da azken urteetan eta alor garrantzitsuetan asmatu ezinik ibili da enpresa.



Filmaren promozio irudietako bat. | FACEBOOK

Munduko ordenagailuen %30ek oraindik Windows XP darabilte

J.B. | ARRASATE

PCen merkatua Windows 8arekin berpiztuko zelako aurreikuspenek huts egiten dute, datuen arabera.

Windows-en Vista bertsioarekin egindako aldaketek erabiltzaile asko bertsioz aldatzera ala eguneraketa gehiago ukatzera bultzatu ditu. Web Applications-ek emandako datuak dira eta kolokan jartzen dute sistema eragilerik erabiltzenaren egoera. Duela 13 urte kaleratu zenetik eta jada Microsoft-en zerrenda ofizialetik kanpo, munduko ordenagailuen %29,23ak erabiltzen du Windows

XP. Windows 7, egungoaren aurreko bertsioa da mundu mailan erabiliena, %47,49, eta 8-a, berriena, soilik ordenagailuen %6,63ak du instalatuta.

Erasoen aurrean ahul

Esan moduan, Microsoft-ek jada ez du XP bertsioa erabiltzen eta segurtasun ala hobetze eguneraketarik ez du banatzen iazko apiriletik. Hala ere, munduko ordenagailuen laurdenak baino gehiago dauka sistema eragile hori eta, datuak eskuan, eguneraketei uko egiten zaie, edozelako birus, *malware* ala kutsatzerako zabalik lagaz.

Twitter-ek agindutako web bertsioko diseinuaren aldaketak gauzatu ditu guztiz

J.B. | ARRASATE

Diseinu aldaketarekin, web bertsioak mugikorretarako bertsioen antz handiagoa du orain. Horrekin batera, pertsonalizatzeko aukerak ere handiagoak dira aurrerantzean.

Pertsonalizazioa

Erabiltzaileek diseinu aukera gehiago dituzte Twitter-en disei-

nu berriarekin. Horrela, esteken kolorea, aldaketa estetikoak eta beste hainbat xehetasun ere erabiltzailearen gustuen arabera alda daitezke.

Urtarrilean eman zuen aldaketan berri Twitter-ek eta progresiboki, erabiltzaile guztiengana zabaldu da. Astelehenetik profil guztiak daude honezkero aldatuta.



Telegram aplikazioaren pantaila-irudia. | ALTI040

Segurtasuna promes eginda, Telegram hasi da bidea egiten

J.B. | ARRASATE

Telegram astiro-astiro baina motibo sendoekin bidea egiten dabilen mezularitza aplikazio geroago eta ezagunagoa da. Kode librekoa, euskarara itzulia, multiplataforma eta zorrozki segurua dela diote garatzaile eta adituek. Doan eskura daiteke, jada, plataforma gehienentzako.

Zifratzea eta suntsipena

Haien herrialdean oso ezaguna den sare sozial baten sortzaile izan ziren errusiar dirudun biren egitasmoa da Telegram eta, azaltzen dutenez, euren komunikazioen sekretutasunaz arduratuta sortu zuten aplikazioa, hasiera

baten. Pribatutasun hori oinarri, kode libreko aplikazio multiplataforma sortu zuten eta eskuragarri jarri, doan. Gainerako mezularitza aplikazioekin duen desberdintasuna, mezuen zifratze hertsiki batez gain, mezuak euren kabuz deusezten direla da. Hala, erabiltzaileek txat sekretuei ekin diezaiekete eta, behin elkarrizketa utzitakoan, solasaldi osoa ezabatu egiten dela agintzen dute. Mahaigaineko probatarako bertsioak ere hasi dira azaleratzen, kode irekiari esker. Izan ere, APIa publikoa da, kode irekian, eta garapenak egiteko gonbidapena luzatzen diete sortzaileek garatzaile guztiei.

Firefox-en 27. bertsioa eskuragarri dago

J.B. | ARRASATE

Firefox nabigatzailearen bertsio berria, 27garrena, eskuragarri dago eguneratze automatikoen bidez. Oraingoa ez da mugarriz izango den eguneraketa horietako bat baina, hala ere, segurtasunari dagokionez, hobekuntzak dakartza eta txat eta jakinarazpenen kudeaketan ere sakondu da, zerbitzua hobetuz.

TLS 1.2. delako euskarriak dakartza erabileran aldaketa handienak. SSL segurtasun protokolo kriptografikoaren ondorengoa da euskarri hori. Zerbitzariaren eta erabiltzailearen arteko lotura modu seguruagoan egiten du protokolo berriak. Zerbitzari guztiek oraindik ez diote eusten seguruena den modalitate horri eta, horregatik, ahal den kasutan erabiliko da konexio berria.

Beste hobekuntza nabarmena API soziala deritzon horri dagokiona da, esan moduan. Aurrerantzean txat eta zerbitzu sozial bat baino gehiago aldi berean exekutatu ahalgo dira.

TELE-BEGI

IMANOL GALLEGO



Zerk ausikitzen du nire burua?

Goizeko bostak dira eta gau honetako 5.682. buelta eman berri dut. Zer gertatzen zait? Zer dela eta izerdi hotz hau? Lo egin beharrean sakelako telefonoa hartu eta interneten saltseatzen hasi orduko topatu dut nire loezin horren arrazoa. Uste dut kazetari bat nire mingain luzeagatik kaleratua izan dela. Zer egin? Nori deitu?

Vasile oraindik lo dago eta gainontzeko telebistetako buruak ere antzera. Bien bitartean Garcia koitadua kaleetatik bakarrik, oinutsik eta negar-zotinka ibiliko da. Berak ez du ezer txarrik egin, Pakirrin eroatearen kontua txantxa bat zen eta duela pare bat aste emandako orgiaren zuzeneko hasiberri-sari edo nobatada bat. Badakit *Abre los ojos* ez zuela inork ikusten baina, aste batetik bestera programa kentzea ere...

Ez dakit zerbaiterako balioko duen, baina Emma Garciari esandako guztiaz damu naiz. Berak ez du fede txarrez egin, ni izan naiz hemen gaiztoa. Vasile mesedez eman errefusaren erreginari!

Eskerrak oraindik *Mujeres Hombres biceps eta berzas* gelditzen zaila Garciari, ze bestela...

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 10



'Harmailatik'

Bergarak Real Union taldearen aurka jokatutako futbol partidua ikusi ahal izango duzue, tartean. | 19:30

12:00 Aurreku txapelketa

13:20 Ikusmira

13:40 Ikusi irratia

14:30 Berriak

15:00 Ikusten

15:30 Onein

15:55 Aizank!

16:30 Berriak

17:00 Kantari

17:30 Ikusmira

17:50 Ur eta lur

18:30 Berriak

19:00 Erreportajea

19:30 Harmailatik

20:00 Debagoiena zuzenean

20:30 Berriak

21:00 Debagoiena zuzenean

21:30 Berriak

22:00 Harmailatik

22:30 Debagoiena zuzenean

23:00 Berriak

23:30 Gurean gaur

23:50 Harmailatik

00:20 Debagoiena zuzenean

MARTITZENA, 11



'Kantari'

Arrasaten grabatutako Kantari karaoke ikuskizuneko azkeneko saioa izango duzue ikusgai. | 19:30

12:00 Ikusi irratia

12:45 Ikusmira

13:05 Ikusten

13:35 Ikusmira

14:00 Debagoiena zuzenean

14:30 Berriak

15:00 Harmailatik

15:30 Onein

16:00 Debagoiena zuzenean

16:30 Berriak

17:00 Aurreku txapelketa

18:20 Erreportajea

18:30 Berriak

19:00 Erreportajea

19:30 Kantari

20:00 Debagoiena zuzenean

20:30 Berriak

21:00 Debagoiena zuzenean

21:30 Berriak

22:00 Pedalka

22:30 Debagoiena zuzenean

23:00 Berriak

23:30 Gurean gaur

23:50 Pedalka

00:20 Debagoiena zuzenean

EGUAZTENA, 12



Sare sozialak

Amaia Pavon irakasleak sare sozialei buruz hitz egingo du *Debagoiena Zuzenean* saioan. | 20:00

12:00 Erreportajea

12:30 Klaketa

13:15 Erreportajea

13:30 Kantari

14:00 Debagoiena zuzenean

14:30 Berriak

15:00 Pedalka

15:30 Onein

16:00 Debagoiena zuzenean

16:30 Berriak

17:00 Kantari

17:30 Ikusten

18:00 Ikusmira

18:30 Berriak

19:00 Harmailatik

19:30 Erreportajea

20:00 Debagoiena zuzenean

20:30 Berriak

21:00 Debagoiena zuzenean

21:30 Berriak

22:00 Erreportajea

22:30 Debagoiena zuzenean

23:00 Berriak

23:30 Gurean gaur

23:50 Klaketa

00:35 Debagoiena zuzenean

EGUENA, 13



Antzerkia

Erdaldun berrien kluba izeneko antzerkiari buruz hitz egingo dugu *Debagoiena Zuzenean* saioan. | 20:00

12:00 Erreportajea

12:30 Atik Zra

13:30 Ikusmira

13:50 Erreportajea

14:00 Debagoiena zuzenean

14:30 Berriak

15:00 Aizank!

15:30 Onein

16:00 Debagoiena zuzenean

16:30 Berriak

17:00 Bideo klipak

17:40 Erreportajea

18:10 Ikusmira

18:30 Berriak

19:00 Erreportajea

19:30 Kantari

20:00 Debagoiena zuzenean

20:30 Berriak

21:00 Debagoiena zuzenean

21:30 Berriak

22:00 Erreportajea

22:30 Debagoiena zuzenean

23:00 Berriak

23:30 Gurean gaur

23:50 Aurreku txapelketa

01:10 Debagoiena zuzenean

EGUBAKOITZA, 14



'Bertxio'

Debagoiena Zuzenean saioan, Huhezin eguean egingo den *Bertxio* bertso saioaren erreportajea. | 20:00

12:00 Ur eta lur

12:35 Atik Zra

13:30 Kantari

14:00 Debagoiena zuzenean

14:30 Berriak

15:00 Ikusmira

15:20 Onein

16:00 Debagoiena zuzenean

16:30 Berriak

17:00 Kantari

17:30 Klaketa

18:15 Erreportajea

18:30 Berriak

19:00 Pedalka

19:30 Aizank!

20:00 Debagoiena zuzenean

20:30 Berriak

21:00 Debagoiena zuzenean

21:30 Berriak

22:00 Erreportajea

22:30 Debagoiena zuzenean

23:00 Berriak

23:30 Gurean gaur

23:50 Ikusi irratia

00:35 Debagoiena zuzenean

ARRASATE IRRATIA

'Kapsulak' haur antzerkirako sarrerak zozketatuko ditugu

Zapatuan Amaia antzokian izango da Markeliñe taldea *Kapsulak* izeneko haurrentzako antzerkia eskaintzen. Bertara joateko sarrerak dauzagu zozketan eta parte hartu nahi duzuenok 943 25 05 05era deitu dezakezue edo bestela irratia@goiena.com helbidera idatzi. Zorte on!

Goiena telebistako programazio berria berbagai gaurko saioan

Goiena telebistak programazio berria eskainiko du aurrerantzean eta gaur, astelehena, *Debagoiena Zuzenean* izeneko saioa estreinatuko dute Txomin Madina kazetariaren gidaritzapean. *Igo autobusera!* irratsaioan Madinak saio berriaren nondik norakoak kontatuko dizkigu 11:00etan.

Baserritarren eta zuhaitz landareen azoka hizpide 107.7an

Zapatuan ospatuko da baserritarren azoka eta horrekin batera zuhaitz landareen azoka ere egingo da. Horri buruz hitz egiten izango ditugu eguaztenean Arrasate Irratian Marga Garmendia, Enplegu eta Garapen Ekonomikoko teknikaria, eta Pello Garai, Udaleko landa garapeneko teknikaria.

TELE-ALBISTEAK

'Debagoiena Zuzenean' saioa estreinatuko dugu

Kalean egindako erreportajeek hartuko dute indarra saioan eta oso gertuko izango da

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Astelehenetik egubakoitzera bitartean, iluntzetan, *Debagoiena Zuzenean* saioa ikusteko aukera izango duzue gaurtik hasita. Txomin Madina kazetariaren gidaritzapean, albisteak edo edukiak aurkezteko modu berriak erabiliko dituzte erreportariak. Protagonistak eta gertaerak bertatik bertara erakutsiko ditugu eta eskualdeko lekuak erakustez gain, elkarte, talde eta herritarrei ahotza emango diegu eta beraiek bihurtuko ditugu protagonista. Saio freskoa izango da.

Egunez egun

Platoan bai, baina, batez ere, kalean egindako erreportajeak emango ditugu. Egunero erreportaje bi (gaurkotasunezkoak edo tarte finkoak) eta platoko elkarrizketa bat.

Astelehenetan asteburuko ekitaldi bati buruzko erreportajea eskainiko dizuegu batetik, eta bestetik, asteburuko ekitaldi bati buruzko solasaldia izango du Madina aurkezleak Imanol Gallego kazetariarekin batera.

Martitzenetan, berriz, besteak beste, bailarako auzoak ezagutu-



Txomin Madinak gidatuko du saio berria. | A.T.

Astelehenetik egubakoitzera 20:00etan izango da saioa

Egunero, kaleko erreportaje bi eta platoko elkarrizketa bat ikusgai

ko ditugu Mireia Bikuña kazetariaren eskutik.

Eguaztenetan, besteak beste, bailarako denda, jatetxe edota enpresen gaineko erreportajea eskainiko dizue Amaia Txintxurreta kazetariak. Elkarrizketaren tartean, berriz, sare sozialei buruz hitz egingo du Amaia Pavon MUko Ikus-Entzunezko Komunikazioko irakasleak.

Eguenetan asteburura begira jarriko gara eta asteburuan *Debagoienean* izango den kultura eta aisialdi ekitaldien berri emango digu Imanol Gallego kazetariak erreportajeen bitartez.

Egubakoitzetan, osteran, Julen Iriondo kazetariak, sukaldaritzari buruzko erreportajeak ekarriko dizkigu, eta modari buruzko elkarrizketak ere izango ditugu egubakoitzetako saioetan.

Astelehenetik egubakoitzera 20:00etan, 21:00etan, 22:30etan eta 00:20etan eskainiko dizuegu saioa eta errepikapenak izango dira hurrengo eguneko 14:00etan eta 16:00etan. Goiena telebistarentzat denboraldi berriko apusturik garrantzitsuena da saioa.

ZORION AGURRAK



ARETXABALETA
Doltza Lizarriturri Etxenautia
Otsailaren 16an, 5 urte. "Zorionak zure urtebetetzean, Zorionak ta urte askotarako, Zorionak belarritik tiratzean, Zorionak ta muxu bat zuretzako!". Eman bosteko hori, neska handi! Ondo-ondo ospatu zure eguna, *guapa!* Muxu potolo-potolo bana Araitzen, Eleneren eta familia guztiaren partetik.



ESKORIATZA
Bogdan Cabeza Davila
Otsailaren 16an, 9 urte. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta besarkada handi bat familiakoen partetik.



BERGARA
Malen Pineda Martin
Otsailaren 16an, 4 urte. Zorionak, printzesa, etxeko en partetik. Muxu handi bat.



ANTZUOLA
Unax Errasti Urteaga
Otsailaren 15ean, 9 urte. Zorionak, maitti! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Etxeko denon partetik.




OÑATI
Amane Agiriano Arregi
Otsailaren 13an, 3 urte. Zorionak, printzesa! Oso ongi pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu potolo bat etxeko danon eta, bereziki, Anerren partetik.



BERGARA
Maren Larrañaga Urzelai
Otsailaren 12an, urtebete. Zorionak, potxola! Urtetxo bat! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu erraldoi bat etxeko en partetik.



BERGARA
Ane Elkoroberezibar Rivas
Otsailaren 11n, 7 urte. Zorionak, printzesa. Maite zaitugu pila-pila, patata tortila. Etxeko guztien eta bereziki, Ederren partetik.



OÑATI
Elene Aramendi Fuente
Otsailaren 10ean, 2 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu zure bigarren urtebetetze egunian. Muxu asko-asko, etxeko danan partetik.



ARETXABALETA
Iñaki eta Manex Arriaran
Iñakik otsailaren 10ean, 39 urte eta Manexek 12an, 4 urte. Zelako handia egin zaren, Manex! Zorionak bixori amatxoren partetik! Ondo pasatu eguna!



BERGARA
Xabat Arregi
Otsailaren 9an, 7 urte. Zorionak, Xabat, zure urtebetetze egunean etxeko en partetik. Gora Erreal!



BERGARA
Aitor Lete Larrañaga
Otsailaren 9an, urtebetetzea. Zorionak, txapeldun, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Luken Gomez Barquero
Otsailaren 7an, 5 urte. Ondo pasatu eguna, zorionak eta patxo handi bat, ama, aita eta Lierren partetik.



ARRASATE
Oxel eta Xabier Roo Gardoki
Xabik otsailaren 7an, 3 urte eta Oxelek 10ean, urtebete! Segi holantxe, anaia zaintzen, gatzatu!



BERGARA
Lander Chimeno Valencia
Otsailaren 7an, urtebete. Zure lehenengo urtebetetzean, zorionak eta muxu asko denon eta, bereziki, Noaren partetik!




ARRASATE
Nerea Losa Herrera
Otsailaren 7an, 10 urte. Zorionak, *guapa!* Muxu handi ba familiako guztien partetik. Ondo pasatu eguna zure laguntxoekin.



BERGARA
Ana Ilardua
Otsailaren 6an, urtebetetzea. Zorionak, amatxo! Bodegillan bokadillo bat jatera gonbidatuko gaituzulakoan, ondo ospatu zure urtebetetzia!




OÑATI
Julen Barrena Alzelai
Otsailaren 6an, 30 urte. Zorionak, Julen! Ondo pasatu eguna eta ondo hasi hamarkada barrixa! Urte askotarako etxeko danon eta, bereziki, Jokinen partetik!



ARRASATE
Lier Etxabe
Otsailaren 6an, 9 urte. Etxeko guztien partetik... Zorionak, Lier! Oso ondo pasatu zure egunean eta... gora Erreal!



ARRASATE
Iزارo Urkitza Perez
Otsailaren 6an, 7 urte. Zorionak etxeko guztien partetik.



BERGARA
June Gonzalez Fernandez
Otsailaren 6an, urtebete. Zorionak, printzesa! Urtebete jada! Ondo pasatu zure egunian. Etxeko danon partetik.



ARETXABALETA
Irtz Berezibar Epelde
Otsailaren 5ean, 2 urte. Zorionak zure bigarren urtebetetzean. Muxu handi bat Jareren, amatxoren eta aitaxoren partetik.



ANTZUOLA
Lierni Errasti Urteaga
Otsailaren 4an, 12 urte. Zorionak, maittia. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Etxeko danon partetik.



OÑATI
Ainhize Mendibe
Otsailaren 3an, 3 urte. Zorionak, etxeko en partetik.



ARETXABALETA
Ibai Urkia Berezibar
Otsailaren 1ean, 2 urte. Zorionak, lbaitxo! Ondo pasatu eguna eta patxo handi-handi bat familiako danen, baina, bereziki Oinatzen partetik.



ESKORIATZA
Iker Jimenez Segovia
Urtarrilaren 28an, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Bost urte jada. Eskua bete dugu honezker!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitetz *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskutatuko datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@goiena.com helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
 Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.
 Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.

Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:
ARRASATE Goiena: Otolara Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
BERGARA Jardun elkarte: Errotalde jauregia (kultura etxean). 943 76 08 19.
OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
ARETXABALETA Goiena: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.
ARAMAIO Kintelena janari-denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.
ELGETA Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.
ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

HILETA

Karmen Agirre Trebiño
 Modesto Herizen alarguna

2014ko otsailaren 8an hil zen, 89 urte zituela.

Haren aldeko hileta-elizkizuna gaur astelehena izango da, otsailaren 10ean, 19:00etan Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Agur amama bihotzekua
 Danon kemen ta indarra
 Zuharitzaren sustrai sendoa
 Gu zure kimu ta adarra

Karraskainetik etarritako
 Neska rubixa ederra
 Guretzako zu izengo zara
 Gaba argitzen dun izarra.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.
 Arrasaten, 2014ko otsailaren 10ean.

JAIOTAKOAK



Intza Eraña Larrea

4,100 Kilo. Otsailaren 6a. Gurasoak: Iزارo eta Xabi. Argazkian, Intza amaren besoetan.



Izadi Atxikallende Txantre

Bermeo 3,530 Kilo. Otsailaren 5a. Gurasoak: Ainhoa eta Jon. Argazkian, Izadi jaioberria sehaskan.



Jokin Jausoro Zubizarreta

Aretxabaleta 3,950 Kilo. Otsailaren 6a. Gurasoak: Oihana eta Aitor. Argazkian, Jokin jaioberria sehaskan.



Ekain Lizarralde Mtnez de Zuazo

Oñati 3,980 Kilo. Otsailaren 4a. Gurasoak: Olatz eta Iñaki. Argazkian, Ekain jaioberria gurasoekin batera.



Lander Cifuentes Angel

Soraluze 3,100 Kilo. Otsailaren 3a. Gurasoak: Amaia eta Oscar. Argazkian, Lander jaioberria amaren besoetan.

Jaio da!

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.

Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkari batzuekin batera.



Aimar Txintxurreta Coscojuela

Oñati 3,440 Kilo. Urtarrilaren 31. Gurasoak: Nuria eta Igor. Argazkian, Aimar jaioberria aitarekin.



Xuban Marcaida Etxebarria

Arrasate 3,500 Kilo. Otsailaren 4a. Gurasoak: Izaskun eta Ion. Argazkian, Xuban, amama Rosarioekin.

Guraso berriei EROSKI hipermerkatuaren partetik, **zorionak!**

Eroskik zuen lehen beharretarako, **OPARIA*** egingo dizue Goiena Klubeko bazkide zaretenoi.

Arrasateko hipermerkatua

Musakola 11 ARRASATE
 Tel.: 943 71 10 30

EROSKI zurekin

* Debagoieneko ospitalean jaiotzen direnentzat

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Atorra	Bizkaieraz, dut	Oiloaren oihua
Musika tresna		Iparaldeko itsasoa	Kataluniarikoa
	Katu ar		
	Polit		
Mahaiko estalkia	Kolore sistema		Tantaloa
Oporrak	Kenketaren ikurra		Animalien presondegi
* Eskoriatza-ko auzoa			
Atzerrikoa			
			Kanpo, landa
Uranioa	Dena, guztia		Sodioa
Akatsa	Kontso-nantea		Boroa
		Bi ken bat	

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

L	V	B		V	X	L	V	L
V	N		O	R				
	V	O	K	O	P	N	V	K
V	T	O	I	O	N	E	M	
K	V	Z	L	N	V	K	V	B
V	L			T	V	P		Z
K	V	L	V					
R			K	A	T	V		
V			K	O	B	T	V	
K								

BILA-BILA 7

AI, ENE!

Eraginkorra bakarrik ez, baita merkea ere

Nork ez ditu zalantzak izan hotza zegoen komun baten eseri baino lehen? Konponbidea armairuan egon daiteke.

www.nopuedocreer.com



AHOBERO

"Badakit ez naizela perfektua. Nire burua gizen ikusten dut"

IRINA SHAYK | MODELOA

28 urte dituen errusiarra da momentu honetan munduko modelo estimatuenetakoa, eta gutxi izango dute bere edertasunari buruzko zalantzarik. Antza denez, bera ez da iritzi berekoa: egia dio, ala itxurakeria kontua da bakarrik?

www.mujerhoy.com

EGURALDIA



Max. 7°

Min. 3°

Astelehenean haizea ipar-mendebaldera aldatuko da eta prezipitazioa ugaria izango da. euskalmet.net

ASTELEHENEOA

goiena

2014-02-10

HAMARREKOA

Gari Legazpiarrak ez du aspertzeko astirik: iaz bi disko atera zituen, 'Ez da amaiera' eta 'Live Analogic Sessions' biniloa; orain, ohiko emanaldiekin batera, umeendako kontzertu didaktikoekin dabil | TXOMIN MADINA

"Oraindik ez da asmatu Hertzainak biziberritzeko drogarik"

1. Zer ikasi duzu irakasten?

Derrigorrez, gauza asko: umeekin aritzean, neurri batean, ume bihurtzen berrikasten dut. Pazientzia eta erantzukizun berriak lantzea ere derrigorrezkoa izan zait.

2. Zela ibiltzen zara umeekin?

Diotenez ondo, baina hasieran beldurra izaten da nagusi. Herri bakoitzean esperientzia oso ezberdina da: umeen ezaugarriek euren partaidetza baldintzatzen dute, eta horrek, emaitza.

3. 80ko hamarkadan hasi zinen zu musikan. Orduko zer berreskuratuko zenuke?

Ezer gutxi: ez naiz iraganalea eta egungoari eusten badut lan franko. Izatekotan, orduan batu gintuen izpiritu libre eta emankorra, erabat zoro eta indartsua.

4. Eta orduko zer aldatu izana eskertzen duzu?

Gizartea eta baliabideak erabat aldatu dira. Erronka da norberaren zoriontasun zatitxo lortzea. Baina ezin dira atzokoak eta gaurkoak alderatu, ziklo guztiz ezberdinak baitira.

5. Beste hainbat taldek egin bezala, Hertzainak ere itzuliko da?

Hertzainak jaio eta Hertzainak bukatu... Badira urteak taldearen eginkizunak amaitu zirela; ez du bueltarik. Beste kontu bat da esperientzia horretatik abiatuz proiekturen bat sortzea... Ikusiko da. Baina oraindik ez da asmatu Hertzainak biziberritzeko drogarik.



AGM

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Ez nintzateke ezer egiten ausartuko"

"Ez nintzateke ausartuko ezer ere egiten; tresna magikoak ez dira sekula nire gustukoak izan. Magia hitzak berak, musika testuinguruan ez bada, bibrazio oso txarrak transmititzen dizkit. Aspaldian Amazonas inguruan bizi izandako esperientzia magikoaz gogoratzen naiz eta berehala izugarritzko zirrara etortzen zait..."

6. Aro digitalean biniloa ere atara duzu. Nostalgia edo moda?

Gauzak egiteko une bereziak daude. Zeuden ideiak gorpuztu ahala, diskoak eta biok erronka eder bati ekin genion: esperientzia intimo itzela izan zen, biniloaren egungo esanahiarekin guztiz bat eginaz.

7. Zure bizitzaren soinu bandan, zein kantu ez litzateke faltako?

Kantuak baino artistak nahi ditut alboan. Urteetan bizi izan naiz Lou Reedekin: bere kantuak nirekin izan dira une goxo eta gogorretan, hemen eta han; bere hitzek lagundu didate. Orain, hil dela, bere hutsunea sentitzeak harritu nau; ezohikoa da-eta egoera.

8. Urteotan zenbat gezur esan dira Gariren inguruan?

Ez dakit, eta gainera, bost inporta. Ahalmen guztiak bizitza bizitzen jartzen ditut. Adinak nekea dakar, baita argitasuna ere, eta horiekiko guztiekiko distantzia.

9. Bilbori zaharra zela abestu zenion. Nola ikusten duzu egun?

Hiri eroso da, txikia, erreza, ederra. Asko gara leku ezberdinetatik etorri eta iritzi bera dugunak. Legazpiarra izan eta sentitu arren, bilbotarra ere sentitzen naiz. Amonak zioen moduan, Bilbo euskal herritarrona da.

10. Gaztetan beste gustatzen zaizkizu motor zaratak?

Legazpiko lagunekin motorraren mundua da oraindik ere gai nagusia; horretan friki hutsa naiz.

BIHARAMUNA

XABIER ZUBIZARRETA



Auzomina

Ez da erreza, sentimenduak borbor daudenean, patxadaz idaztea; eta gaurkoan horixe ari zait gertatzen. Euskal Herria, hainbeste urtetan (800 konta daitezke, nahi bada) jasan duen ukazioari eta jazarpenari erantzun bikaina ari da ematen azken aldian; eta sekula sekulorum luza zitekeela zirudien gatazkari, amaiera eman eta herri libre bat izateko itxaropena berpizten eta bide berriak zabaltzen ari garen honetan, berriz ere bortizkeriarekin topo egin behar. Oraingoan Elorrioko seme, Arkaitz Bellon izan da bere biziarekin ordaindu duena Estatu espainolak pasa digun faktura. Mendekua- ren eta ankerkeriaren faktura. Garesti, alajaina! Nola deitu sentitzen den honi?! Auzomina? Auzokoak sentitzen duen bera, alegia? Ez dakit, baina bai dakidana da, ez dagoela ez preziorik, ez presiorik, askatasun egarri borrokatzen duena gera araziko duenik. Horixe ari gara ikusten eta ikusarazten azken denporatan. Eta ezin gara geratu eta ez gara geratuko; ez diogu jarraituko kanpotik piztu nahi dituzten konfrontazio bortitzen dinamikei; herri honek bizi behar du; osotasunean ulertzen diren bizi baldintzatan; inolako eskubideri uko egin gabe; LIBRE! gurea duguna garatuz eta eskainiz; gure arazoak azalduz eta huts egiten dugunean zuzenduz; gure esku dago.

Arrasateko hipermerkatua

EROSKI
zurekin

ZATOZ GUREKIN EUSKAL GIROAZ GOZATZERA!

Otsallaren 14an arratsaldean eta otsallaren 15ean goizean

- Taloak
- Sagardoa
- Eta giro aparta

Talo solidarioa: 2,50 euro

MUNDU ZABAL



HIRUGARREN MUNDUKO EKARTEA
Martina - xamela

G.K.E-arentzat laguntza solidarioa



Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30